Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Segura



Aurkibidea

Udalerria: Segura

Sarrera



Goierri eskualdeko herria, Gipuzkoako hego-ekialdean, Nafarroa eta Arabarekin muga eginez. Segurarekin muga egiten duten herriak hauek dira: iparraldera Mutiloa, hegoaldera Zegama, ekialdera Idiazabal eta mendebaldera Zerain. Herritar gehienek inguruko industrialdean lan egiten dute; zerbitzu sektorea ere oso garrantzitsua da, nekazaritza eta abere zaintza osagarriak dira eta artzaintzaren ohitura mantentzean da.

- **Biztanleak**: 1.487
- **Euskaldunak**: %89,7

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **14**
- Zintak: **23**
- Pasarteak: **126**
- Transkribatutakoak: **85**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **111**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza

Hizlariak

Anttoni Aldanondo Lardizabal (1933)



Anttoni Segurako Aldaola baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; eta ama, berriz, Segura bertako Arrabiola baserrikoa. Eskolan ibili zen 14 urte bete zituen arte; eta, ondoren, sukaldaritza ikasten ere ibili zen. Baserrian lan asko egin bazuen ere, 22 urte zituela Zaragozara joan zen familia baten etxean sukaldari aritzera. Urtebete bertan igaro zuen, eta Idiazabalgo Zepai tabernan aritu zen sukaldari beste urtebetez. 24 urterekin ezkondu eta bere senarrarekin batera denda ireki zuen Seguran. Dendaria izanik, garai bateko denden nondik norakoak aipatu zizkigun elkarrizketan.

Joxepa Arrondo Aldanondo (1927)



Joxepa Segurako Pagamuinotxiki baserrian jaio zen; aita zuen bertakoa, eta ama ere segurarra zuen, kaletarra. Umetan, Segurako eskolan ibili zen, baina baserriko lanetan aritu zen txiki-txikitatik. Elkarrizketa egunean, baserriko bizimoduaren nondik norakoak eta Segurako kontuak aipatu zizkigun.

Julian Basurto (1930)

Segurarra, umetan artzain ibili zen. Segurako bizimodua kontatzen du: ohiturak, jaiak, eskola... Soldadutzako istorioak ere kontatzen ditu.

Eugenio Elorza Izeta (1940)



Segurako Hermanasoro baserrian jaio zen, aita zen bertakoa eta ama Segurako Rosales baserrikoa. Seguran jaio eta bizi izandakoa, bertako kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketa egunean. Erlezaintzaren inguruko kontuak ere aipatu zizkigun, izan ere erlezaintzaren munduan sartu zen laurogeigarren hamarkadan.

Joxepa Antoni Erauskin Arana (1908)

Joxepa Antoni Seguran jaio zen 1908an. Bederatzi senide bizi ziren baserrian. 25 urte zituela ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituen.

Juana Gereñu Azarola (1923-2011)



Juana Segurako Lastala baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa eta ama berriz Itsasokoa. Zazpi senideetan gazteena, baserrian lan asko egin zuen. Hogeita bat urte zituela ezkondu egin zen. Segurako kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketan.

Matilde Gereñu Elorza (1925-2020)



Segurako Arginetxe baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa. Eskolan zazpi urte zituela hasi zen, hamaika urterekin, eskolara joateari utzi eta baserriko lanei ekin zien, baserri handia baitzuten. Hamabost urte zituela, Segurako tabernan hasi zen lanean eta urte askoan ibili zen inguruko herrietako tabernetako barra atzean lanean: besteak beste, Zerain, Idiazabal eta Liernin.

Joxe Goia Aldasoro (1920-2013)

Joxe Goia Seguran jaio 1920eko apirilaren 25ean. Aita oso gazte hil zen, berak 6 urte zituela, eta ama 5 umerekin utzita. Familia nahiko egoera txarrean geratu arren, sukaldean babarrunik inoiz ez zen falta. Eskola txikian Segurako ospitalean ibili zen karidadeko mojekin. 10 urte zituela Lazkaora joan zen benediktinoengana. Bertan frantzesez ikasi eta ia euskara ahaztu zuen. Gerrara 18 urte zituela eraman zuten, Madrileko frentera. Ofizioz zapataria izan zen, amak zuen denda txiki batean.



Felix Goiburu

Segurako Ondarre baserrikoa. Argazkian, aita Santiago Goibururekin.

Luzia Imaz Mujika (1913-2017)



Luzia Idiazabalen jaio zen, ama idiazabaldarra zuen eta aita segurarra. Hiru urte zituela Segurara joan zen bizitzera, bertako etxean fonda zuten eta aitak autobusak zituen. Gerra garaian beraien etxea soldaduz bete zen eta aitaren autobusak erabili zituzten soldaduak garraiatzeko. Urte askoan Donostian bizi izan zen bere ahizparekin batera.

Joxe Insausti Urbizu (1935)



Segurako Aizkoetagoiena baserrian jaioa, aita zuen bertakoa eta ama zegamarra. Gazte-gaztetatik bertsolaritzarako grina izan zuen eta hamaika plazatan aritu zen, Gipuzkoako hainbat finaletan ere kantatu zuelarik. Istorio zalea izanik, Segurako hamaika istorio kontatu zizkigun elkarrizketan.

Felix Lardizabal Arrondo (1951)

Baserriko bizimoduaren inguruko azalpenak ematen ditu. Bere alaba Eiderrek egin zion grabazioa Euskal Herriko Unibertsitateko "Dialektologia" ikasgairako.

Laureano Telleria Ordozgoiti (1935)



Laureano Segurako kale nagusiko 38. etxean jaio zen. Aita zuen etxe eta ama, hortakoa eta ama berriz Segurako baserri batekoa. Seguran jaio eta bizitakoa denez, bertako kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketan. Zehaztasun handiz aipatu zizkigun bere haurtzaro eta gaztaroko kontuak, eta garai hartako Segurako errealitatera gerturatu gintuen.

Joxe Ugalde Ormazabal (1923)



Joxe Segurako Zerainsagasti baserrian jaio zen; aita zuen bertakoa, eta ama Azkuetagoenekoa. Baserriko lanetan jardun zen ume-umetatik, soldaduskatik bueltatu eta Idiazabalgo Lima lantegian lanean hasi zen arte. Berrogeita bat urte zituela Mutilora ezkondu eta hiru seme alaba izan zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Santa Engrazi auzoan pozik

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/003
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:00:52. **Bukatu**: 00:02:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Santa Engrazi auzoa lehen nolakoa zen azaltzen du. Umetan, kukuketan aritzen ziren ermitan. Beraien etxe ondoan, gaztainadi handi bat zegoen, eta han aritzen ziren jolasean. Ez zuten kalera joan nahi izaten orduan; baina, gerora, bai. Orduan zenbat lagun elkartzen ziren aipatzen du.

Transkripzioa
-Nolakoa da auzo hori, Santa Engrazi? Zuek gaztek ziñetenen-ta mobimendua ba al zeon?
-Ke ba, berdin-berdin dau, berdin-berdin.
-Berdin-berdin?
-Berdin-berdin.
-Baiño emitaa juten ziñeten ta?
-Urten behiñ ematen da meza, “dieciséis de abril”. Santa Engrazi eunen ematen da meza. Bestela ermitan jolasean ibiltzen giñen gu ermitan barrura sartuta. Kukuketan ta... han jolasen, hoixe ibiltzen giñela!
-Kukuketan?
-Bai.
-Nola zan?
-Ixkutaketan. Guk kukuketan esan genion ordun. Baiño ixkutaketan ibiltzen giñen elizan. Giltzea eak eukitzen zuen hango mutillek eta neskea´re, arreba bat zeuken –oaintxe hil da gaiñea–, eta han ibiltzen giñen jolasen barrun sartuta. Gustora asko gaiñera, danok juntauta. Ta gero eun baten ibiltzen giñen baserri hortan ta gero juten giñen beste baserri batea. Gure etxen´e han ibiltzen giñen, danok jolasen.
-Klaro!
-Gero gure etxek zeuken aldamenen gaztaiñari haundi bat. Eta han´e arbolak eta... hola ibiltzen giñen gu! Jaietan ez gendun pentsatzen kalea etorri ber gendunik´e. Bueno... ezta pentsau´re!
-Ezta nahi´re igual?
-Ezta nahi´re! Baiño behin hasi giñenen bai. Ordun gustora etortzen giñen.
-Bai, ezta?
-Bai.
-Eta asko juntatzen ziñeten, gaztek ziñetela, umek ziñetenen? Baserri askotakok?
-Juntatzen giñen baten hiru, besten lau... gero beste Mutiloa aldea zeon baserri batekok´e etortzen zien, bost, sei, zazpi... hamar bat neska behintzet bai. Ta mutikok´e bai. Danok, neska koskor eta mutikok danok ibiltzen giñen jolasen.
-Danok?
-Danok.

1.2. Auzolana eta elkarri laguntzeko ohitura

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/019
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:22:12. **Bukatu**: 00:23:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Artoa jotzeko garaian, auzolanean aritzen ziren; garia ebakitzeko ere, auzolanean. Idi parea zeukaten baserriek beste baserrietakoei uzten zien, soroak lantzeko. Auzolanean zebiltzala, merienda egiten zuten.

Transkripzioa
- Eta artoa jotzeako garaien-ta elkartzen ziñeten?
- Baita. Guk lehendabiziko bukatzen baldin bagendun artoa etxea ekartzen eo hola, gero besteai laguntzen [genien]. Eta garie ebaitzekotan´e, gurea preparatu gabe baldin bazeon eta besten batzuk hasita baldin bazeren ebaitzen, hari lagun eittea jun. Eta gero eak etortzen zien gurea berriz. Hortan oso barrio ona izan da, e? Oso ona, oso ona´re. Hortan ez dauke kejaik eukitzeik iñok! Ez, oso ondo.
- Auzolanen-ta ibiltzen ziñeten zuek?
- Bai, bai. Gu danetaa ibiltzen giñen, danetaa.
- Eta idi parea zeukenak besteei utzi ta?
- Bai, beste bi baserri zeren idi parea zeukenak. Ta haatakon bat goldatze-ta etortzen zan. Hori ta... bueno, hartu-emana normal ibiltzen gendun guk barrion. Oain famili askok bertan daukena baiño hobea.
- Etxe bertan?
- Etxe... Gure etxen ez, baiño beste baserri baten badare...
- Bai, gero... beste gauza batzuk sartzen dia, ezta?
- Bai, sartzen die ta...
- Eta gero ze eiten zenduen, lanen... lana batea ein ondoren merienda bat eo?
- Bai... a! bakoitzek bere etxetan, bestek ez giñen, hola juntau ez zan eitten ez, ez. Oin gero sorora juten giñenen ba laurek bostak alden meriendea. Etxea juteko astie bazeon, etxea juten giñen ta, bestela, erreka bazterrea eo soro exkiñan baten eo, jarri ta merindau ta segi berriz´e atzea bertaa.

1.3. Etxeko txikiena izan arren, lan asko egin behar

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Azarola, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-008/003
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:01:07. **Bukatu**: 00:03:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Etxeko senide gazteena zen. Gerra iritsi zenean, anaiak gerrara joan ziren, eta lan asko egitea tokatu zitzaion Juanari. Lehen igitaiarekin bildu behar izaten zuten garoa; debekatuta zegoen sega erabiltzea. Garotara nora joaten ziren azaltzen du. Garoa ganaduarentzat izaten zen.

Transkripzioa
-Zenbat señide ziñeten?
-Gu zazpi
-Zazpi.

-Gaztena ni
-Gaztena zu e?
-Bai gaztena ni, bakarrik, bakarrik bizi naiz.
-A, bestek [...]
-Senidetan bai danak bai bai bai.
-Eta gaztena ze beti mimatuna dala esatea...
-Bai, baiño okerrena. Zeatio nik e, gerra irten zan garaien hamalau urte neuzken, eta anaiek danak e soldadu eaman zittuen, ta hamalau urtekin aittek, aitte, aitte bakarrik lana itteko ta ni haren atzeti, zeati beste ahizpa, e, zan hura, gaixotasune pasau zon ta beti debillago eoten zan, eta esan diana, mimosokeri gutxi gutxi izan det nik.
-Bai, ez?
-Lana in bihar izan det nik, e. Ni gure gurasok, aitte zanak e, garoa ekartzen zan garai hartan e, baserrita, eta zazpi, zortzi urte bete be eaman nittun e, mendia, lapikoi kaso ittea. Ta lapikoi kaso in ta gero ahal danen, e, hola, ta garoa ta, ittaie ez dakit, badakizun, ez dezu jakingo zuk zer dan. Ittaie da, eskuz ebai beharrekoa. Zeatio garai hartan ez zuen amititzen e segaik hola, aitzen die ba baserritan.
-Bai.
-Hori ez zuen ametitzen.
-Ez zuen ametitzen?
-Ametitzen lehenbiziko eunetan ta.
-Zeatio, gehiegi mozten zulako harek o?
-Ez dakit ba zeatio esan.
-Ya.
-Ez, ta dana ittaiekin, ittaie da holako katxarro bat, kirten txiki batekin ta holaxe, ar, zea bat daukena. Ta harekin, ta aitte zanak jarri zien, e, babarruna eosteko, zea, lapiko baten preparauta ta, harei kaso iñez, garo mordo bat ein nun nik, zazpi zortzi urtekin. Uaingo umek eamango nittuzke nik hola. Gure bizimodue holaxe izan da. Ta aste guztin etorri be etxea e.
-Aste guztin?
-Ya geroxogon, baiño ordun bai baiño, geroxogon, aste guztin etorri be eoten nitzen ni.
-Hoi garota junda?
-Garota junda.
-Eta noa juten ziñeten ba?
-Hor, Zeamati gora. Zeamati gora dau e, ta uain iñok ez du hartzen garoik handik.
-Ez.
-Uain dana bestela dare preparauta, baserritan e ximaurrek eta zeak baiño ordun garota behar zan.
-Ta garoa zertako zan?
-E, ximaurre zea ganauek itten zuen garaien lokatzan ez egoteatio. Ta uain itten due, porlanakin botata dare ta udekin garbittu ta dana garbi garbi baiño ordun holako adelantuik, diruik ez zeon ta!
-Karo!
-Diruik nola ez zeon... Hola ibiltzen giñen ni.

1.4. Ohean lo; eta mikeleteak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Azarola, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-008/004
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:03:49. **Bukatu**: 00:05:31

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Beti ohean egin izan du lo; baina, garai hartan, hori ez zen erabat arrunta. Mikeleteak zer ziren azaltzen du.

Transkripzioa
-Ta nun iten zenduen lo ta?
-E nik beti ohian. Han e etxe bat bazan, Mikelete esaten giñun, Mikelete badakizu zein, ez dakizu? Uain e guarda sillek bezela, horik eote zien mikeletek txapel gorrikin ta ibiltzen zien. Jantzie eukitzen zuen kaki kolorekoa, ta txapel gorrikin ibiltzen zien. Ta horik e eukitzen zuen, uain ertzainak bezela o estilo horta. Eta hak e han e eurikin, e, Izalgo kamiño hortan uain botata dao baiño hor'e bazan e [...] ta han lo itten nun lehendabizi. Ta gero hak desaparezittu zienen taberna. Nik beti ohian ein det lo, hori bai hori bai. Gero o a e, estelak o gizakuman jendek pajarrean itten zuen, garoa ta zea botata. A, halaxe ohittutako personea naiz ni.
-Bai ba, eta mikeletek bertan zeren zuk han lo iten zenunen, mikeletek?
-Mikeletea zan hango nausi, nausie, familie zeuken ta, harek'e lana ein behar zun garaien aparteko etxea han zeuken ere. Etxe, Hotzarte jakingo dezu ba, ba Hotzartekoa.
-A!
-Hotzarten'e hantxe kamionero etxea dau, baiño hura baiño beherago zan, ta gero bota in zuen, ya familie ya gastau in zan, ta gero ezkondu, ezkondu're bai batzuk eta ezkondu ezkeo bakizu, etxea sobrante izaten da ta. Baiño beran lana han etxe, Etxegarateko o Hotzarteko tabernen ondon itten zon lana, itten zuen. Ta gero hak'e gastau zienen, ba ohian beste tabernan. Holaxe izan da gure.

1.5. Plazan dantzan, gustura

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Azarola, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-008/030
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:48:03. **Bukatu**: 00:49:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Gaztetan, jaietan, plazan aritzen ziren dantzan. Garizuman ezin izaten zen dantzatu. Orduko komeriak aipatzen ditu. Gazte garaian ondo pasa zuten. Orduko musika.

Transkripzioa
-Ta gero esaten dezu hori, gaztetan hemen ibiltzen ziñetela plazan?
-Bai, e, jaietan, Garizuman ez zuen ematen ordun ta.
-Garizuman ez?
-Garizuman ez. Bio bestela plazan e, e zea in ta haimarik jotzen zuen garaien e ya etxea, korroa ein, korroa juntzatzen giñen kuadrilla haundi bat, ta danak korroa ein, bueltan ta, hala bakoitza bereta, mutille bagendun e, mutillekin ta bestela berriz, gustokoa bagendun ta gustokoa ez bagendun, korrikan ihes eitten giñun, hola, holaxe.
-Bai e, ez balin bazenuen...

-E, fu fuera fuera fuera fuera.
-Eta neska launtzen beti mutil berdiña eukitzen zenduen eo?
-A, segun, segun, segun. E, ni neu ez naiz izan hainbesteaiñoko horietakoa, ez, ez, ez, ez, batzuk bezela ez naiz izan, baiño, ondo pasau deu guk egie esan gure gazte denborea ondo pasau deu.
-Eta ze jotzen zon hemen? ttunttunak o...
-Bai txitukin, txistue, txistue tanboliñe ta, hala izaten zan, festatako San Juanetan bakarrik e beste soiñue eo hola ordun e Ikatza ta bazien hemen soiñujolek, filarmonikakin ta jotzen zuena, oso onak zienak.
-A bai e, soiñua ta filarmonika.
-Filarmonikak'e bai, bi o hiru filarmonikakin, bi o behintzet bai, eta beste batzuk e danborra're jotzen zuen ta beste batzuk, hak onak zien Tolosakok o Ikatza ta oso onak zien.
-Beittu.
-Oso, bai, bai.

1.6. Musikarekin jendea kontrolatu ahal izango zutelakoan...

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Azarola, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-008/031
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:49:34. **Bukatu**: 00:50:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Dantza lotua egiten zuten, baina, behin, zigor gisa, beste musika estilo bat ekarri zuten Segurara. Orduan, gazteek protesta egin zuten, eta abesti guztiak lotuta dantzatu zituzten.

Transkripzioa
-Eta agarrauan hemen ittea ba al zeon, Seguran?
-Bai, bai, ta baten holaxe e agarrauen ein gendulako hurrengo San Juanetan ez ziguen ekarri zeaik, musika hori.
-A bai?
-Eta, bueno, eta ekarri zittuen galle, zea gaiterok, "Estella, gaiteros de Estella", eta hala, ta alkar hartu gendun, ta esan gendun "bueno suelton bat ere ez, ein behar deu e danok agarraue, danak agarrauen, jotzen duena jotzen duela". Gehio ez zuen ekarri gaiteroik! [...] aizu, gazte denboran, han baltseon iñatio ze pekatu ingo zan ba!
-Bai ba.
-Ta zenbaitt eta hobeto in baltseoa hura nahiago. Baiño halakoxek zien.
-E eta hori in zizuen e San Juan batzutan?
-San Juan bai.
-Agarrauen iteati?
-Agarrauen in gendulako aurreko urten agarrauen in gendulako hurrengo urten gaiterok ekarri zittuen.
-Ta hori alkatek esan zun? Hala izan behar zula?
-A, jendea kejau zalako, alkatei esan ingo zien.
-Ta zein kejau zan ba?
-Bakizu!

1.7. Jolasak barra-barra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/006
- **Iraupena**: 0:04:49. **Hasi**: 00:05:14. **Bukatu**: 00:10:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Lehen jolasak inprobisatu egiten zituzten. Orduko hainbat jolasen izenak aipatzen ditu, eta haietako batzuk azaltzen ditu: txorromorroka, gizonketan, harrapatzeketan, ezkutaketan, katarreketan, arbolaketan, puxeketan, marroketan, dendaritan, gaixoketan, txapatan, tiragomatan, sokasaltoan, tronpatan, pikoketan, painuelotan...

Transkripzioa
- Jolasak esan dezu. Ze jolasetaa jolasten zenduen umetan?
- Bueno, ordun, klaro... oain jolas danak nik uste det dala... oain ez do inork inprobisatzen, ezta? ordun danak zian... Oain dana erosi eitten da: jolas bat erosi, bestea erosi... Ordun jolasak zien inprobisautakoak. Eta nik hemen leittuko ditzut pilla bat, ume jolasak, gu ibiltzen giñenak: harrapatzeketan, izkutaketan, puxeketan, aldeketan, katarretan, katarraketan –begik tapatuta–, arbolaketan –arbolatan jolaseen–, irtenberrioketan, pañuelotan, epasalton, abaila botatzen, pikoketan, txapatan, tronpan, txorromorroketan, gizonetan, santuketan, untxurruntxeen, marroketan, tresnabiosetan, aittepuntakotan, tabatan –oin´e ibiltzen die pixkat–, tiragomatan, sokasaltoon, ontzi txikitan, dendaritan, amatan, gaixoketan, "guardias y ladrones" eta harriketan. Osea... ta beste gehio´re bai. Danak zian geuk asmautakok, inprobisautakok bai.
- Eta baten batzuk esplikau daizketzu?
- Nahi dezuna esplikatuko dizut. Txorromorroketan, esate bateako. Txorromorroketan zan bi lagun jarri buruz behera, hola, alkarren ondon behera ta salto ein gaiñea. Eta zan eskun hau txorro, hau morro, hau piko, hau tallo ta hau kes. Ta beheran zeonak asmatu behar zon zuk goien zer zenduken. Hau jartzen bazendun, "txorro!", "ez!", "morro!", "bai!". Ta gero gaina azpin ta hola. Hola jolasak, geuk asmatutakok.
- Esan dezu ere bai gizonketetan eo?
- Bai, gizonketan. Zan, e... zea batetik salto ein, este... tranpal batetik eo harri gain batetik salto ein eta zenek irudi hobea eitten zon, gizonan irudi hobea zenek eitten zon. Bai. Holaxe.
- Beittu, e? Esplikau danak!
- Danak? Danak ez dakit, luze jungo litzeke...
- Bueno, danak edo...
- Bai, bai... Harrapatzeketan zan korrikan irten ta alkarri harrapatu. Harrapaketan. Ixkutaketan –hemen jartzen do– ixkutaketan zan, ba, bat jarri –"para "esaten zitzaion–, hola, ta hogei kontau arte eoten zan: bat, bi, hiru, lau... ixkutau ta "bale!" ta ixkutauta zeona harrapatzea. Ta azkenekoa harrapau arte bea izaten zan "para". Eta gero, esaten dizut, e... katarraketan´e bai. Katarraketan zan pañuelo batekin begiik estaldu eta leku itxi –bueno, bai kasi leku itxi– baten harrapatzen alkar. bai. Arbolaketan´e bai. Arbolaketan lau arbola ta lau pertsona jarri eta bat zain, bat zea, ta alkarri pasatzen [zion] batetik bestea ta hutsunea harrapatzen zonen, da! hura harrapatu. Ta, bueno, danak hola. Eta gaiñeakotan´e ba...
- Puxeketan...
- A! Puxeketan zan e... harrapatu ta "pux" esaten zan, ikuttu ta pux. Hura

gero beste bat harrapatzea. Gero, ba, untxurruntxen izaten zan harri batekin kuadrok ein ta harri batekin ibili kuadro horietan. Eta, puf... marroketan zan ba... lau borobil ein eta handik salto eiñez batetik bestea, ta salton fallatzen bazendun, zu zea, para. Eta, bueno, este... Gero dendaritan izaten zan, ba, jarri arboladin hola denda batzuk, bueno, dendak... belarrakin ein, harrik... "hau arrautzea da, hau kafea da, hau olioa da..." jarri eta dendaritan ibiltzen giñen jolaseen. Gaixoketan´e bai, bat gaixo zeola ta hura zaintzen. Gaixo zeola ta tapatu erropa zaharren batekin ta "hau gaixo dao" ta, bueno, hola. Gere kaxa, ba, esan dizuana. Eta txapatan ba dirukin aritzen giñen, diru o txanponakin. Behatzakin hola botaz, zenek aurreago bota, txapatan. Gero zan e... este... ibiltzen giñen tiragomakin, tiragoma badakizu zer dan? Tiragomakin. Gero sokasalton. Sokasalton´e bai. Gaixoketan, tronpatan, tronpak botatzen... Pikoketan ibiltzen giñen ziri batzuk egurrekin ein ta hak lurren sartu ta zenek beherago sartzen zon harek irabazi ta dana hola. Pañuelotan´e bai. Pañuelotan oso politte zan. Bat jartzen zan erdin pañuelokin, handik lagun bat ta hemendik beste bat. Eta zenek harrapatzen zon pañueloa lehenengo. Gaiñea, kale eitten... hola kiñua ein ta pasatzen bazon raiea, galdu eitten zon. Eta harek harrapatzen bazon ta aurrea jun, ba, harek irabazi. Ta dana hola, lehen esan dizuana.

1.8. Tiragomarekin bihurrikeriatan

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/007
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:10:03. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Tiragomarekin ibiltzeko, punteria trebatzen zuten, eta txoriak harrapatzen zituzten, besteak beste. Tiragoma nola sortzen zuten azaltzen du. Tiragomarekin bihurrikeriak egiten zituzten.

Transkripzioa
- Ta tiragomatan, por ejenplo, zeri ematea juten ziñeten, latan bati edo?
- Bai, lata bati generalen. Harrie hartu ta... txoriek ia... txoriik ihes eitten zuen, baiña lata batekin, jarri, edo bestela, ein zea bat, kuadro bat eta zea baten, paita baten, arrasto batzuk ein ta hari jotzen ta bai...
- Eta nola eiten zenduen tiragoma?
- Tiragoma eitten gendun, e... hemen zapaterok zien. Behar zan: burni bat, gero gomak behar zien eta gero narrue. Oain, ba, oain tiragomak saltzen dare nun-nahi. Baiño ordun ein behar izaten gendun, ba, zapateroi eskau, enkargu batzuk ein lehenengo ta zapateroi narrue eskau, gero gomak nunbaittetik eskau eta beste burnin batekin... gere kasa, tiragomea izaten zan sagratue. Ez zeon materialik eta... Dana ahal zan bezela ein behar. Oain tiragomak lehengon ikusten nittun, e... feri baten hiru bat klase bai tiragomak saltzen.
- Bai, e? Egurrezkok-eta izaten die oain.
- Bai, kirten egurrezkokin, gomakin ta saltzen. Baiño ordun... bueno! Gaiñea, diruik ez zan. Klaro, beste gauza bat: diruik ez zan...
- Eta kristalen bat eo noizbait hautsi al zenduen tiragomakin?
- Bai, bai, hautsi giñuzen eta horko residentziko amona bat jo´re bai eta

gero aguazille elizaa eo.. eskolaa jun ta gero kastigatuta ta holako... holako bitxokerik eitten giñuzten, bai. Umek eitten dittuenak.

1.9. Baloiak eta pilotak, etxean egindakoak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/018
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:25:20. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Garai hartako pilotak eta baloiak etxean egiten zituzten. Nolakoak izaten ziren azaltzen du. Gomazko baloiak iritsi zirenean, altxorra zen hura umeentzat, pozez zoratzen egoten ziren. Ondo zaintzen zituzten orduan baloiak eta pilotak.

Transkripzioa
- Pelotak eta baloiak eta nolakoak izaten zien garai hartan?
- Nik pelotak ezautu dittut, nei... pelotak amak eitten ziun eta besteai´e bai. E... jarri barrun kortxoa, kortxoa borobildu eta ez zan eoten asko baiño galtzeta zaharren bat askatu eta harekin pelotak eitten ziun guri. Eta baloia nik motiko-motikotan trapukin einda. Trapu zaharren bat hartu, soka batekin lotu eta hura izaten zan baloia. Geroa hasi zien, guk hamar bat urte genduzkela edo hola, baloi batzuk gomazkok. Bueno... hura izaten zan... bueno! Hura zan zoramena, hura zan altxorra hura! Oain, lehen esan dizut, kanbiok izugarrik izan diela. Lehengon kontatzen nion gure ilobai eta hok kontatzen diozu eta "Bai, baiño... aittona, bai, baiño...", kontatu nion hogeita hamabi baloi, kontatu nion baserrin. Bat puskauta eta hor bezela etxe gehienetan, e? Dana, gomazkok, bestelakok, puztuta, hustuta... trapuzko baloia. Eta gomazkoa azaldu zanen... ene..!. relikie bezela gordetzen gendun. Ta pelotak, esaten dizut, oain pelotak dauzkezu denda guztietan, bueno, salgai eta abar. Ordun kortxokin ein eta benga! harekin leña pelotan!
- Eta errekara eroi ezkeo pelota edo baloia?
- Puf... bila amorrauta, bilau arte!

1.10. Jolasak inprobisatzen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/019
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:26:44. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Orduko kanikak beraiek egiten zituzten buztinarekin. Garai hartan, miseria handia zegoen, eta dena inprobisatu egin behar izaten zuten: txilibituak, zunburrinak, baloiak, pilotak, tabak, kanikak... Lehen ez zen ezer erosten.

Transkripzioa
- Eta kanikak´e bai. Kanikak oain juten zea denda batea ta zaku txikitan koloretako pilak, lau euron ematen dizue berrehun. Ordun guk eitten giñuzten, hemen panaderie zan, lagune non panaderikoa ta, ni bezela bestek, buztiñe hartu, buztiñe borobil-borobil-borobil ein eta laben erre, han berotu eta gogortu eitten zan eta hura izaten zan, gure kanikak haek izaten zien.
- A bai?
- Bai, bai, bai, bai. Ez zan ezer ta! Eske diruik ez zan. Dirutik aparte ez zan saltzen gauza horiik, ezer´e. Dana zan mixerie. Klaro, gu gerra ondorenekok gea danak. Gerran´e, ni hogeita hamabosten jaio nintzen eta gerrea hogeita hemeretzin bukau zan. Ba nik zortzi hamar urte nauzkenen, bueno... ez zuen hemen... hemen ez zeon euzkie ta haizea besteik!
- Ya...
- Dana ein behar zendun inprobisau. Guk eitten giñuzten soiñue jotzeko txilibituk, oain´e eingo nittuzke, lizarra hartu, lizarrai ebakik eitten erakusten ziuen ta pi-pi jotzen zuen. Arbolen hostokin, bueno, inprobisazio izugarrik! dana, ez zeon ezer´e ta. Oain hemen dare hamar txirula, bi zea... bueno, orain dau... ordun ezer ez zan.
- Eta holako besteik eiten zenduen? Musika eiteko beste zeozer?
- Bai, bai, zunboriñak bai. Zunboriña izaten zan, e... zea batekin, este... kañabera batekin, kañaberai bi-hiru txulo ein eta zigarro papela izaten zan, zigarro papela bueltau eta "buuuu" ikeragarrizko soiñue jotzen zan. Dana, dana, dana hola, bai. Gere kasakoa dana, gere kasakoa, bai. Ordun´e erosi ezta... ez zeon, gaiñea, ta. Pelotea bazan, kanikea baza, soiñue baldin bazan... Tabak, tabak izaten zien ardiik dauzken, hankatan dauzkenak, tabatan, klaro. Harekin tabatan eitten zan.
- Ta pintatu-ta eitten zenituen, edo?
- Ez zeon pinturaik. Ez zeon pinturaik ordun. Gure garaien ez zeon ezer´e.
- Holaxe gustoa.
- Bai, holaxe gustoa. Ez zan eta ez liburuik, ez papelik... ezer ez zan. Ni ari naiz esaten, ta edozeiñek esango dizu, ni ari naiz esaten mila bedeatziehun eta berrogei- berrogeita bosteko kontuk. Gure ume garaikok.
- Gerra ostea justo?
- Bai, gerra ostea justo. Eta pffff... jan asuntoa eta jantzi asuntoa aittatuko deu gero, otro...

1.11. Lehen arropa asko zaintzen zen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/022
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:29:58. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Lehen, denak berdin janzten ziren. Laureano 5 anaiatan gazteena zen, eta haiek erabilitako arropa jasotzen zuen. Orduan arropa asko konpontzen zen, eta zegoena ondo aprobetxatzen zuten. Orduko jantziei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa
- Eta jantzik esan dittuzula, nola juten ziñeten zuek eskolaa?
- Bueno, nik argazki bat badauket eta bueno... ordun danok berdin jazten giñen eta... orain ematen du, bueno...! Klaro, ni bosgarrena nitzen, bostak anaiek. Pentsa zazu ni azkenengoa nitzen. Zenbait erropa berri izango non? batek besteana, moztu ta jarri ta... Ordun emakumeak josten zuen... josi ta konpondu ta. Oain dana bota eitten da, ordun konpontzen zan "la tira", ez zeon ta. Nik emakuma batei, Segurakoa zan emakuma batei, aittuta nau –sinistu eitten det, klaro, hue gu baiño zaharragoa zan–harek abrigo bat zeukela, jai egunen alde onea eta aste egunen alderantziz, alde txarrea. Hura bezela askok.
- Ba ba... baiño zein zan zea... jantzik zer zien, praka motzak?
- Guk praka motzak, praka motzak eta beste jertse zaharren bat, klaro. Baiño illaran zetorrena, illaran zetorrena.
- Eta abrigoik eta? eukiko zendun ba?
- Bai, abrigoa bai, abrigo batzuk giñuzten, amak eitten ziun guri abrigok. Ordun fabrikatik izaten zan mantak ekartzen zittuen papeleratik, mantak, han papela eoteko mantak izaten zien haundiik eta handik ekarri ta haak tintau ta... ahal zan bezela!

1.12. Gaztainak eta sagarrak lapurtzen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/024
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:34:21. **Bukatu**: 00:36:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Aita iturgina zen; amak apreta-fabrika batean egiten zuen lan. Umetan, gaztaina eta sagar bila joaten ziren, baina harrapatuz gero, egurra ematen zieten. Trikimailuak bazeuzkaten sagarrak errazago harrapatzeko.

Transkripzioa
- Ta zuen ama ta, bueno, ama ta aitta zertan ibiltzen zien lanen?
- Aitte zan fontaneroa, fontaneroa zan. Ta ama, hamen bazeon apretak eitten zittuen enpresa bat eta hantxe. Apretak josi ta bi erreal etaatzen.
- Eta kalekok ez ziñeten juten, zea, baserritaa lanea edo?
- Ez.
- Ama-ta ez zian juten?
- Ez, ez, ez, klaro, baserritan bazan nahiko jendea ta gero ze pagau behar zuen haiek gizajok? Ez, ez zien juten, ez.
- Ta zuek juten ziñeten gaztaiñan billa edo piku billa edo?
- Bai, bai. Gaztaiña billa-ta juten giñen baño, klaro, ikusten bagiñuzten, egurre han´e! Je! Sagar harrapatzea´re juten giñen eta oaingo mutikoi esaiozu sagar harrapatzea juteko.
- Bai, ba, e? Baiño noizbehinka jungo ziñeten?
- Bai, bai juten giñen, bueno...! ordun sagarrak ekartzea zan etxea... bueno, pufa..! Sagarrak, bueno...! Ta ordun´e sagarrak harrapatzeko ni ikusita nau, oain ez dau, lokal baten, bajera baten, sagarrak. Klaro, urruti samar. Eta […] zeon gosek eraitten dun […], makilla baten jarri iltze bat zorroztuta eta tak! sartu ta kanpoa.

- Inbento ona!
- Bai, bai, bai! Horiik gosek eraitten dittu, horiik, e... Oaingo mutikoi esaiozu hori, bueno...! Dana dauke ta, eskua dauke dana ta! Guk dana falta gendun. Ta dirue, bua...!
- Ta sagarrak ez zenittuen harrapatzen arboletatik, harrapatzen zenittuen...?
- Bai, igual eukitzen zuen bajeratan sekatzen eta leihoa irekita igual, aireatzeko ta hola, ta makilla luze bat puntan –ikusten ez bagiñuzten– puntan iltze bat zorroztuta ta tak! han [inkau] ta kanpoa Ta hola... bua!

1.13. Ezkondu osteko matematikak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/040
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 01:00:28. **Bukatu**: 01:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Orduko ezkontzak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Nobio garaian, ez ziren bikotearen etxean sartzen; Laureano ezkondu baino hilabete lehenago sartu zen andregaiaren etxean. Ezkondu ostean, haurra jaio arteko denbora kontatzen aritzen zen jendea. Ezkondu aurretik gelditzen baziren haurdun, lotsa eta kezka handia sortzen zuen horrek familian.

Transkripzioa
- Eta gero, zeak eta, ezkontzak eta, nola izaten zien garai hartan? Zu ezkondu ziñenen ta. Bueno, hori ya lehentxiago, osea gertuxio dao, e? Baiño...
- Bai ni 62n ezkondu nintzen. Bueno, ba, ezkontzeko, bueno... ordun ba... esate baterako, nobiotan ordun etxen ez zan sartzen. Oain ezagutu ta etxea juten die. Bueno, normala. Gure garaien, nik nobiotan pasauko nittun zazpi-zortzi –gazteik hasi– zazpi-zortzi bat urte ta azkeneko hilabeten sartu nitzen andren etxen, e? Azkeneko hilabeten...
- Baiño ordura arte ez zintuen ezautzen edo bazekien?
- Bai, bai, bai, bai baiño etxea ez zan sartzen. Alternatiba ez zan hartzen, ez zan hartzen alternatibaik. Jo! Eta gero, gero beste gauza bat... ezkondu ta jendek beitzen zon familie noiz izan zan. "Noiz ezkondu zien horiik? Ba, beatzi hilabete pasa die". Pfffff.... lasaitasune. Ta batzuk justu samar, klaro, eta ahhhhh, bueno...! lehentxio ein behar, eneeee...
- Eta leheno eindakoa baldin bazan?
- Bueno... sellau.
- Bai, e?
- Sellau. Bai, bai, bai. Nik aittei aittuta dauket, zaharragoa ta nere aittei aittonak esan ziola, harek´e ezkondu ta bela ta familie ta [ez jakin noiz...] eta egune pasau zanen esan omen zion semei: "Antonio, oaintxe lasaittu nauk!". Hola zan, bai, bai, bai! Ta gu ezkondu giñen maiatzen ta gurea jaio zan martxon, pffff...
- Lasaittue.
- Bai, gurasok lasaittue. Bederatzi hillabete. Oain, oain, kontu horiik...
- Eta gero, behin umea eukita, elizaa sartzea ere eiten zan, ez?
- Bai, bai. Zortzi-hamar egunea elizaa sartzea eitten zan. Bataiau´re

belaxen, e? Bi-hiru egunea. Oain bataiau´re ez da eitten, bueno. ETa, bai, bai. Baiño kontrol... "hoik noiz ezkondu zien? Maiatzen 30en? Aa.. Pasa dek, hala´re..." ta "horiik? ene, aittu al dezue? Zortzi hillabetea izan die! eneee!". "Condenau".
- Eta hori herritarren arten.
- Bai, bai.
- Baiña sermoien esaten zan honek hau eta hau ein dula?
- Hori pekatu mortala zan. Pekatu mortala zan hori, ezkondu aurretik relaziok eukitzea... ja ja... "esa es otra".
- Baiño eingo zian?
- Bai, deskuidok izaten zien, bai, bai. Deskuidok, bai, bai. Baiño pekatu mortala zan, hura konfesau ein behar zan, bestela badakizu noa ziñozten, e? Sutaa bizi guziako.

1.14. Herrien ezizenak eta haien jatorria

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/035
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:45:47. **Bukatu**: 00:48:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Esaera zaharrak gogoan ditu. Inguruko herrien ezizenak aipatzen ditu. Segurakoei "zopajale" deitzen zaie; izen horren jatorria azaltzen du.

Transkripzioa
- Ta esaera zaharrik eta gogoratzen al dezu?
- Bai, esaera zaharrak... "Zuhurren poltsek bi zulo" eta... bueno, eon... Oain ez do... Honek ez dauke oain bere zearik, baiño gure garaien "Aste eder, jai kakatsu" esaten zan; asten dotore janzten zana jaien "no lucía". Aste eder, jai kakatsu.
- Beittu... Ta bazeon ba... badao ba "Seguran ta Zegaman..." ez, "Ataunen ta Zegaman, egunez ikusi eta gauez eaman".
- "Gauez eaman". Ta oain, beiz, enkanbio, esaten due "egunez ikusi ta seittun eaman" esaten due. Baiño holakok badie, bai, bai.
- Segurak ez zeuken holakoik?
- Bueno, Segurak... eukiko zon [...] igual. Hemen gero gaitzizenak dare: Seguran zopajalek.
- Zopajalek?
- Bai. Zegaman belak, Zeraiñen xaguk, Mutillon txerrigorrik, zean azak, Ordizin, Beasaiñen barak. Hori ze... [noizdik] datorren-ta ez dakit, baiño herri gehien-gehienak [dauzke hoik]. Txintxarrik, pikuk Legorretan, txintxarrik Alegrin, otsok... otsok nun die? Otsok Ataunen uste det diela. Hori nundik datorren ez dakit, baiño horik´e gaitzitzenak die, zeak zeuzkenak, herri bakoitzek zeuzkenak.
- Eta hemengok ze fama zeneukaten segurarrak?
- Bueno, esaten dute Seguran, e... zopajalek. Hemen zopea esaten da jatekoa, baiño ez do izan behar hori. Emen zan hemen garai baten maizter asko eta errentero asko etortzen zala honea dirue pagatzea ta hola. Hemen jokatzailek ikaragarri egon behar zuen, trebek o tranposok, ta jokun uste det dirue hemen kanpoko jendei kentzen ziela ta, ordun, ba, zopajalek.

Zopea esaten zaio zuk zepo baten jana, benenoa, jartzen badezu, "zopea" esaten da. Juizio baten irabazten bazu, ohitturea da "ba, zopa earra jan ziok!". Jokun´e bai. Zuk irabazten diozu joku bat eta "a, zopea jan ziok". Ta, ordun, hortik datorrela. Oain, beste hok, xaguk eta otsok eta... ez dakit.
- Auskalo. Baiña zopajalenak badauke bere...
- Bai, bai, hola da [arrazoia]. Hemen zopea esaten da "la sopa", jaten dana, baiño ez det uste... Bueno.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Eskolako oroitzapenak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/005
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:03:38. **Bukatu**: 00:04:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Zazpi urtetik 11 urtera bitartean ibili zen eskolan. Orduko oroitzapenak gogoan ditu: Cara al Sol, gerra hasiera, dotrina, bi komunio...

Transkripzioa
- Zazpi urtekin hasi nintzen eskolan eta hamaika urtekin geldittu nintzen. Eze askoik ez non ikasi nik eskolan.
- Zazpi urtetik hamaika, lau urte ordun?
- Bai, besteik ez.
- Baiño ze rekuerdo daukezu eskolakoa?
- Eskolakoa? Mojakin hementxe ibiltzen giñen ta, mojakin. Gero gerrea sartu zan eta "Cara al Sol" kantau jardiñen ta hementxe mojakin oso poliki. Askotan ez zan etortzeik izaten eskolaa... zeatik gero gerrea hasi zanen, gure etxetik aldamenea español esaten zaion mendie dau. Ta han soldaduk jarri zien ta tiroa botatzen zuen ta ez giñen etortzen eskolaa. Gure eskola hola jun zan. Dotriña. Komunio haundie eitteko. Lehen bi komunio izaten zien hemen behintzet! Zazpi urtekin e... txikie ta zortzi urtekin, oi... hamaika urtekin haundie. Eta hura ein ezkeo ya eskolako...
- Kontuk akabau.
- Kontuk akabau zien.

2.2. Eskolako zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Eskolako zigor gisa, besoak zabaldu, eta liburuak jartzen zizkieten eskuetan. Matilde ere zigortu zuten. Euskaraz egiteagatik ere

zigortu egiten zuten; zigor haiek nolakoak ziren azaltzen du. Pixkanaka erdara ikasi zuten.

Transkripzioa
- Gero jartzen giñuzten, bestek´e [...] izaten, hola bi eskuk jarri ta liburuk gaiñen jarri ta hola eon behar.
- Bai, e? Denbora askon eoten ziñeten hola?
- Bai, ordu erdi bat behintzet bai. Ordun bai nekatzen ziela gehio! Ordun bai nekatzen ziela gehio!
- Ta zuri kastigau zizuen, zu?
- Ni bai. Bai, hoixe! Ni´re kastigau ninduen, hola beharko eon, beharko eon hola! Bai gu kastigau bai.
- Eta euskeraz eiteatik-eta kastigok eukitze al zenittuen?
- Bai, kastigue eukitzen gendun. Euskeraz... erderaz baten batek eitten bazon, pagatu behar zon, esto, bukaeran, erreal bat eman behar zon. Ta ordun garai hartako erreala asko zan. Eta klaro, zu... euskeraz ez, erderaz ein behar gendun dana, erderaz. Eta euskeraz ordun eitten bazon baten batek, ba, erreal hura ematen zitzaion. Ta harek euki behar zon. Ta zapatun hura harek baldin bazeuken, hura pagatu ein behar zon.
- Aiba...
- Eman ein behar zon, hurrengo asteako izan zeien. Eta guk eitten gendun, nik bezela bestek´e, prokuratzen gendun, ba, alrebes eittea. Euskeraz eittea. Zuk baldin ba... euskeraz eittea. Aber, besten batei erreala emateko, euskeraz eraittea. Baiño, klaro, ya azkeneako jendea jarri giñen "al tanto. Bai, bai, kastigu hori izaten gendun.
- Klaro hori eiten zizuen?
- Guk genduken kastigue dirue ematea. Guk dirue ematea genduken kastigu.
- Ordun, euskeraz hala´re eiten zenduen hala´re?
- A bai, bai, euskeraz eitten gendun irtendakon ta... erderaz noiz ikasi gendun ba? Holaxe, pixkat, orduntxe, kastigu horiekintxe ikasi gendun erderea, bestela...
- Ezer ez.
- Bestela euskera.

2.3. Dotrina ikasi ezean, komuniorik ez

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/010
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:10:09. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Dotrinara joaten ziren, bai txikitan, bai komunio handia ikasteko garaian. Orduko oroitzapen onak ditu. Dotrina ikasten ez bazuten, komuniorik ez zutela egingo esaten zieten. Matilde lezioa hartzen aritzen zen besteei.

Transkripzioa
- Eta gero dotrina´re esan dezu juten ziñala?
- Dotriñan ondo pasatu non.
- Bai?

- Elizaa juten giñen dotriña, han dotriñan ondo pasatu non. Dotriñan... dotriña juten giñen txikitan, txikik giñela. Gero ya juten giñen komunio haundie eitteko ikastea. Eta bi alditan edo hiru alditan hartu zien nei dotriñea eta ondo eman non. Eta ordun jarri nittuen beste batzuei hartzen. Horrek... badakizu zer zan ona? Jolin! Nerea nahiz ahaztu, besteana hartu behintzat! Egie da hori! Neurea ahaztu igual baiño besteai...
- A bai, e?
- Beti apaiz bat juten zitzaigun ta besten bat juten bazan, ze bildurre... ze bildurre, asmauko ote gendun. Zeatik esaten zun dotriñaik ikasten ez bagendun, komunioik ez gendula eingo. Ta gu hantxe ibiltzen giñen.
- Ta asmatzen ez bazenduen ze?
- Asmatzen ez bagendun, kastigue berriz´e ikasteko hurrengoako doble!
- Ordun zu eon ziñen, e... lekzioa hartzen edo?
- Bai, lekzioa hartzen eoten nitzen, bai. Ta askok esaten zien lagunek: "Ez esan geizki... ez dakiunik e? Hik ondo dakiula esan, e?" ta apaizek galdetzen ziin: "Matilde, zer? Zer moduz?", ta "Oso ondo danak!". "Bueno...". Haek gustora, ta ni ere bai!
- Bai ba!
- Apaizek´e kargu gehio hartzen ez zonen... konforme.
- Klaro... ta ez zizun esaten: "benetan ai zea eo..."?
- Ez... hori ez zien galdetzen. Fiatzen zan, fiatzen zan!

2.4. Komunioko soinekoa josi... eta zikindu

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/012
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:12:19. **Bukatu**: 00:14:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Komunio eguneko ohiturak aipatzen ditu. Komunioa egin ostean, txokolatea hartzen zuten, eta Matildek bere soinekoa zikindu zuen orduan. Soinekoa erosi zuenekoa ere gogoan du. Komunioa maiatzean egiten zen.

Transkripzioa
- Ze eiten zenduen komunion?
- Komunio eunen, ba, eitten gendun komunio haundie. Kandela bat piztuta juten giñen, eoten giñen elizan, Jaune hartu ta hitzaldin bat edo zeozer eitten zon eta gero bikarion etxea txokolatea hartzea. Nik behintzat txokolatea hartzen ai nintzela komunioko soñekoi goitik behera bota nion ta... ya esta. Hura izan zan... nere propiñea.
- Bueno, ondo.
- Eta etxen´e, berriz, demandan hura ein niolako. Lehendabiziko, Seguran dendea zeon ordun ta denda bialdu nittuen, neonek nahi non soiñeko telea hartzeko. Ta erosi non, eo... eskatu non "azul marino"a. Eta bat zeon metroa hamar pezeta. Eta beste bat zeon hamabostekoa. Nik hamabostekoa aukerau. Jesus... Ze demandak ein zien etxen...! Garestie erosi nola, eo eskatu nola. Ze demandak ein zien! Ta gero zer da ta komunioa ein gendunen dana mantxauta utzi! Hala´re garbittu zuen tintoreria eramanda, e, baiño... Behintzet ezaugarri hura eraman non nik, kalen, oi bikarion etxen kafesnea hartu ta dana mantxauta goitik behera.

- Eta zuk aukerau zendun tela?
- Tela bai. Esan zien nahi nona aukeratzeko ta nik... jolin, gehio gustau zitzaiten hamabostekoa ta nik hamabostekoa. Bai... hamabostak ahaztu zien gero nei demandan hasi zienen etxen! Baiño ba... pasau zan behintzet eta!
- Bai ba! Gero hori amak eingo zizun ordun, edo jostuneta eramaten zenduen?
- Ez. Ahizpak baneuzken eta haek zeuken lagun bat jostune. Eta gero harek, jostun harek, ein zien nei soiñekoa.
- Zenbat...?
- Liso-liso-liso...
- Liso?
- Liso-liso-liso. Ta "kuelloa" holaxe bueltan, ta kitto.
- Ze eiten zan maiatza alden eo hola eiten zan komunioa oain bezela?
- Bai, maietzen, maietzen eitten zan komunioa, bai, maietzen. Maietzen izaten zan.

2.5. Sororako zakuak, eta soineko gorria janztearen arriskua

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Azarola, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-008/005
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:05:31. **Bukatu**: 00:08:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
  Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Baserrian aitarekin batera aritzen zen lanean; orduko zereginak aipatzen ditu. Lehen hotz handia egin arren, arropa ez zen hartarako egokia izaten. Soroko lanetan zebiltzala, zakua erabiltzen zuten euritik babesteko. Gerra garaian, soineko gorri bat jantzita izateagatik, komeriak izan zituzten.

Transkripzioa
-Ta ze lan gehio gogoratzen dezu iten zenuela?
-Guk, baserrin ba baserriñ e aittekin batea ba, oain e ez da itten garik eta hola, baiño a goldan idikin itten zan ordun, uain tratorea dau, ta idikin itten zan ordun ta haren atzetik goldek botatzen zona, hura atxurtu, garie eitteko, hala ibiltzen giñen, ta egualdie, uain baiño txarragoa iten zittun izotzak eta lana iteko, baiño eskuk holaxe in, ta [...].
-Ta erropa ta’re ez zan izango uaingua bezelakua?
-Erropak e, guk e, e holako botak eta ene, abarka xaharrak, abarka batzuk, abarkak izaten giñun, zapatan estilokok baiña abarka batzuk izaten zien. Bai, ta hakintxe ta ezta gaiñea jantzik’e holako zeaik ez, zakue, burutik hartu eudie balin bazan zakue hartu, ta zakue hartu burutik eta hura.
-Ta ze iten zeniez zulon bat zakui o?
-Ez, hori, [...] nola esango det. Hau da zakue ezta? Zakue hau da, e? [...] ta zakuei buelta, honei eitten diozu zea bat, zulo bat bezela eukitzen do beheraka eukitzen do ta, hura, hura hartu burutik, bai.
-Hola ibiltzen ziñeten?
-Hola ibiltzen giñen, eudie balin bazan e soroa jun behar bagendun arbie ekarri o gure aittea hura jantzi ta beste, beste jantzik ez zeon, uain bezelako e zamarraik eta holako gauzaik, keba keba keba. Abrigoa bai, ni

abrigokin ibiltzen nitzen, baiño azpitik uain bezela, gona lodik eta hola ez e, ta holako jerseik eta e, udaran ibilitako soinokoa, abrigon azpitik jantzi ta [...]. Hala izaten zan orduko e gurea. Klaro nik e, gerra irten zan garaien e akordatzen naiz e ze, guk bazkaria itten gendun e, zan Julion, “veinticinco de Julio” festa itten zan Seguran, eta genden e kanpon e familikok etorri zai eta, gure etxen frenten taberna bat dau e zan, kamiño ondon, eta genden ni soiñoko gorri batzuk, hemen uain e hilda dao baiño koiñata zan, ta harek eindakok, eta karo ordun zan gerrea, orduntxe pasau zan, eta bakarren batzuk e, ordun gorrie ta hola izaten zan, ta gorrikiñ neolako tiro bat botatzea omen zijozten, han tabernakok esan ezetz, kanpoko jendea zeola han e bazkaltzeko zai, eta hala geldittutakok.
-Eta gorriz jazteagatik e?
-Bai, soiñeko gorrikin gendelako, bai, bai, holaxen izaten zien gauzak garai hartan.
-Ya ya ya.

2.6. Eskolako egurra jasotzeko entrenatuta

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/008
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:13:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Lehengo umeek oraingoek baino gaiztakeria gehiago egiten zituzten. Eskolan zigortu egiten zituzten. Eskolara joan aurretik, eskuak ondo prestatzen zituzten, egurrarekin joko bazituzten, min gutxiago izateko. Maisu bakarrak 70 ikasle inguru izaten zituen.

Transkripzioa
- Ordun gaiztakerik-eta eindakoa´re bazea?
- Bai, bai... ordun danak eitten giñuzten gaiztakerik. Ordun, hemen eoten zien ba... Oaiñ baiño gehio zan ordun, oaingo umek, esate bateako, residentzin-ta eoten die, ez? O kojoa o begibakarra o... ordun danai burla eitten zitzaien, ta oain ez, oaingo umek ez die eitten. Oaingo umek gu baiño gehio die. Gu hoiei burla eitten, bueno...! Ta gero eskola jun ta gero kastigue.
- Ta ze kastigu izaten zien eskolan?
- Bueno, kastigue izaten zan eskolan ba... lauetan irtetzen gendun ta seiek aldea arte han eotea. Eta egurre izaten zan eskolan. Eskolan gure garaikok danak esango dizue gu juten giñela eskola eskuk berotuta. Fff, fff... gutxigo... makillakin jotzen giñuzten, regla batekin jotzen giñuzten, gutxigo miñe hartzen zala ta zeauta. Ta batzuk –gehixeo jotzen zutenak bazien, gutxixeok´e bai pertsonak, ta–baratxurikin einda juten zien eskolaa, irrist eitteko.
- Bai, e?
- Egurre izaten zan! Bueno...! Klaro, normala zan. Orduko maixuk, oain, esate bateako, gela baten eoten die, ba, ez dakit... hemezortzi-edo batekin. Lau urtekok, bostekok... Ordun hasi lau urtetik, parbularion ibiltzen giñen mojatan hiru lau urte arte, handik hemezortzi arte batek eukitzen zittun. Eta igual hirurogeita hamar igual maixu batek. Klaro, han egurre zeon eman beharra.

- Ta bakoitze edade batekoa gaiñea?
- Puffffff... edade batekoa ta batek ipini ta bestek gaiztakerie ta... Baiño ordun jotzen zan. Lezioa eman, lezioa esatea ziñozten garaien, lezioa esaten gendun guk gauzak galderak eitten zuena, hura esatea giñoztela, jende guztie pffff, pffff, pffff... Bai, bai. Ta gu bezela askok esango dizue hori gure edadekok, bai. Eta normaleen eskun jotzen zuen. Eta oso torpea baziñen eo gaiztakerie ein bazendun, hola jarrita. Hola jarrita, bai.
- Bai, e?
- Esku gaiñen. Bai, bai. Bueno... hura izaten zan...
- Ta jotzen zuen, hori, lezioa ez jakiteatio?
- Bai, eozein gauzaatio, eozein gauzaatio! Maixue [han desahogatzen] zan... Klaro, berrogeita hamar ume ta...

2.7. Lehen egurra eskolan eta kalean

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/009
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:13:31. **Bukatu**: 00:14:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Gaiztakeria handi xamarra egiten zutenean, besoak luzatu eta liburuak jartzen zizkieten eskuetan. Lehen eskolan asko jotzen zuten maisuek; eta, gaur egun, beste muturrera joan da egoera. Aguazilek ere lehen jo egiten zituzten umeak.

Transkripzioa
- Eta gero beste kastigu bat zan... hura zaila... hura gaiztakeri haundi xamarra eindakon, bi liburu, belauniko jarri ta bi liburu eskun hartu ta eroi arte. Oain esate bateako, oain erabat aldendu, diferentea da. Oain ume bat jotzen badezu juizioa eitten dizue, klaro, andereñoi edo maixui edo...
- Bai, bai...
- Bi estremoa jun gea. Ordun egur bat zan, hemen´e bai ta dotriñan´e bai, e? Dotriñan gutxixeo ematen zan egurre. Baiño eskolan zan jotzea... baiño baiño... reglea botatzen zon gure maixuk: "xiuuuuuu", jotzen baziñuzen...
- Ta ematen zionai.
- Bai, bai, ematen zionai. Ta etxea [ebakin bat] eamaten bazendun, "ni caso", e? "Mereziko huan ta!". Ta oain ya beste estremoa, nik uste det beste estremoa jun geala. Hura oso txarra ta oaingoa´re ez dakit. Oain ez dau ume bati belarrondoko bat emateik. Zeatio bueno! Bueno! Ilea eroitzen zaizu!
- Ta garai baten hori, ez? Etxeen...
- A! Etxen ez ezer esan, zeatio: "Zeoze eingo huan jo haueneako!". Ta aguazillek´e, aguazillek egurre ematen ziun. Dana egurre zan ordun.
- Aguazillek´e bai ordun, e?
- Aguazillek, bueno... aguazillek... Jesus! Ordun ba, esaten dizut, bi alderditaa jun geala. Oain era batekoa dau ta ordun... hura´re txarra. Oaingoa´re ez dakit, oaingoa´re ez dakit...
- Libregi, ez?
- Bai, bai... neretzako, e? Neretzako... ez dakit...

2.8. Eskolako arbela oraindik gordeta

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/012
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:18:14. **Bukatu**: 00:20:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Eskolako arbela oraindik gordeta dauka, eta erakutsi egiten du. Klariona erabiltzen zuten han idazteko, eta trapuarekin borratu egiten zuten. Aldaketa handia egon da lehendik hona, alor guztietan.

Transkripzioa
- Klarionakin eitten gendun, eta erakutsi. Ondo al dao? Bai. Ta gero berriz klarionakin idatzi hemen. Hau izaten zan, gure liburue hau izan zan. Ordun ez zeon ez kuadernoik, ez hojaik... ari naiz esaten 1940en, ez oain. Eta boligrafok eta horik izaten zien... lapitzen bat edo baten batek baldin bazeuken, bueno...! eta klarion bat, eta klarionakin ein eta gero honekin borratzen zan. Honekin borrau eta segi berriz´e. Hau zan gure zea... Klaro, oain nik esaten deana da, gure billobak-eta Interneten eta... "beittu, aittonak honekin ikasten zian ba!". Ze aldaketa! Nik ikusi dean gehiena aldaketea izan da, danen: jantzin, janzten, eskolan... dan-dan-dana. Bueno... eta sexo asunton eta relijion, bueno, ez det esan´e ein nahi.
- Ya...
- Hau zan gure liburue edo gure kuadernoa, hauxe, hauxe, pizarrea. Hau da, honekin juten giñen gu eskolaa borradorea zea baten sartuta ta pizarreakin, aiba ta rrrrr. Jun ta "hau ondo zeok, hau gaizki zeok", borrau eta gero...
- Klaro, baino etxeako... eskolan eindakoa gero etxen akordau ein behar!
- Bai, bai, bai... kitto. Ta etxeako hemen ematen zuen ta borrau gabe eman behar etxea. Ta gero azpin resultaduk jarri ta... Hau zan gure... papelik ez zeon.
- Eta bi aldetatik erabiltzen zenduen?
- Bai, bitatik, bitatik, bitatik. Zeatik, klaro, terreno gehio, alegie, honek bi aldetan zeon ta.
- A, beittu...
- Bi aldeta. Bai, hau zan gure, zea... Ta nik askotan gure billobai esan diet: hau zan gure kuadernoa. Papelik ez zan, papela... Jesus! Boligrafoik ez zan, lapitzen bat baldin bazan... pinturan bat... bueno, danak klarionakin, klariona bazan ta.
- Ta hoi ze emate zizuen eskolan bertan?
- Hau erosi ein behar zan. Prezioa bazon honek. 20 zentimo edo... hamen, hamen dau oindio: 4 zentimo ta erdi balio zon garai hartan, pezetatan. Hau izaten zan gure kuadernoa eta danak honekin. Pizarrea esaten zaio honi, pizarrea. Hau sartu zean, kolkon edo trapu zaharren baten bilduta edo zakun baten sartuta.
- Beida, beida... kuriosoa.

2.9. Eskolako liburuak eta arbela

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/013
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:20:27. **Bukatu**: 00:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Eskolako liburuak oraindik gordeta dauzka, eta erakutsi egiten ditu. Eskola erdaraz izan arren, dotrina euskaraz egiten zuten. Arbela oinarrizko tresna zen eskolan.

Transkripzioa
- Ta gero hor liburu gehio´re badauzketzu.
- Bai hemen liburuk guk ebali giñuzten dotriñak die hok, dotriñak, kristau ikasbidea.
- Euskeraz e dotriña?
- Bai, bai, euskeraz. Hor zan txokea. Hortan apaizek lan asko egin zuen. Guk eukitzen gendun ba... klaro, dana hor erderaz eta dotriña jun ta dana euskeraz.
- Dana euskeraz.
- Dana euskeraz, bai. Gero hemen dauzketzu ba ordun ibiltzen giñuzten liburuk eta geroxeokok, ya geroxeokok die. Hau geometrie, hau ya hamabost bat urtekin o hamalau bat urtekin ibiltzen [baziñen] eskolan, hauxe zan. Baiño haserakok, haserakok zien hok. Dotriña...
- `Martintxo´re ikusi det.
- Bai! `Martintxo´ leitzeko-ta ibiltzen gendun, bai.
- Baiño hori eskolan ematen zizuen, edo zuen kabuz?
- Hau gure kabuz, hau guk etxen ikasteko. Gurasok-eta ematen ziuen. Klaro, erderaz... hautza ez zeon eramaitek eta!
- A, `Xabiertxo´ da.
- `Xabiertxo´, bai. Gero hau ein zan, bueno "Historia Sagrada" hau esplikatzen ziun zapatutan, maixuk. Dana, `Historia Sagrada´, beinga...
- A zapatutan eukitzen zenduen?
- Bai, relijioa bai. Maixuk "Historia Sagrada" ematen ziun zapatutan. Eta gero dotriña ba... hemen dauzket nik zea asko... kriston gauz pillek. Ba hau da, esan nizuna, nik uste det originalena, hau. Hau, hau.
- Bai, bai!
- Gure garaiko papera eta koadernoa hau zan.
- Dana hoixe.
- Dana hoixe. Geroa hasi zien papelak eta horik eta...
- Ba hor asko´re ezingo zan idatzi edo bai?
- Bueno, bueno! Hemen ematen zuen igual... jartzen zuen igual lau ta bost zenbakie eta lau ta hiru ta batuketak "matemáticas" eta hemen izaten zan beste zean bat, beste asignaturan bat, baiño ba... guk ze ikasiko gendun ba! Bost, sei, zazpi urtekin...
- Klaro...

2.10. Historia Sakratua: lezioa edo egurra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/014
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:22:23. **Bukatu**: 00:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Historia Sakratua ikasteko, nola moldatzen ziren azaltzen du. Lezioa edo egurra, bietako bat beti tokatzen zen eskolan.

Transkripzioa
- Eta "Historia sagrada" por ejenplo nola ikasten zenduen? Irakurri eiten zenduen?
- Beak irakurtzen ziun, beak irakurtzen ziun "Historia sagrada" eta gero burun hartu behar zendun eta gero galdetu eitten ziun hurrengo asten edo, bueno... "Cain y Abel" ta bestea ta bestea eta bestea.
- Eta zuk, adibidez, etxen esaten zendun, laguntza eskatzen zendun aber "Historia Sagrada" bazekien etxen, edo?
- Bueno "Historia Sagrada"... bueno, ordun bai. "Historia Sagrada" gure aittek-eta bazekien "Historia Sagrada". Zeozer. Asko ibiltzen zan ordun ta bazekien. Handik nolabait konpondu behar. Ta, gaiñeakon, bazenekin zer zenduken. Bi gauza zeren: o zekizun lezioa o zeukezun egurre. Egurre, baiño egurre e...!
- Eta lezioa jakiteko, ze ein beharra zeon? Adi eon eta gero etxen ikasi?
- Bai, etxen hartu, gogon hartu dana eta apunten bat eramaten bazendun eta... Eta gero pizarran beak han eitten zon eta guk erantzune jarri behar gendun. Horrek hau, horrek hau, horrek hau... Ondo baldin bazeon ondo, gaizki baldin bazeon, badakizu.
- Egurra.

2.11. Txoriak jateko, seboa

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/025
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:36:09. **Bukatu**: 00:38:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Txori-habia bila askotan joaten ziren udaberrian. Harrapatutako txoriak lumatu, erre eta jan egiten zituzten; okindegiko labean erretzen zituzten. Garai hartan, oliorik ez zen, eta seboa erabiltzen zuten, hura urtu eta koipe gisa erabiltzeko. Kalean garai latzak pasa zituzten gerra ostean.

Transkripzioa
- Ta api bila juten ziñeten, txori api bila?
- Bai. Txori api bila asko juten giñen, bai. Txori api bila asko juten giñen, e... zeatio, gure jaietako zea hoixe zan. Bueno, udaberrin, klaro, txori api bila, bai.
- Udaberrin izaten zan?
- Udaberrin, bai, txori apik udaberrin izaten die, bai.
- A bai, e? Udaberrin...?
- Klaro. Udaberrin jaiotzen die ba, martxoa, apirille, maietza... hor izaten da eta hor juten giñen api bila, bai. Ta, gaiñera, tiragomakin´e bai txori harrapatzea edo txori botatzea, oain baiño gehixio zan txorie´re ta bai.
- Ta gero jan eiten zenduen txori hoi, harrapatzen zenutena?

- Bai, bai, hombre! Lumatu ta erre nunbaitten ta, bai. Hoixe gustora jan´e! Labea hemen panaderin genduken eta beinga, bagendun hor ontzitxo bat eta han jarri eta...
- Hamen panaderin?
- Bai panaderin erretzen giñuzten, bai.
- A bai? Ta panaderok uzten al zizuen ba?
- Bueno... bertako semea, ta... aldamenen tranpan ta hola. Ta olioik ez zan. Hemen seboa, seboa ematen zuen txandan. Ta goizeko zazpiretan juten giñen gu karnizerira. Hiru karnizeri zien ta sebo bila. Holakotxe sebo pusketa bat, e? Olioa, bueno.... olioa "artículo de lujo"!
- Bai, e? eta seboakin ze eiten zenduen gero?
- Urtu ta koipea. Urtu ta koipea.
- Ta eskola jun aurretio juten ziñen sebo bila?
- Hombre! Eskolaa beatzitan sartzen giñen ta! Zazpiretako igual txandea hartzea. Bai, sebo pusketa bat hartu ta etxea.
- Beitu, e? Ta egunero hori?
- Ez, asten bi aldiz, asten bi aldiz. Txahala hiltzen zuen garaien eta bai. Baserritarrak gutxixeo zeuden, bazeukaten grasa txerriña ta handik eta hemendik, baiño kalen... bua.
- Bai, kalen garai latzak izan zien, e?
- Latzak, izugarri latzak.
- Bien, bien. Eta...

2.12. Txoriei buruzko esanak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/027
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:39:59. **Bukatu**: 00:42:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
  Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Kukuei buruzko sinesmena aipatzen du. Enarak San Jose inguruan etortzen ziren, eta sorbeltzak maiatzaren 3an etortzen ziren. Haiek etortzean, artoa egiteko garaia izaten zen. "Zozoak beleari ipurbeltz". Putreak eta arranoak menditan ibiltzen ziren gehienbat. Txantxangorriak garai hartan oso maiteak ziren, Ama Birjinari burutik arantza kendu omen zionez, sakratua baitzen. Txepetxak bi zuloko habiak egiten omen dituzte. Txantxangorriak kukuaren arrautzak berotzen ditu.

Transkripzioa
- Ta, bueno, kukukin badao esan bat, ez? Esaera bat badau kukukin, kukue aitzen baldin badezu ta... nola da esaera hori?
- Ba kukue aitzen baldin badezu ta dirue poltsikon euki, ba, urte guztin diruik ez zaizula faltako. Hori da esaera bat. Ez dakit egie dan edo... ordun kukuk jotzen zonen guk diru asko ez gendun poltsikon eukitzen. Urte barrun ezta!
- Ta holako beste pentsaeraik ba al zeon txorikin, ba, ez dakit, enarak pasatzen dianen edo eguraldikin lotuta edo...?
- Bueno, bai... hemen esate bateako, e..., enarak jeneralen etortzen zien San Jose bi-hiru egun barrun etortzen zien enarak. Eta beste "vencejos"

edo arrandera horik, fijo, fijo, maiatzen hirun.
- Hirun, e?
- Bai, Santa Kruz eunen. Bezperan ikusten ez bagiñuzten ere, egun hortan, egun bat bi barrun... ta oaindio´re bai, e? sartzen die.
- Ta noa sartzen zie?n
- Herrin, herrin, herrin, herrin ta gero, ba, zea, kanpantorrean eitten zittuen apiik eta ya honea zeatzen zien, bai.
- Eta ez zeon igual, hirun sartzen ez baldin bazien, ze esaten zan? Eguraldi kontu bat zala?
- Bueno, bai, egualdi kontue. Bai, egualdi garratzen bat baldin bazeon, beranduxeo, baiño jeneralki maietzen bin, hirun, hirun. Santikutz eunen arranderak.
- Ta zuek zain eoten al ziñeten?
- Bueno.. .bueno..., hoixe! Oain ez, oain enterau´re ez die eitten. Enterau ´re ez die eitten. Ta gaiñea esaten zan, horik etorritako garaien ya artoa eitteko garaie zala. Artoa eitteko garaie, bai.
- Bai, e?
- Bai.
- Ta zozoaz ta beleaz ta ze esaten zan?
- Bueno zozok belei esan ziola, bik die beltzak, eta ipurbeltza esan ziola. Hori esaten da.
- Eta putrek eta arranok eta ibiltzen al zien?
- Bai, ibiltzen zien, ba, horik ya hemen ez, horik ya menditan ta gorago. Animalin bat akauta ikusten bazuen, harena juten zien ta, bai. Gero txantxangorrie zan, ba, oso maittea, esaten zan garai hartan, ba, amabirjiñei burutik arantzea kendu ziola. Txantxangorrie esaten zan, bua... maitte izan zan. Hura sakratue zan.
- Beittu, e? Txantxangorrina nik ez nekin.
- Bai, bai.
- Ta beste zeoze txorin batetaz eo hola?
- Bueno, ez dakit. Txepetxak bi zulokin apie eitten dola. Bat sartzeko ta beste bat [...], ihes eitteko.
- A bai?
- Bai. Eta, e... kukuk, kukui txantxangorrik etaatzen du umek.
- A bai?
- Bai, bai, bai, bai.
- Nola txantxangorrik atatzen diola? Lagundu eiten dio?
- Ez, kukuk berotzen dittu, eooo... txantxangorrik berotzen dittu kukun arrautzak.
- A bai, e?
- Bai, alperra da, bai. Txantxangorrin apin eitten dittu arrautzak eta txantxangorrik etaatzen dio.
- Beittu, e?
- Ba hori fijoa da. Bueno... hori zaharra da.

2.13. Dotrina pulpitutik galdetzen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/035
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:51:51. **Bukatu**: 00:53:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

- **Laburpena**: Dotrina ez zen eskola bezain gogorra; baina gogorra zen, hala ere. Dotrina pulpitutik galdetzen zuen apaizak, herritar guztien bistan. Garizumako jai gehienetan egiten zuten hori.

Transkripzioa
- Esan deu eskola; dotriña ez deu asko aittau... dotriña kontuk.
- Bueno dotriña esaten dezu... ba dotriñan´e "puffff"... Ordun´e hura´re hain gogorra ez zan, baiño hura´re bastante gogorra. Gaiñea, baten erderaz ta besten euskeraz ta... Juten giñen, ba, gu aittuta gare, pentsa zazu, garai hartan hamar urte eukiko nittun, bederatzi... dotriña galdetzen zuen elizan. Pulpittue badakizu zer dan? Pulpittoti. Mutikok beheran jarri ta meza garaien, herri guztie hola zeola, apaizek galdetzen zon dotriñea. Bazekizun´e nerbioso harekin ez zendun esan´e eitten. Eta, bueno...! "Harek kale ein dik", "Bestek kale ein dik", hure zan... bueno, bueno... "apisonadora" zan hura.
- Ya... osea lezio hori jakin beharra zendun.
- Bai, buenoooo... buenooo... bestela etxen... bueno...! Baiño hori, pentsa zazu, herri guztin bistan pulpittotik dotriñea galdetzen. Hori... Ni eonda nau ta ni bezela...
- Eonda zare, e?
- Bai, bai, ta ni bezela beste mutiko asko.
- Igual jakinda´re atea ez...
- Ezin, ezin atea! Bikarioa han pulpittoti. Beheran illaran mutikok, hogei bat mutiko, ta "aber, zuk" eta "e.. a..." ta pufa! "harek ez dik esan", "honek esan dik", bueno... "menudo marmarizio"!
- Bai, bai, bai. Ta zenbatero pasatzen zizuen lezioa dotriñan?
- Hori eitten gendun jai gehienetan, Garizumako jai gehienetan.
- Garizuman?
- Garizuman. Jai gehienetan, bai. Berrogei egun. Hillabeten behintzet hantxen dotriña ematen, mezatakon o bezperak izaten zien, illaran, handik "taka", "taka" galdetu.

2.14. Lehengo bizimodua: egurra eta beldurra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/036
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:53:27. **Bukatu**: 00:56:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Garai hartako sermoiak oso gogorrak ziren: infernua, bekatua... Laureanok gogoan du nola azaldu zieten eternitatearen esanahia. Denak ikaratuta egoten ziren Misioetan. Lehen astero konfesatu behar izaten zuten. Gaur egun, egoera asko aldatu da. "Lehen dena bekatu, eta orain dena libre"; horri buruz egindako hausnarketa kontatzen du.

Transkripzioa
- Garai hartako sermoiak, nolakok zian garai hartako sermoiak?
- Puf... sermoiak zien garai hartan... infernue ta bueno, bueno... gogorrak, izugarri gogorrak. Dana pekatue, dana infernue ta danak kondenauta

infernun erdi-erdia. Ta infernue zan sutako leku bat bizi guztin sutan eotekoa. Hola esplikatzen zuen. Beno, hori esango dizue gure garaiko danak esango dizue /esangoizue/. Infernue... Pekatue eitten bazendun, infernua, infernun erdi-erdi-erdia eta bizi... eternidade guziako. Bizi guziako. Ni aittuta nau sermoian eternidadea esplikatzeko, bukau eziñe esplikatzeko, beittu –esaten zuen– pekatu ein ta infernun erdia erretzea, eternidade guzie. Eternidadea esplikatzen zuen hartu bola bat mundue bezelakoa, ehun urtetik behin txingorri bat pasau eta bola hura gastau eingo lokela infernue bukatzeako. Eizu pekatu! Horiik guk aittu dittuu.
- Hori zeak esan zun, apaizek?
- Bai, apaizek, bai, bai, bai, bai. Eta PEKATUE! ta danak ikerauta. Izugarrie izaten zan. Misiok izaten zien.
- Bildurra...
- Bildurra, bildur ikeragarrie. Oain mutikoi esaiezu. Ordun konfesau ein behar izaten zan astero, konfesau. Ta beittu ze aldaketa ein don. Lehengon nere biloba hamar urtekoa eaman non kanpantorrea errelojui kuerda ematea. "Aittona hau zer da?" esan zien konfesionarioatio. Klaro, ez nekin zer erantzun. Ze esan behar dizut, pekatue ez dakie zer dan. Zer esaten ziñon? Ta gero barkau? Zer da hori? Pixkat diximulau nion eta "arriba". Ez dakizu zer esan. Ta gu baiño gehixiokok ez dakie. Zuk mutikoi galdetzen badiozu: konfesionarioa zer da? Oain ez dao ez pekatuik, ez zeaik, ez besteik, ez... ezer ez dao. Dana, dana kondenatue zan. Eozein pekatu... pekatun hiltzen baziñen, infernun erdi-erdia. Beittu ze eternidadea zenduken, e? Eta gizon batek esan zien nei –hau anekdota bezela esango dizut–, gizona, klaro, hura ere zan ba... ni baiño –oaintxe dala hamar bat urte esan zien hoi– bastante zaharragoa zan: "Ze iruitzen zak Lauriano, ze iruitzen zak, gure garaien dana pekatu, dana pekatu. Ordun danak kondenauta ta danak infernua, ta oain dana libre –esan zien–. Ordun infernua jun zienak oain kejauko dittuk ba?". Filosofie. Klaro, ordun dana pekatu, ordun dana kondenauta, ta oain dana libre. Oain pekatuk, bueno... "Ordun infernua jundakok oain kejauko dittuk ba" esan zien. Ta hola zan ordun, hola zan. Bildur baten hazi giñen gu, egur baten ´e bai. Hala´re, bueno, zeoze irten ein giñen. Ez dakit...
- Hoixe, bai ba!
- Oain, egurre ta bildurre, egurre ta bildurre.

2.15. Elizak gurasoengan zuen eragina

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/038
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:56:48. **Bukatu**: 00:58:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Pulpitutik gurasoei egurra ematen zieten, umeak hezteko. Etxera iristen zirenerako, gurasoak beren onetik aterata egoten ziren. Etxean diziplina gogorra jartzen zieten umeei. Garai hartan, neska bati emandako zigorraren anekdota kontatzen du. Oso gogorra zen orduko heziketa.

Transkripzioa
- Gaiñea esaten zien gurasoei: "gurasok kondenauta zate! Emakumek..."

- Gurasoi ze esaten zien ba?
- Gurasoi egurre ematen zien pulpittotio umek eta hezitzeko, ta etxea etortzen zien gurasok "a cien". "A cien" etortzen zien. Ordun, garai hartan, aimarikoa (ave mariakoa) jotzen zan, zea, zortzietan beti kanpaiak jotzen zien, ordutik kanpoa etxea, e? Ez zeon kanpon ibiltzeik ordun. Behin aimarikoa jo ezkeo, kanpoa. Nik kontauko dizut anekdota bat, hemen residentzin hil zan ta aittu nion: hemezazpi urtekin San Pedro egunen Mutillon. Arten gauen beatzitan-beatzi t´erditan jotzen omen zuen, ezkillak jotzen zittuen, kanpaiak, ordundik "fuera, se terminó la fiesta", bakoitze dak! Neskak, gaiñea, etxea. Eta beatzi t´erditan kanpaiek jo, arten euzkie gongo zan, kanpaia jo ta deskuidon neska gaztea hemezazpi urtekin etxea jun ta etxen –hau, e? hau grabauta dauket– etxen aittek hartu, belauniko jarri erain ate ondon, atalangea izaten zan aten ondoko egurre, hura hartu, "Jesukristo nere jaune" esan, pekatuk barkatzeko orazioa, eta bizkarrekok eman eta ohia. Eta hurrengo urten, hurrengo egunen, irten be.
- Beittu, e?
- Oain jun zaiz! Oain ordubatetan irtetzen due ta... bueno. Erabat... guk ikusi ditteun aldaketak! Nik liburue idatziko noke aldaketakin. Izugarrizko aldaketea! Oain –klaro, illobak igual– hamabitan irten ta goizeko bostetan etorri, klaro. Ordun gaueko kanpaiak jota jun zalako, belauniko jarri erain, egurre eman, orazioa ein, pekatuk barkatzeko orazioa ein eta etxea, eta hurrengo egunen irten be.
- Hori bildur horren ondorioa izango da?
- Klaro, bildurre. Klaro, bildurren ondorioa. Egurre zeon ta, elizatik zeon egur bat... bildur bat zeon izugarrie, izugarrie...
- Ya, ya, ya...
- Oain dana librau da ta oain ia...
- Baiño gogorra, e?
- Gogorra, izugarri gogorra, izugarri gogorra, izugarri gogorra... Holako anekdotak dare, ba, ez dakit...

2.16. Hiletan gorpua elizatik kanpo zegoen garaiko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/042
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 01:03:53. **Bukatu**: 01:06:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Familia bakoitzak bere ehortz-tokia zeukan. Nolakoak izaten ziren azaltzen du; Gorpuaren gainean, karea botatzen zuten, hezurrak bakarrik gera zitezen. 1959ra arte, gorpua elizatik kanpo egoten zen hiletatan, izurriteen beldur; 1800. urtetik zetorren debeku hori.

Transkripzioa
- Famili bakoitzak lekua al zeuken elizan?
- Bai, bai, bai, lekue zeuken. Zien sepulturak. Segurako elizan milla zortzirehunearte bertan enterratzen zien, elizan. Segurako elizan ta beste eliza askotan. Dana hezurrez beteta. Ta bakoitzek zeuken bere sepulturea, numerauta dare, famili bakoitzek bere sepulturea zeuken. Han enterratzen zien, milla ta... ta milla zortzirehundik aurrea hasi zien ya kanposantuk.

Hillerrik ordun hasi zien. Segurako hillerrie bea´re milla zortzirehun ta hogeita hamar ingurukoa da, bittarten hor. Ordun zeren sepulturak ta sepulturan eoten zan familie. Bakoitzek berea zon. Gurea zan berrehun ta hirurogeita bi. Nik amak esaten zin "eman zak silla sepulturaa". Ta ni bat irikita ikusita nau eta die arbelezko zea batzuk, kuma batzuk, ohi batzuk bezela arbelezkok, "noventa por"... bi metro eskas, eta eitten zuen zulatu bi metro edo hiru eta gorputze sartu. Eta gero karea bota desegintzeko. Desegintzeko, bai. Desegintzeko karea botatzen zan.
- Eta gaiñetik? karen gaiñetik?
- Lurre, lurre, lurre. Bai, bai metro lurren, karea bota ta tapatu ta hor sepulturak. Dana hori hezurrez beteta dau, dan-dan-dan-dana.
- Ta sepultura hoitan sartzen zan hezurra, besteik ez? Hildakon hezurrak?
- Ez, ez, ez hildakoa bea.
- Hildakoa.
- Hildakoa bea. Ta gero karekin desegindu eitten zan ta hezurrek geratzen zien, klaro.
- Baiño kajaik-eta ez zuen eukiko. Hor eongo zian hildakok danak batea. Hezur guztik danak batea.
- Ez, ez. Kajeakin sartzen zittuen, e? Etxen eindako kajeakin. Ta gero pestek ziela eta hola eta prohibittu ein zuen elizatan sartzea. Eta milla bederatziehun eta berrogeita hemeretzi arte, milla zortzirehundik Seguran, milla bederatziehun ta berrogeita hemeretzi arte hilletatakon gorputze kanpon eoten zan. Elizaz kanpoti.
- Izurriteen bildurragatio?
- Bai, izurriten bildurragatio. Eta milla bederatziehun ta berrogeita hemeretzin hasi zan, ya kajak-eta hermetikogok eta zien garaien gorputze barrura sartzen. Gero nahiz ta hillerria eaman.
- A beittu, e?
- Bai, bai, bai, bai. Milla zortzirehundik zeon debekatuta milla bederatziehun ta berrogeita hemeretzi arte, gure mutiko garaien ta, gorputzek kanpon eoten zien hilleta guztin. Zaintzailleak eoten zien, eamaten zuenak...
- Familikok.
- Bai, hillobizalek. Hillobizalek izaten zien. Hura eamaten zuenak han eoten zien, ta handik [kanposantura]. Ez zan sartzen barrua. Zeatik? Ba ez zalako arten hermetiko... ez zan materialik eta...

2.17. Gaubeilako giroa

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/043
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 01:06:31. **Bukatu**: 01:08:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Lehen, hildakoaren gorpua, lurperatu artean, etxean edukitzen zen; auzokoak eta gertuko familiakoak gaua pasatzera etortzen ziren. Han jan eta edan egiten zen, eta batzuek mozkortu egiten ziren. Orduko giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa
- Ta zuk ezautu dezu etxen eitten zien agur hoiek? Ba tanatorioik-ta ez

zeonen, gorpua etxen ta bizilagunak-eta etxea etortzen zienen?
- Bai, bai, bai. Bai, bai gorpue etxen eoten zan. Eta gaue pasatzea etortzen zien auzokok. Auzokok gaue pasatzea etortzen zien, bai.
- Bai, e? Auzoko gertukok?
- Bai, bai. Gertukok bai, familikok eta gertukok eta, klaro, gero pixkat deskuidatzen zien, hau izaten zan ta bertso batzuk´e bai igual gau guztie pasatzeako eta bai, bai. Anekdota asko dare.
- A bai, e?
- Jeneralki ez, baiño bai, bai, bai. Igual hala moduzko jendea igual, e? mutil zaharren batzuk eta, ta halako jendea ta aiba! anise ta gailetak eta aitzeneako ba...
- Klaro, auzokok izanda...
- Bai, ba, oaintxe tanatoriok etorri arte hori hala izan da, bai, bai, tanatoriok etorri arte. Gau guztie. Oain oso ondo, gauen ixten dittue zortzietan ta goizeko hamarrak arte, klaro, hor ez do iñok harrapauko.
- Klaro, bestela zaindu-eo ein beharko zan, gorputza zaindu.
- Bai, bai, han eoten zien aldamenen eoten zien. Kajea han eoten zan eta aldamenen, "galletas y anis".
- Ta familik lo eingo zun ez?
- Bai familik lo eitten zon, bai familik lo eitten zon. Familikon bat eoten zan, baiño jeneralen lo. Beti auzokok eoten zien, bost-sei. Ni´re askotan nao egonda, familitan. Ointxe, oain arte, tanatoriok etorri arte, etxen eoten zien arte.
- Ta ze eiten zan hor, hitz ein eiten zenduen?
- Ba kontuk, kontuk esan ta... Hasieran errosarioa. Errosario bat o bi o hiru o... bai. Ta gero, ba, gero, ba, kontuk eta hau ta... parre´re bai ta, bertsok´e ikusita nau, bertsok´e bai ta... "Hi, nahikua diau, hi" ta pixkat...
- Bertsok´e bai, e?
- Bai, bai. Hola famili... klaro, baldin bazan bertako zea, baiño igual solteron bat eo hola ya inportantzi... benga! bai, bai, horiitako asko.

2.18. "Erreguteak" ahopean

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/045
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:08:33. **Bukatu**: 01:10:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Lehen, erreguteak izaten ziren, euria eskatzeko. Lehortea zen garaian, erreguteak hiru egunean egiten ziren. Ba omen zen apretak egiten zituen gizon bat, "erreguteak" ahopean esaten zituena.

Transkripzioa
- E... errogatibak izaten zien.
- Errotatibak?
- Errogatibak, "rogativas", "rogar". Eudie eskatzeko.
- A, ura, e?
- Euria, euria. Lehortea zeon garaien errogatibak hiru egunen eitten zien. Eta elizatik irten eta kanpaiak jo –errogatiba kanpaiek badare, gero aittuko dittezu–, elizatik irten eta ermitta batea juten zien errosarioa errezatuz o letanik kantatuz: "ora pro nobis sancta Maria, ora pro nobis". Ta ordun

izaten zan "ora pronobis" eske. Gero eudie. Batzutan eitten zon, beste batzutan ez.
- A, beida, e?
- Bai.
- Ta uzta oneako´re bai?
- Uzta oneako ez. Errogatiba, jeneralki, euzkie irtetzeko´re aittuta nau gure aitte zanai einda daula, baiño normalmente euriako eitten zien. Lehortea zeon garaien eurie eitteko. Bai. Hiru egunen, ni gogoratzen naiz, urten bi aldiz igual. "Errogatibak emen dare", kanpaiak joz, goizen zazpietan eo lanea jun aurretik prozesion elizatik bueltan errogatibak eoten zien, bai. Eta, klaro, hor´e badare gauzak... danai ezin ba ein ta hemen esaten zon gure aitte zanak, bat ba omen zeon apreteroa, apretak eitten zittuna, ta jende guztik: "sancta Maria... " ta "Sancta... ora pro nobis, san Antonio ora pro nobis". Ta harek ahupen esaten emen zon. Xanti apreteroa omen zan, Xanti apreteroa. Bestek "ora pronobis" ta harek: "lehor ta bero, lehor ta bero" esaten emen zon, apretak saltzeko! Bakoitzek berea!

2.19. Segura inguruan, 6 ermita

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:00:08. **Bukatu**: 00:01:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: Erreguteak zertarako izaten ziren azaltzen du. Seguran 6 ermita daude. Erreguteak gertuen zeuden 3 ermitetan egiten zituzten. Lehen, jaietako meza elizan egiten zen; santuen egunean, orduan bakarrik ermitan.

Transkripzioa
- "Rogar", "rogar", "rogativas", erderazko hitze da. "Rogativas". Normalki eurie eskatzeko. Lehortea zeonen, eurie eskatzeko. Eta baita ere euri jasa haundiik ta busti haundie ta euzkie. Nik euzkie ez det... gure aitte zanak esaten zon euzkie, baiño normalki ehunetik larogeita hemeretzitan, larogeita hamarretan behintzet, eurie eskatzeko. "Rogativas", bai. Eta egun baten, hiru egunetan izaten zien, egun baten, ermitta batea, besten bestea ta besten bestea.
- Hemen zenbat ermita dare ba?
- Sei. Sei daude, bai. Ta hiru gertunekotaa juten zien.
- Ta sei ermita nolatan, auzo bakoitzen bat o nola?
- Bueno... bai. Hemen dare ermittak Santa Engrazi, Amabirjiña Karmengo bi, Santo Kristo hiru, San Sebastian lau, San Andres bost eta Santa Barbara, mendin, sei dare, bai. Baiño hiru gertunekotaa juten zien rogatiba horiik eittea.
- Ta ermita hoiek ze pixu euki due herrin? Irekita eon die?
- Bai, bai, bai. Oain´e bai. Oain´e bakoitzek bere garaien... [lehengon] San Andresen ein zan festa, oain festa bat] eitten da. Udaletxek pagatzen do hamaiketakoa ta pixka bat ikusi ermittak nola dauden ta pixkat biltzen dan dirue erreparatzeko ta bueno... Sei ermitta daude Seguran, bai. Eta desagertuta badaude beste bi edo hiru´re.
- Baiño garai baten jaieroko meza ermitatan izango zan, ez?

- Ez, ez, elizan, elizan. Ermitetan bere santu egunen.
- A, santu egunen. Osea ermita hoiek ya dia santu bakoitzai eindakok bezela edo...?
- Bai, bai. San Andres, San Sebastian, Santa Engracia, Santa Cruz, Amabirjiña Karmengo eta Santa Barbara. Bakoitzek bere santue ta bere garaien, bere fetxan, ematen da meza.

2.20. Segurako prozesioa: aspaldiko ohitura

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/003
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:01:58. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- **Laburpena**: Segurako prozesioa Ostegun eta Ostiral Santuan izaten da. 1735eko dokumentu baten arabera, prozesioa antzinatik egin izan da Seguran.

Transkripzioa
- Ta prozesion ingurun zer esango zenuke? Prozesioa noiz eiten da hemen ostegun ta ostiral santun?
- Bai, ostegun ta ostiral santu egunen eitten da, bai.
- Noiztikan izango da?
- Ba... badauzkeu dokumentuk, milla zazpirehun ta hogeita bosteko dokumentu bat badauket esaten dona, erderaz segitzen do. Egualdi kontun zien, ordun pleito bat izan zuen elizek eta herriko jendek, aiuntamentuk, zeatio prozesioa suspenditzeko alkarrekin eon behar zuen egualdiatio. Ta kasoik ein be, sobra´re aiuntamientui kasoik ein be elizek o elizei kasu in be aiuntamentuk bere kasa ataa zon. Gero pleitoa izan zan. Ta pleito hortan esaten do, milla zazpirehun ta hogeita hamabostekoa, bai, "esta procesión que se celebra de tiempo inmemorial" esaten do. Pentsa zazu noizkoa dan.
- Garai haietan ya...
- Bai, ta harrezkeo nik beti ezautu det.
- Eta formaz aldatu danan zeaik badaukezu o beti berdin?
- Ez, ez. Hemen, e... beti berdiñe. Hemen renobatu gendun pixket, baiño beti diseiñu beren, irudi beak eta prozesio bea.

2.21. Hazi-bedeinkatzeko ohitura

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/006
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:05:58. **Bukatu**: 00:07:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

- **Laburpena**: Hazi-bedeinkatzeko ohiturari buruz hitz egiten du; Santa Engrazi egunean izaten da hori. Ohitura horrek 200 urte baditu.

Transkripzioa
- Gero beste tradizio bat dau hazik bedeinkatzena, Santa Engrazin, hazie bedeinkatzen da. E...
- Santa Engrazin?
- Bai, bueno garai hartan. Eitten da, hazik apirillen eitten die jeneralen, artoa ta indiababea ta baratzatakok´e bai, illarrak eta babak eta. Eta ordun hauntza ematen die ta han bedeinkatzen die. Ta garai baten Santa Engrazitik buelta ein be ez zien eitten, ez artoik ta ez indiabaik ta ezer´e. Oaiñ´e ohitturea badau. Jende asko juten da, bai. Izaten da Santa Engrazi apirillen hamaseien eta eitten da hurrengo iganden.
- Klaro ta egun horrek kointzidituko du... zeatzeko...
- Artoa eitteko...
- ... artoa eitteko garaiekin?
- Artoa eitteko garaiekin, bai. Artoa eitteko garaiekin ta indiabak-eta eitteko garaiekin.
- Beittu, e? Ta Santa Agedaako ta ba al dao...?
- Bai Santa Agedako bai, Santa Ageda esken´e aitzen die, bai. Santa Ageda ´re... Hori geroxio sartu da, baiño haziik bedeinkatzea, ba, igual eukiko dittu horrek berrehun urte. Nik nere aittonai aittuta nau hura mutikoa juten zala ta... bai, tradizioa, bai.

2.22. Ama Birjina Belengoaren tradizioa

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/007
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:07:04. **Bukatu**: 00:08:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Ama Birjina Belengoaren tradizioari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa
- Bai, tradiziok hemen mantendu diela, e?
- Asko, asko. Beste tradizio bat dau Amabirjiña Belengoa dau, Belenpe esaten diou, Amabirjiña Belengoa, eta dauke farol txiki bat, zea bat, irudi bat dao. Eta famili esperantzan daonak, pertsonek, famili bat dao hortako ta hari ematen dio, bere garaien olioa ematen zitzaion. Bajau zea hori, lanpara hori... Oaindik´e bai, olioa eta zeakin, lanparilla horrekin, olioa... Ikusita zare? Olioa lanparillan ez dezu ikusi, e? Argie piztu eta ra! Eta familie izaten donen, bale, bukau da. Eta oain dirue ematen da, Amabirjiña horri argie pizteko. Lehen garai baten olioa ematen zan, bai. Hori ohitturea, bai.
- Lehen olioa eman.
- Bai, bai, bai. Oain´e asko. Oain´e herrie erakusten aittu eta "bueno, aizu, gure illobak´e familie dauke ta ipini behar diozu, datorren otsaillen espero do ta!" ta "bai, bai". Kanpotik´e jende asko, tradizio bat da.
- Beittu, e?
- Bai. [Haurren esperan], zortzi egun lehenau pizten da, familie ondo izateko.

- A, beida!
- Bai.
- Lagun bat haurdun dauket ta esango diot!
- Bai! Piztuko diou!
- Bale, bale!
- Piztuko diou!
- Bale, bale!

2.23. Lehengo oinetakoak: okasioaren arabera, bat edo ezer ez

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/019
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:22:28. **Bukatu**: 00:23:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Zapatak jaietan erabiltzen zituzten; baina, umetan, ez zeukaten ura sartzen ez zitzaien oinetakorik. Frontoian hanka-hutsik aritzen ziren jolasean, apretak ez gastatzearren. Orduko oinetako klaseak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta zapatak ordun jaietan erabiltzen zian?
- Bai, jaietan. Eunez apretak. Gure mutiko garaien guk udik sartzen ez zan oiñetakoik ez genduken. Ez zeon ta, ez zeon ta! Eta apretak... brea jartzen giñon guk, gehio irauteatio, brea. Brea igual eoten zan kamiñon bero haundie eitten zonen, breakin nahastuta apretak. Muturre zulauta ta... Frontoian aritzen giñen hankautsik, apretak ez gastatzeatio. Apretak... apreta berriik, e...
- Ta ze lur zeuken frontoiak?
- Leune. Bueno, frontoiak eukitzen dona.
- Leuna, baiño hotza izango zan?
- Bai, hotza, baiño, klaro, ez zeon ta! Apretak eta... hankautsik. Oain bezela? Berrogei bota pare, ta bat negukoa ta bestea udakoa eta bestea zea ta, puf...
- Eta, bestela, apretak, umek ziñetela, apretak edo, bestela, zer erabiltzen zenduen?
- Apretak eta abarkak, gomazko abarkak, eta holakok, bai. Gero zapatan batzuk baldin bazeuden jai eguneako... baiño elizatik irten orduko gorde, e?
- Gorde, asko irauteko.
- Bueno, bueno...!
- Eta larruzko abarka hoiek ez zenittuen erabiltzen?
- Ez, ez, ez... normalen ez.

2.24. Umeei beldurra sartzeko ipuinak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/028

- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:34:25. **Bukatu**: 00:35:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: "Hamalauzango", "Sakamantekas", "Akerra"... pertsonaiekin sartzen zitzaien beldurra umeei. Orduko esaerak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Hamalau zanko.
- Hama...?
- Hamalau zanko.
- Hamalau zanko?
- "Hamalau zanko etorriko dek", bai, bai. "Akerra etorriko dek".
- Akerra´re bai?
- "Akerra etorriko da", "Hamalau zanko etorriko dek".
- Ta "hamalau zanko" nola imajinatzen zenduen?
- Hamalau zankokin, hamalau hankako zea bat...
- Gizon bat.
- Gizon bat. "Hamalau zango etorriko dek!". "Sacamantecas" fijoa zan. Ta gaiñea esaten zuen Sacamantecasek eitten zola, etorri, tripak etaa ta mantekak ematen zittula esaten zan. Bueno...! "Sacamantecas etorriko dek!" eta...
- Ta hori noiz, gauetan?
- Bai, gauetan. Ikaratzeatio, bai, ikaratzeatio. Eta gero esaerak bazien asko. Esate bateako, zuk... beheko sue izaten zan, han egurrekin sue eman eta jolasen "bzzzzz" ta "hori ibiliz gero ohian txixe eitten dek!" esaten zuen. Ta bueno, ez giñen ibiltzen. Holako esaerak... ipui asko die, baiño oain ez naiz asko, danakin ez naiz akordatzen, baiño bai. Sacamantecas, akerra, zea...

2.25. Atso gaixoak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/030
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:36:19. **Bukatu**: 00:40:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Lehen ere baziren superstizioak: katu beltzak, atsoak... Atsoei buruzko esanak eta usteak aipatzen ditu. Atsoak elkartu egin ziren, beraiei buruzko esanei aurre egiteko.

Transkripzioa
- Eta holako zeatan sinisten al zan, katu beltzak suerte txarra ematen zuela ta...
- Bai, bai. Katu beltzak jartzen zien garai hartan baten batei gaiztakerin bat ein nahi zionekon, bueno, hil eingo zola esaterakon, katu beltza jartzen zan txintxilika. Katu beltzak, bai.
- Hil eingo zola?
- Bai. Hori zan desafio bat. Katu beltza jarriz gero ya...

- Ta hainbesteaiñoko konfrontaziok egoten zian?
- Bai, bai. Beti egoten die. Horik gogor antzen baiño... Gero beste bat zien San Juan egunen, San Juan bezperan, atsoa. Atsoa zan ezkondu ta familiik ez zona. Ta atsoa izaten zan oso kastigatue, oso. Ta San Juan bezpera gabean esaera... esaten zan San Juan sun ondon kantatzen zan:

"San Juan bezpera gauean,
atsoak hasarre zirean,
ez zuten besterik egiten
alkarri muturrak hausitzen.
San Juan dabil soroetan arto ta garietan.
Artok eta gariak kutxan gorde,
atso ta sorgiñak labean erre".

Hori esan ta salto eitten zan. Beste bat zan hemen, atsoi izugarrizko higuie zien jendek. Osea, atsoa jartzen zan, ba, segimenik ez zon emakuma bat, kastigauta. Klaro ta beti ematen zion emakumei kulpa, orain aldrebes, orain izan daike gizona´re, ezta?
- Bai, bai.
- Baiño ordun beti emakumea zan kulpablea.
- Ta gizonak ez zon uzten emakumea?
- Ez, ez zon uzten, ez. Bueno, hori ere badakizu ze pekatu zan ta... Baiño kulpa danak familie ez izateanak danak emakumeei ematen zien. Ta hura zan atsoa. Atsoa. Eta San Juan bezperan, edo San Juan sue ein ta gero irtetzen omen zuen mutilek eta kantatzen omen zuen:

"Jauzi danok atsoen bila,
herri honetan badira mila,
egin dezagun danakin pila
eta higuin dezagun hazi hila."

Hori kantatuz juten omen zien atsok zeren lekua. Ta gero atsok ein omen zuen zea bat, kofradi bat bezela, horiei kontra eitteko eta atsok beheko errebalen omen zan atson etxeko-andra bezela eitten zona eta izena Kaxentxio edo, izena.
- Kaxentxio?
- Bai. Eta horrek han, atsok biltzen omen zien hori kontrarrestatzeko, bai. Atsok izugarrizkoh iguie izan zuen ordun.
- Bai, e? Eta elkartu ein zien garai hartan, e?
- Bai, bai, garai hartan, bai, bai, bai.
- Kuriosoa.
- Bai. Gero kantuk´e badie. E... "Atso zaharraren atorra zaharra...". E... "Atso zaharraren atorra zaharra...".

"Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziren hamar atso.
Baldin ardoa merkatzen ez bada
hilko dira beste asko.
Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziren hamar atso."

Holakok, atsok izugarrizko zea izan due.
- Kuriosoa da, e?
- Bai, bai.

"Atso zaharraren atorra zaharra,

beria balu ezer ez.
Kearrea baiño beltzago dago,
garbitutzeko alperrez."

Kantatzen zan, bai.
- Ordun atsok zeuken alper fama?
- Bai, balio ez zuenaren fama. Higuie, hazi hila... ordun zan indarra behar zona, familie ta indarra ta aurrea. Ta kulpea harek, gizonak euki zeiken igual-igual, ezta? Relazio baten bale. Baiño, bai, atsok izugarrizko kastigauta izan zien, bai. Ta kantu asko dau atsoi...
- Atson ingurun.
- Atsoi atakauta, bai.

2.26. Sorginak vs eskopetak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/031
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:40:21. **Bukatu**: 00:42:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Sorginen inguruko istorio asko bukatu egin ziren eskopeta agertu zen garaian. Sorginei buruzko esanak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta sorgiñen asunto hoi?
- Sorgiñenak bai, sorgiñenak oindio´re badare akelarrekin-ta sinisten duenak. Sorgiñe esan zuen asko –gure aitte zanak esaten zon– sorgiñe asko gastau zala, eskopetea irten zon garaien. Hau irten zon garaien asko. Oain batzuk esaten due sorgiñe badala ez dala esan behar, baiña ez dala ere ez. Lehenoko zaharrak esaten zuen hori, e? Bazien sorgiñekin sinisten duenak eta bueno.
- Eta eskopeta bukau zanekoa zergatio esaten due?
- Eskopetak agertu zienen, tirok agertu zienen, "damba!" uxau omen zittuen haik. Igual gauen-ta irtetzen zuenak "uuuuuu" ta izarakin ta...
- Hoi da, ordun sorgiñak azkenen zer izango zian, gaztek...?
- Bai ta horik´e bai. Gero esaten due damak eta sorgiñek eta Aralargo damea ta sorgiñe pasa zala ta eskobekin ta. Ez dakit sinistea badao, akelarrea´re hor daukezu Zugarramurdin ta han´e hola juntatzen die. Oaindik badaude emakumak, oindio bai ezautzen dittut, zahar-zaharrak zeakin sinisten duenak oindio, zeakin, sorgiñekin-ta. Lehen esaten zuen: badala ez dek esan behar, baiño ez dala´re ez.
- Beittu, e?
- Bai.
- Ta sorgiñak ze zea... ze zea zeukien, ze itxura zeukien, txarra...?
- Bai, bai, sorgiñek bai. Tximosak eta erratzan gaiñen ibiltzen ziela, eta hura ailautako lekun suerte txarra izaten zala ta pasau eitten zala Aralardik Aizkorria, ta Murumenditik ez dakit noa ta...

2.27. Kanpaiak: komunikatzeko bideak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/049
- **Iraupena**: 0:04:59. **Hasi**: 01:04:46. **Bukatu**: 01:09:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Kanpaiak hainbat gauzatarako jotzen ziren. Funtzio haietako batzuk aipatzen ditu. Kanpaiak komunikatzeko bidea ziren lehen.

Transkripzioa
- Kanpaiak zien...
- Garai bakoitzen, osea, zein jotzen zan ze momentutan?
- Bai ba, klaro, komunikabidea zan. Zien kanpaiak, komunikabidek zien bandoa, kanpaia... Eguardin hamabik, hiruretan hiru kanpai, [...], goizeko aimarikok, gaueko aimarikok, hil-kanpaia, agoni-kanpaia, olio santu kanpaia, elizakok, e... harri-kanpaia, su-kanpaia, meza-kanpaia, aingeru-kanpaia, errespontsok, meza erdikoa, animatako kanpaia, errogatiba kanpaia –lehen esan dizudana– pazko bigarrena, palio azpiko kanpaiak, Aitte Santue eitten zueneko kanpaiak...
- Aitte Santue?
- Bai, Aitte Santue eitten zuen... eitten zuen garaien, aukeratzen zuen kanpai klase batzuk jartzen zien. [PIlla horik]. Ta horiik danak dauzkeu bideo baten hartuta eta bakoitzek bere esplikazioa dauke. Bai.
- Bai, ba, hartuko dizut bideoa.
- Bai.
- Eta kuriosona zuri zein iruitzen zaizu?
- Neretzat kuriosona zan –nei gehiena gustatzen zait– meza-kanpaia zan. Dana zan komunikabidea. Lehen esan det "sue, sue!" ta pin-pun, "nun sue?" ta "halako lekutan" ta... ordun. Klaro, oain sue da bonberoak ta ordun... Baiño [en kanbio] ordun jendek baldek hartu ta "nun sue?" ta "holako lekutan" ta juten zan ba ahalegiñe eittea. Harri-kanpaia. Harrie-ta ikusten zan garaien ta harrie edo bazetorrela ekaiztea, jo eitten zan. Hil-kanpaia. Hil-kanpaia jotzen zan ta kontraseñea zeon, emakumezkoa zan edo gizonezkoa zan.
- A bai, e? Diferentea zan?
- Bai, bai.
- Errogatiba-kanpaia. Errogatiba –lehen esan dizudana–, eurie eskatzeko jotzen zana. Osea, dana komunikabidea zan. Dana komunikabidea.
- Eta...
- Eta nei gehiena gustatzen zaidana zan, pentsa ze komunikabidea zeon, mezak izaten zien goizen sei t`erditan, zazpi t´erditan, zortzi t´erditan eta hamarretan izaten zien mezak. Eta jotzen zan meza-kanpaia. Orduerdi bat lehenau. Zu ohean zendela igual, orduerdi bat lehenau, seietan, tan-tan, hogeita lau [...] hontan, neurri hontan jotzen zien, ta hogeita lau kanpai. Tan-tan... Ta gero ya bazekizun meza-kanpaia zala, kanpai berezie zan ta.
- Hogeita lau?
- Hogeita lau jotzen zien, aitzeko. Itxoin bost-hamar segundon ta tan! bakarra jotzen zon. Ya bazekizun erretorek zeukela meza.
- Zer zeola?
- Bikariok zeukela mezea. O don Juan... Eta zortzietan jo, tan-tan, hogeita lau jo ta bukaeran hiru jotzen bazittuen, tan-tan-tan, ba, don Pedron

mezea. Ya ohetik zekizun mezea zeinek ematen zon. Eta zeon gauza bat, beti konfesau behar izaten zan, jaieroko mezea zan, ordun beste apaiz danak, mezea ez zeuken danak konfesionarion eoten zien. Ordun, bazekizun mezea zeinek zeuken eta konfesionarion zein egongo zan. Ta zure faboritoa hor bazeon, altxa ta meza hartaa. Kontraseñea.
- Ta denbora ematen zizun altxa, preparau ta...
- Ba orduerdi bat edo, oain aiñe dutxa ez zan izaten ta. [Orduerdin]. Tan-tan-tan-tan. Ta beno, bukau ta "Bi jo [dittu], joño, don Pedrok zeukek mezea. Nere faboritoa konfesionarion zeok. Meza hontaxe jun behar diat" o "Nere faboritok zeukek mezea, ordun hurrengoa jungo nauk".
- Bale, bale, bale...
- Kontraseñea zan hori, bai.
- Ta orduerdi lehenago ematen zuen.
- Bai. Komunikabidea, bai. Ta hamabi kanpaiak ta hil-kanpaia ta elizakok´e bai. Elizakok izaten zien jaune eamateko. Pum-pum... aiba, batenbat gaixo daunen batei jaune eamatea, ostie ematea izaten zien. Eta hori´re kontraseñea.
- Ta horik zian elizako kanpaiak?
- Bai, bai, bai, hamabi... danak elizakok. Hamairu jo klase, danak elizako kanpaiak, bai.
- Baino hoiek izenez esan dezu, hoiek zian eliza-kanpaiak o. Jauna emateko kanpaiak nola daukie izena?
- Zea, este...
- A, bale, barkau...
- Elizakok. Elizakok ematea zan jaune ematea, elizakok ematea. Elizakok, bai. Elizako kanpaiak. Hil-kanpaia, su-kanpaia, harri-kanpaiak.. bai, elizakok. Ta goizen jotzen zan, gaur gauen hil zala ta goizen jotzen zan, sei t´erditan hil-kanpaia: bum-bum... "Han, hil dek". Ta gero kontraseña bat zeon bukaeran. Hiru segido jotzen bazittun, bum-bum-bum, gizonezkoa hil zala, ta bi jotzen bazittuen emakumea. Oain hori´re jotzen deu. Ordun, zan ze bat, intriga bat. "Joño, gizonezkoa? Emakumea zeoan ba oso gaizki... Gizonezkoa hil dek".
- Gutxi gorabehera bazenekiten.
- Bai, gizonezkoa edo emakumezkoa zan bazekizun. Gero, egunen bertan entierroa baldin bazan –oain eskela leitzen dezu eta periodikoa ta ez dao ta badao ta, baiño ordun ez zeon ezerre, ta–, egunen bertan entierroa baldin bazan, hil kanpaie jo ta gero beste kanpai-aldi bat jotzen zan. "Ba, gaur dek entierroa". Ta beste kanpai-aldirik jotzen ez bazenun, "gaur entierroik ez zeok, biher zeok entierroa". Dana komunikabidea zan.
- Jesus.
- Dana, dan-dan-dan-dana. Hortik entenditzen zan dana.

2.28. Kanpaien bidez, abixuak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/050
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 01:09:45. **Bukatu**: 01:11:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Harri-kanpaiak zirenean, erramu bedeinkatua erre, eta kandela pizten zen. Su-kanpaiak zirenean, berehalako erantzuna izaten zen. Denak korrika batean ateratzen ziren, sua itzaltzeko ura eramateko

prest. Kanpaiak noiz jotzen ziren aipatzen du. Lehen eskuz jotzen zituzten kanpaiak.

Transkripzioa
- Ta harri-kanpaiak adibidez zer?
- Harri-kanpaia zan gauza bat, ba, klaro, ba komunikatzen zon harrie bazetorrela. Eta ordun erramu bedeinkatue eta kandela pizten zan. Erramu bedeinkatue erre ta kandelea pizten zan. Horrek abixue zeuken, ez zeuken kontra eiteik, baiño abixue zeuken errezu bidea. Kanpaia jotzen... edo... argie edo kandela piztu eta erramue erretzen zan.
- Ta erramue erretzen zan, e? Kuriosoa.
- Ekonomikan edo zean, sutan, bai, erramue erretzen zan, bai. Eta su-kanpaia gauen jotzen zan, pim, "sue, sue!", "nun da?", "halako lekutan", "benga!", danak baldek hartu ta korrikan.
- Klaro, horrek ezin zigun... kanpaiak ezin zun komunikau nun zan sua.
- Ez, ez. Ordun ba "nun, nun?" ta seittun komunikatzen zan, korrikan danak hartu ure ahal zan lekutik ta.
- Eta danak atako zineten...
- Danak, buenoooo, buenoooo... su-kanpaiak. Eta errespontso-kanpaia´re, errespontso-kanpaia ba errespontsok elizan ia bukatzen zan garaien jotzen zan kanpai bat, hileta bukatzen zanen errepontso-kanpaia. Osea, dana komunikabidea, dan-dan-dana komunikabidea zan. Eta hamahiru jo horik hartuta dauzkeu, esplikatuz zer zan.
- Eta orduroko kanpaikadak´e bai.
- Ordun jotzen zien goizen seiretan, eguerdin hamabitan, atsalden hiruretan eta gauen zortzietan jotzen zien. Horik jotzen zittun sakristauek. Oain ia jarrita dare zeauta. Baiño, klaro, ordun ez zan hori ta ordun sakristauek jotzen zittun.
- Sakristauek eskuz.
- Eskuz jotzen zittun, bai.

3. Politika

3.1. 'Cara al Sol' abesten zutenekoa gogoan

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/006
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:04:38. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Mojekin ikasi zuen. Eta han Cara al Sol abesten zuten zelaian, mojekin eta alkatearekin. Hori astean hiru bat aldiz izaten zen, eta besoa jaitsiz gero, zigortu egiten zituzten. Cara al Sol abesten du.

Transkripzioa
- Eta monjatan esan dezu `Cara al Sol´ eta kantatzen zenuen, e?
- Bai, honbre! Esto... mojak aurretik eta alkatea atzetik, jardiñen ibiltzen giñen gu `Cara al Sol´, hola eskue gendula eta, bajatzen bagendun, "castigo".
- Ta hori egunero?
- Asten hiru bat aldiz. Hura bajatzen bagendun, kastigauta.

- Eta hori goizetan, eskola sartu aurretio?
- Eskola sartu aurretio. o, bestela, hamaikak alden, "recreo"... ez genun "recreo"ik izaten, e. Deseatzen eoten giñen `Cara al Sol´ kantatzea juteko, pixkat kanpoa irtetzeko. Egie da hori!
- Ta akordatzen zea abestie nola zan?
- `Cara al Sol´? Bai.
- Gerau zaizu rekuerdon?
- Bai.
- Ta abestuko zendun oain?
- Baita.
- Aber ba...
- "Cara al sol con la camisa nueva que tú bordaste al rojo ayer, me hallará la muerte si me lleva y no te vuelvo a ver. Y formaré junto a mis compañeros que hacen guardia sobre los luceros. Impasible el ademán, y están presentes en nuestro afán. Si te dicen que caí, me fui al puesto que tengo allí. Volverán banderas victoriosas y al paso alegre de la paz traerán prendidas cinco rosas: las flechas de mi haz. Volverá a reír la primavera, que por cielo, tierra y mar se espera. Arriba escuadras a vencer, que en España empieza a amanecer".
- Joe...
- Hori gogon geldittu zitzaien...
- E?
- Hori gogon geldittu zitzaiela, ene.... Hori... ez zat ahazten e...
- Ez zaizu ahaztu ez.
- Ez zat ahazten, ez.
- Eta ikasi, nola ikasi zenduen? Errepikau ta errepikau eite zizuen o?
- Eunero kantu hori kantatzen gendun kalea, kamiñoa... oi esto... jardiñea irtetzen gendun guztiin, ta eskolan barrun´e askotan berriz bai ta... Hori hemen sartu ezkero ta kito. Nei sartu zitzaien ta nei ez zat hori ahazten.

3.2. Gerra hasi zeneko gorabeherak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/023
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:27:43. **Bukatu**: 00:29:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Eskolan zebilen azken urteetan, gerra hasi zen. Anaia gerrara eraman zuten soldadu. Beraien baserritik norabait joan behar zuten bakoitzean, soldaduek galdetu egiten zieten ea nora zihoazen. Orduko bizipenak kontatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta leheno esan dezu, ba, nola eskolaa juten ziñetenen ta azkenengo urtetan ya gerra etorri zala ta...
- Bai, gerra, azkenengo urtetan ya gerra.
- Ta nola gogoratzen dezu gerra garai hori?
- Gerra garai hori gogoratzen det nik... anaie soldadu eraman zuen. Eta gero mendi hortan, e... soldaduk jarri zien eta etxetik irtetzen zonen: "¿A dónde vas? ¿A dónde vas?" hots eitten zuen eta kontestatzen ez baziezun, tiroa seguru zeukezun. Ta kontestau ta "vete a casa" esaten zuen, ta etxea.

Eta nik neuken ahizpa hogeita lau urtekoa, goizero-goizero-goizero mezetaa etortzen zan. Ta hari ez "ni a dónde vas ni a qué vas", ez zioen hitzik esaten.
- Bazekielako mezetaa zetorrela?
- Ez dakit. Ez zioen harei kasoik eitten. Ta gero, egun baten, belaxe bueltau zan. Irten zon ta [...] bueltau zan. Ta "ze pasatzen da?" ta "Goitik esan die, Españolatik esan die –Españolako mendie zon izena, ta–, Españolatik esan die etxea bueltatzeko". Zeatio eo zer esan zioen...? Baiño hori esan zioela. Ta etxea bueltau zan ta gehio ez zan jun.
- Jesus...
- Ez zan jun gehio. Ta orduntxe zeon moja juteko ta hil ein zan.
- Hil?
- Bai.
- Gaixo, eo?
- Bai, fiebres... maltas o ez dakit zer zan. Gaur igual, esto... sendatu eingo zittuen, baiño ordun ez zeola ezer-ezer eitteik ta hogeta lau urtekin hil zan. Esto... Begoñaa zeon juteko. Holaxe, holaxe gure bizimodue.

3.3. Gerran, etxetik irteteko beldurra

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/024
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:29:31. **Bukatu**: 00:31:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Soldaduek menditik oihu egiten zieten nora zihoazen galdetzeko. Tiroketak izaten ziren orduan. Orduan, ganaduarentzako jana gauez ekartzen zuten; egunez etxean egoten ziren. Hildakorik ez zen egon inguruan; Mutiloan bai, ordea.

Transkripzioa
- Menditik esaten zuen, e? Buillaka edo nola esaten zuen?
- Bai, bai, buillaka, buillaka... Ene... builla onak etaatzen zittuen ba! Builla onak etaatzen zittuen...! Jesus! Kamiñon eze ikusten zuenen-ta kotxeik-eta baldin bazan, nik ez dakit... jotzea ez zioen botako. Bestela hor pasatzen zien kotxek hartu behar zuen tiroa. Ba al dakizu ze tiroteo? Gero ametralladorak ziela eo ez dakit ze "tatatatata" segidon botatzen zittuen ta... bildurgarrie, e? Egun guztin etxetik irten be! Eta gauen, illuntzen zonen, soroa jun ta ordun, anaiekin-ta batea jun eta belarrak hurrengo eguneako, gaueako ta goizeako, egun guztiako jana ganaduntzako ordun ekartzen gendun.
- Gauen, e?
- Gauen. Ta gero irten be eoten giñen.
- Etxen egun guztie?
- Etxen egun guztie. Tristea zan hura´re, e? Irten´e ein be. Irten´e ein be.
- Eta hildakok-eta eon al zien hemen? Hildakoik eon al zan?
- Ez. Ez, hor ez zan behintzet iñor hil. Mutillo kamiñon bai, kamiño baztarren hil zuen gizon bat, eon zan hilda, Beasaingoa zala eo ez dakit zer esan zuen. Akordatzen naiz jun giñela ikustea ta traje bel-bel-beltxakin nola zeon, kamiño baztarren.
- Jun ziñeten ikustea?

- Ikustea jun giñen, bai. Orduako alde einda zeren hangok, e? Eta jun giñen ikustea gure etxetik aurrea [zean] zeon. Jende asko etortzen zan ikustea. Ta gu´re jun giñen ta kamion baten hartu ta eaman zuen gero. Akordatzen naiz horrekin.
- Ta herria jaisten al zian español mendi hortatik?
- Gauez jaisten ez bazien guk ez gendun iñor ikusten. Ezta iñor´e.

3.4. Etxetik irtenez gero, soldaduei kontuak eman behar

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/025
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:31:21. **Bukatu**: 00:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Soldaduak mendian egon ziren, trintxeratan; baina beraiek ez zituzten ikusten, entzun bakarrik. Garai hartan, etxetik ez ziren irteten. Aita, lanera joan behar zuenean, ilundutakoan irteten zen etxetik. Behin ikusi egin zuten, eta soldaduek hitz egin egin zioten.

Transkripzioa
- Ta zuek zer ikusten zenduen, urrutira jendea edo nola izaten zan?
- Ez zan ikusten, ez zan ikusten. Mendia ez zan ikusten inor´e. Zeuzken, hola, honen altuerea baiño gutxixego baiño zulok einda eak eoteko. Trintxerak esaten zitzaienak zeuzken.
- Ordun entzun bakarrik eiten zenien? Entzun bakarrik eiten zitzaiela?
- Entzun bakarrik, bai. Diadar eitten zuenen entzun, diadar eingo zuen altabozen batetik eo hola, bestela ez zeon hola aitzeik. Bestela ez zeon aitzeik...
- Ta zuek garai haietan ez jolastea atea ez ezer´e, e?
- Ezta ezer´e, etxen hantxe. Etxen. Danok jarri etxen ta barrun. Gure aitte juten zan gauen hamarretako guardea zeon ta, gauen hamarretatik seiretaa eitten zon. Eta juten zan hura gauen hamarretako ia illunduta zeola. Hamarretako juteko, bai...
- Ta hari sekula ez zien ezer esan?
- Ez. Ez zuen ikusi´re eingo hura ya illunduta zijon ta. Baten esan zon, esaten zon, esto, zetorrela: "Gereñu, Gereñu! No andes tan deprisa que no te vamos a hacer nada", esan zioela. Bizikletan etortzen zan ta martxea agudo samarra, "No andes tan deprisa que no te vamos a hacer nada" nola esan zioen, hori esaten zon aittek.
- Ta baita ezautu´re Gereñu zala, e?
- Bai, bai... batemat bazeon han ezautzen zona horko jendea, e? Batemat bazeon, batemat bazeon... ezautzen zana.
- Herriko jenden bat igual, herriko pertsonan bat.
- Bate ez fiau.

3.5. Gerrako zorigaiztoko deskuiduak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar

- **Erref**: SEG-004/026
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:33:05. **Bukatu**: 00:34:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Iritziak
- **Laburpena**: Mutiloa aldean, artzaina bizi zen. Hura gerran hil zuten. Deskuidua izan omen zen. Garai gogorra izan zen hura. Gaur egungo gerrak ikustean, beraiek bizitakoa gogoratzen du.

Transkripzioa
- Gero kruzen, Mutillo aldeko kruzen, bizi zan artzaie. Eta harek zeuzken, ardiik eukitzen zittuen gure etxetik goragoko mendin, ta han hil zan behintzet. Hura bai, han hil zan. Hemen eon dan koziñeren... osaba izango zan. Bai, osaba, aman anaie.
- Ardikin zeola?
- Arditaa edo, beitzea-eo zijola. Deskuidon bat izan zala esaten zuen ordun, deskuidon bat izan zala, baiño deskuidoa izan bazan´e hura hil zan behintzet.
- Jesus...
- La vida.
- Bai, bai... gogorra izango zan garai hura, e?
- Huraxe gogorra. Ni oain telebision esaten duenen gerran dabiztela ta, askotan akordatzen naiz: "Ene... nola, nola ote dabizte? Nola ote dabizte ta ze ikusten...?" Hura ez zan izango ezer´e oraingokin konparatzeko, e? Hura ez zan ezer´e izango oraingokin konparatzeko.

3.6. Errazionamenduko haragia jasotzeko ilara

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/030
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:37:33. **Bukatu**: 00:39:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra bukatu zenean, gosea etorri zen. Errazionamenduko ogia gogoan du. Etxeko ogi-taloa nahiago izaten zuten orduan. Haragia jateko, larunbat goizean jaisten ziren herrira haragi bila; inguruan bizi zen lagun batekin batera herrira joateko, seinalea izaten zuen. Herrira iristen zirenerako, ilara egoten zen haragia jasotzeko.

Transkripzioa
- Hori bukatu zanen, gero, gerra bukatu zan ta gerraostea´re gose garaia izan zan. Nola bizi izan zenuen gose garai hura?
- Gose garai hura razionamentuko ogie eta etxen bost lagun o sei bagenden, eta hura zan, taloa, arto talok. Ogi taloa nahigo izaten gendun, gari-iriñekin eindakoa nahio, zeatik lodigoa izaten zan eta goxogoa.
- A bai, e? Garikin eindako talok´e ba al zian ba?
- Bai, ogi talok.
- Ogi talok, e?
- Ogi talok.

- Ta goxogoa zan hura?
- Hura goxogoa zan. Hura goxogoa zan. Askoz´e goxogoa zan hura.
- Ta taloa zerekin jaten zenduen, oain bezela txorixoakin eo?
- Holaxe, txorixoakin o txerrie etxen hilda zeon ta etxeko txorixoa ta urdaie ta etxeko zeekin. Eta haragie jateko, zapatutan etortzen giñen gu honea. Razionamentun zeon. Zapatu goizeko seiretan aurreko beste etxeko neskea ta biok etortzen giñen gu libra bat haragi eamatea. Jaieako zeozer diferentea nahi ta eamatea. Eta gure etxetik –zer esango det ba nik?– plazaa bezela bizi zan beste lagune eta kontraseñea jarri gendun irtetzen gendun garaien leihotik poxpoloa piztea. Eta nik irtetzen nonen poxpoloa pizten non ta harek irtetzen zonen poxpoloa pizten zon. Ta gero hura beste bide batetik juten zan ta ni kamiñotik, gero biok kamiñoa jotzen gendunen etortzen giñen. Gu etortzeako karnizerin kolea eoten zan, kolea, libra bat haragi hartzeko.
- Ta poxpoloa pizten zenuenen zuk ikusten zenun bestek pizte zola, e?
- Nik pizten non eta harek´e pizten zon ya irtetzea zijola. Hura genduken, beste argiik ez gendun pizten. Hura gendun kontraseñea, ta biok.

3.7. Errazionamenduko elikagaien erabilera

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/032
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:43:28. **Bukatu**: 00:44:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraostean, ilara egin behar izaten zuten harakindegiaren aurrean, libra bat haragi jasotzeko. Haragi hura egosi egiten zuten, harekin salda egin, eta tomatearekin jateko. Errazionamenduan ematen zituzten elikagaiak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Kola eiten zenduen, zea... haragia...
- Haragie hartzeko. Jolin, kola... eoten giñen, han egoten giñen... eguerdi aldea etxea juten giñen. Goizen illunpen etorri ta eguerdi aldea juten giñen.
- Ta bukau eiten zan haragi hura, o... gero ta atzeago eon kalidade okerro, eo?
- Egun guztin ematen eoten zan, egun guztin. Herri guztiako txahal bat badakizu zer izango zan: ezer askoik ez. Ezin danai eman.
- Ta zein zan zati onena, etxea eamateko zatiik onena txahalana?
- Egosteko eramaten genun, egosteko eraman trozo bat, ematen ziuna, eta harekin saldea ein ta zopa earra eitten zala ta... Gero bea jan tomatekin eo zerbaittekin ta kitto.
- Ta kitto?
- Kitto.
- Ta ze gehio ematen zuen razionamentun, azukarra ta holako...?
- A! Baita. Azukarra ta olioa ta horiik danak, danak. Dana razionamentun ematen zuen.
- Baiño hortako kolaik-eta ez zan eongo?
- Ez, haragitako bezela ez, zeatik egun guztin... aste guztin eoten zan hori ta. Baiño ez...

3.8. Errazionamendu garaiko janaria eta xaboia

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/023
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:34:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Xaboia etxean egiten zuten, eta gogoan du hori lortzeko prozesua. Garai hartan, janaria juxtu-juxtu erosten zuten. Baserrikoak kalekoak baino hobeto bizi ziren. Beraien etxean izaten zuten janariaz hitz egiten du. Errazionamendua zen garai hartan.

Transkripzioa
- Jaboie´re etxeen eitten zan. Jaboia eitten zan, e... sosa kaustika.... bueno, sosa kaustika erretxiñe eta seboa nahastu eta eitten zan jaboia gure modua, gero hura sekatzen jarri ta laukie ein ta...
- Dana etxen, e?
- Dana.
- Jaboia´re bai.
- Ez zan, ez zan, diruik ez zan ta jaboiik ez zan, klaro.
- Ordun erosi ze eiten zan?
- Erosi jana justu-justun. Jana justu-justun ta baldin bazeon, klaro. Baserrin hobetoxeo ibiltzen zien. Baserrin izaten zan, nik emaztei esaten nion, emaztea baserrikoa det eta, beno, goseik ez, lujoik ez baiño goseik ez. Txerrie hiltzen zan, oillok, konejun batzuk, artoa, ogie eitten zuen. Baiño kale gorrin zan, pfffff... kale gorrin zan izugarrie. Guk fijoa eukitzen gendun jana: patatea eta gero ahie. Ahie izaten zan iriñekin ein eta papilla bezela ein eta hura. Eta eunero, zea, babarrunak. Eunero, eunero babarrunak. Urdai pusketa batekin eta urdaie txarra esaten due, baiña hala neurri hortan jan ezkeo ez. Babarrunak. Eta gero jaien izaten zan garbantzue. Garbantzue eta haragi pusketan bat baldin bazan, asko.
- Ya ya...
- Bai, bai. Hala, e? Ta hori gure garaiko danak esango dizue hori.
- Eta babarrunak, zuek bazeneuketen ordun soron bat babarrunekin?
- Bueno, babarruna ordun jende askok eitten zon eta babarruna erosteko modue zeon. Guk baratzan eitten gendun eta hori. Ta gure aittek esaten zon –ta guk sinistu eitten gendun–: "Eunero jateko –harek´e gizajok ze esango zon!–, eunero jateko gutxiña aspertzen dona babarruna dek!" esaten zon. Klaro... Ta guk sinistu eiten giñon, klaro. Besteik ez zeon eta! Gero kokotxakin ez gendun pruebaik eitten eta!
- Arraia gutxi jango zenduen?
- Bueno! Arraie, ezta... Arraie etortzen zen batzutan, igual, e... zeak, este... bixigue ez da...
- Txitxarroa?
- Txitxarroa. Txitxarrok saltzea etortzen zien igual kamionetan-eta eta orduntxe txitxarro pixkat proatzen bagendun... Baiño fijoa bazkarie, afarie ´re bai fijoa.
- Bai, e?
- Eta taloa ta esnea goizen, askotan, taloa ta esnea. Eta gauen´e, esaten dizut, patatea ta ahie ta, bueno, hoixe. Guk ogi zurie ikusi gendun hamar-hamaika urte edo... ogi beltz-beltza izaten zan, koadro honen kolorekoa, beltz-beltza ogie, bai.

- Ta gogorra?
- Gogorra, bueno, bai, usai bat bazeuken, bueno... E... azukrea, orain modan dau, baiño gorri horietakoa. Eta ogie beltza. Guk ogie zurie ikusi gendun hamar bat urtekin edo hola.
- Bai, e?
- Ogi zurie, bai, bai.
- Ta hori razionamentun ematen zuen?
- Hori, gauñea, "otra". Hoi razionamentun ematen zuen. Olioa´re razionamentun, azukrea razionamentun, balea zenduken ta familiko holako zea bat eta harekin pasau behar zendun.
- Ya, ya, ya...

3.9. Perretxikoak bai, baina oliorik ez

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/029
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:44:13. **Bukatu**: 00:45:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Lehen perretxiko ugari zegoen; baina oliorik ez zegoenez, txerriei ematen zitzaizkien jateko. Lehen olioa estraperloan lortzen zen, baina oso garesti.

Transkripzioa
- Lehen jan asuntoa, esan detena. Esate bateako, perretxikue ordun izaten zan izugarri, baiño olioik ez zan. Ta ni ezaututa nau txerriei ematen perretxikue. Olioik ez zan ta!
- Klaro, bestela apreziauko zenduen perretxikua...
- Bai, bai, perretxikuk saskikadak etaatzen zittuen, baiño... batenbat... olioa bai bela! Etxeako ez zeon ta!
- Ta egosi ta ez?
- Ez, ez. Ta gero, beno, ba txerriei eman.
- Beittu, e? Ta perretxikuk´e...?
- Hori, hori, nere garaikoi galdeiozu, eozeiñek esango dizu /esangoizu/ hoi. Perretxikue, izugarri zan perretxikue. Ekarri ta baldin bazeon olio pixkat, jaten zendun, ta gaiñeakok... ez zeon ta! Olioa perretxikuntzako? lapikoako ez zeon ta! Geroa bai, geroa bai. Geroa ya...
- Perretxikuk hartzeko ohitura´re bazeon? Oaingo perretxiku igualak izango al zien ba?
- Bai, igualtsuk, bai, igualtsuk. Ondoak eta... Onen-onenak akaso olio pixka bat baten batek baldin bazeuken... Estraperloan izaten zan ordun olioa, kanpotik ekarrita. Hemen bazan, Mutillon bazan dendari bat. Olioa, gaiñea ordun, e... izugarrizko preziotan olioa. Klaro ta ordun aberats jendek erosten zon igual ta jango zittuen perretxikuk, baiño perretxiku asko bildu ´re ez! Ez zeolako olioik. Mixeria bat. Oain horrek, zea ematen do, e? raroa ematen do, baiño...
- Bai, bai.
- ... hori hala zan.

3.10. Estraperloaren garaiko anekdota

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/033
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:49:02. **Bukatu**: 00:50:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Estraperloa gerra ostean egiten zen. Dendatan tranpan saltzen zuten estraperloan aritzen zirenei erositako jeneroa. Araba aldera patata bila joaten zen jendea, 3-4 asto hartuta, gauez, ezkutuan. Errotak itxita egoten ziren, ezin zezaten irinik eho; baina hor ere tranpak egiten ziren. Txerria ez zegoen nahi zenean hiltzerik, baimena behar zen horretarako. Horri lotutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa
- Estraperloa esan dezu leno, estraperloa. Ezautu dittuzu zuk kasuk estraperlo... nola eitten zan estraperloa hemen?
- Hemen estraperloa izaten zan... hemen baiño gehio estraperloa da kostalden, Frantzi mugan ta horitan estraperloa. Hemen etortzen zan, ba, estraperlistai erosi ta dendatan tranpan saltzen zuen. Nahiz olioa, nahiz... tranpan saltzen zuen. Baiño hemendi estraperloa ez, zeatio estraperloa muga behar zendun. Estraperloa behar zendun, ba, Oiartzun, Lesaka, Bera... hor, inguru hori. Beno, alderdi hontati; beste aldetik beste [...]...
- Baiño Araba aldea-ta patata bila?
- Baita, bai. Patata bila, bai. Patata bila, bai. Astokin ta gauen ta bai, patata bila. Biden izkutauta ta bai, patata bila juten zien astookin, hiru-lau astokin, patata bila, bai. Ta errotak´e bai. Errotak eitten zittuen, e... zeau, errotarrin ez zenduken iyotzeik nahi zendun guztie. Eta papel bat jartzen zien, prezinto bat jartzen zien. Eta hura berriz´e guardia zibille etorri arte prezintauta ta ez zenduken iyotzeik iriñik eta ezer´e.
- Ta tranpaik eiten zan?
- Tranpa eitten zan, bai. Beakin alkar hartu ta prezintoa kendu ta errotak eta ixilka eta... eitten zien, bai. Txerrie ez zenduken hiltzeik nahi zendun guziin.
- Ezta ere?
- Ez, ez, ez. Txerrie ez zenduken hiltzeik. Garai hartan, e? Hori ai naiz esaten gerra ondoren. Txerrie, permisoa behar zendun txerrie hiltzeko. Hemen badao anekdota bat oso politte. Baserrie da Lexaka baserrie eta, klaro, eak ez zuen hiltzeik eta gauen hil due txerrie ta gero erretzen. Ta sue eukiko zuen eta leihotik ikusi ta "sue, sue!" ta herri guztie altxa. Ordun kanpaiek –gero kanpaiek aittauko dittut. "Sue, sue!" ta danak haruntza baldek hartuta, goardia zibillek´e bai. Ta han txerrie erretzen. Osea ke... anekdotak dare holakok asko. Mixerik eraitten dittunak.

3.11. Gerra Seguran, herritik kanpo eta Teruelen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/025
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:29:41. **Bukatu**: 00:32:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerrako kontuak aipatzen ditu. Kanpandorretik aritzen ziren tiroka. Jendeak leihoetan koltxoiak jartzen zituen tiroetatik babesteko. Laureanoren osaba Teruelen egon zen; oso gogorra izan zen fronte hori. Segurako jende asko eraman zuten gerrara. Seguran ez zuten gerran inor fusilatu, baina asko bidali zituzten herritik kanpora.

Transkripzioa

- Gero gerra kontuk. Gerra kontuk aittu al dittuzu hemen, edo nazionalak etorri zianekok eta...?
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Eta zer kontatzen... zer aittu dezu?
- Bueno, hemen zien, ba, hemen gerrea eon zan. Nazionalak hemendik eta Espainolak hor, hemendik Ormaiztegia biden. Ta handik republikanok o beste aldekok, bai. Eta zeatik eoten zien tiroka, e... kanpantorretik alkarri tiroka.
- Kanpotorrea zer da?
- Torrea. Torretik, torretik, bai. Ta karlista garaien´e bai esaten zuen, hemen bai.
- Ordun zuek erdi-erdin!
- Bueno, hemen nik gerrea gutxi ezautu non, zeatio hogeita hemeretzin bukatu zan gerrea ta gutxi ezautu non. Baiña aitzera bai aittei ta. Ta leihotan koltxoiak eukitzen zittuela. Koltxoiak eitten omen do balea, koltxoian ilea ta nahastu eitten da, pasau ez emen da eitten. Ta koltxoiak, klaro, espaiñola dao hor mendin. Handio hona tiroka ta hemendio harutza tiroka. Klaro, ta leihok paren zeuzkenak-eta koltxoiak jarrita ta, bai.
- Bai, ez? Porke eongo zan bala galdun bat.
- Bai ba, bai ba, ta haek...
- Ta allauko ote zian ba bala hoiek?
- Bai, bai, bai, bai. Potentzie bazan ordun, gaiztakeriako bazan potentzie!
- Ta zuk familin ez zendun euki iñor´e gerran?
- Osaba bai, osaba bat gerran, bai. Teruelgo gerran ibilitako osaba bat. Izugarrik kontatzen zittu harek. Bufa..! Gauen elurretan lotan ta pufa...
- Bai, e?
- Teruelgo frente hau oso gogorra izan emen zan, bai.
- Ta hura zer ein zuen, harrapau edaden zeolako? Hartu ta...?
- Bai, harrapau zittuen hemezortzi urtetik hasi ta hogeita... hiru-lau; bost o sei kinta harrapau zittun ta.
- Bai, e?
- Bai, "todos pa´allí".
- Ezetz ezin esan, klaro.
- Honbre, Honbre...
- Ta hemen herrin eraman zuen jendea?
- Izugarri pillea hemen. Hue... ba hemezortzitik bost urteko kinta... baiño pilla. Eta, gaiñea, pasa zittuen batzuk bost urtetik gora gerran, e? Gerra bukauta´re han.
- Ta hildakoik eon al zan?
- Bai, pillea, hildakok bai. Garai hartan hemen eliza ondon eoten zan lapida bat eoten zan hildakona, bai. Igual hemen hildakok izango zien hogeta lau-bost bat igual bai hildakok. Gerran hildakok, e?
- Jesus!
- Bai, bai.
- Ta fusilatutakoik-o bai?

- Fusilatuk hemen ez. Beasaiñen ta hoietan bai. Hori gerratik aparte zan. Hemen fusilatu zittuen zeak sartu zien garaien, nazionalak o ya sartu zien garaien, herritan sartu zien garaien ya... herrie hartu zuenen, ordun fusilau. Baiño gerran aurretik, gerran aurretik, bai.
- Ta honea herria ez zien sartu? O bai?
- Bai, bai, bai, bai, herria sartu zien, bai, bai. Herri danak okupatu zittuen, ta ordun ein zuen ba zafarrantxoa... halamouzko jendea dana "viaje". Bai. Hoik e...

3.12. Errepublikanoen ideiak erlijioaren gainean

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/026
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:32:31. **Bukatu**: 00:33:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Errepublikanoak zigortu egin zituzten gerran. Gizon baten esana: bi pulpitu behar zirela, bata apaizarentzat, eta bestea hari erantzuteko. Apaizaren aurkakoa zen.

Transkripzioa
- Bien, bien... hori gerra, eta errepublikan ingurun entzun dittuzu istorik edo?
- Em... bueno, republikea izan zan gerrea baiño lehentxio izan zan. Republikanok izaten zien elizen kontrariok ziela esaten zuen ta republika izan zan hemen, ba lau bat urte edo iraun zon. Gerrea hasi arten iraun zon. Republikanok´e kastigauta izan zien. Hemen republikanok bazien.
- Bazien?
- Bai, bai. Elizen kontrariok. Batek esan zon, republikanoa ezautu non nik, harek esaten omen zon bi pulpittu behar lukela, bat apaizentzako ta bestea kontestatzeko. Garai hartan hori esateko...
- Garai hartan hori esateko...
- Bai, bai. Ta alkate zeonak esaten omen zon ez zeukela beste ilusioik elizei txapela kendu ta frontoiai jarri.
- Frontoiai, e?
- Frontoiai jarri, bai, bai. Elizen kontrariok zien ta, bai.

3.13. Frontea etxetik gertu

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/028
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:43:12. **Bukatu**: 00:44:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Joxek 13 urte zeuzkan. Frontea pare-parean zeukaten; bala-hotsak entzuten zituzten; nola-hala babesten ziren.

Transkripzioa
- Gerra, zuk ezautuko zendun gerra.
- Bai, nik hamahiru urte.
- Ta nola gogoratzen dezu gerra?
- Buf... hor, hamen euki gendun guk frentea. Ta etxea holaxe frenten.
- Ta moittu ziñeten etxetik?
- E?
- Etxetik aldein zenduen beste etxe batea?
- Ez, ez, han eon giñen gu, han eon giñen.
- Ta entzungo zenduen o ikusi o dana?
- Ikusi, tirok botatzen zittuen.
- Zuei?
- Guri... bala hotsa´re aitzen gendun, baiño nik ez dakit jotzea ez zuen tirauko o ze eitten zuen. Ni [ganaujaneta] jun ta eonda nau karretillekin ta karretillen azpiin sartuta, etzanda. Tiroka ai zien ta nere arten: "neuri igual tirauko ziek eta...". [...] altxau ta zeau.. Guri ez zikun ezer pasau, baiño...
- Ta etxetio ateatzen ziñeten?
- E? Bai, bai...

3.14. Anaiak gerran izandako zorte ona

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/032
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:55:54. **Bukatu**: 00:57:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Joxeren anaia zaharrenak hiru urte eman zituen gerran borrokan. Hainbat lekutan ibili behar izan zuen. Behin balak irrist egin zion eskuan; zorte ona izan zuen.

Transkripzioa
- Ta zuk euki zendun familikon bat gerraa junda o frentea junda?
- Anaie, zaharrena, hiru urte pasau zittun.
- Ta nun pasau zittun?
- Leku askotan. Hoi Teruelen ta... leku askotan ibili zan, e?
- Ta, ordun, garai hortan kintoa zan ta eaman ein zuen? O nola izaten zan?
- Soldaduskatik librauta zeon, soldadu izatetik. Numeron o ez dakit zer, librauta. Ta geo, zea, gerraa jun behar. Bai... Ta eze ez zon izan, e? Behin pasau omen zikon esku gaiñen balea [jarri] irristen holaxe, zean, kanpamentun zea goiei helduta zeola, hantxe, xiiiii, beste ezer ez, ez do izan. Ta hori bastante zean ibilitakoa, teniente edo komandante baten asistente aitzenen. Ordun ondo, asistente. Baiño aurretik beste izen batekin zea, harek esaten zion "holako kapitanai esaiok hau eitteko o bestea eitteko" ta aurrea junda, frentea junda, ibili behar. Holako zeak ein zittun. Bai. Baiño ez zon /etzon/ eze izan!
- Suertea euki zon ordun?
- Suertea!
- Baiño ikusi ikusiko zittun, e?
- Bai hoixe! Galduta´re bai mendin gauen! Ta deskuidau balitz, beste aldea pasau! Bai...
- Beste aldea?

- Beste aldea errez pasau zaiken han! Bata zean ta holako lekutaa, noa zein aldetan zeren... gauen zer dakizu ba?
- Bai, bai...

4. Baserria

4.1. Txerria hildakoan, harakinaren eta albaitariaren zereginak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/017
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:19:12. **Bukatu**: 00:21:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Txerria hiltzen zutenean, harakinari gibel-jana ematen zitzaion. Gibela jan eta gero, albaitariari pusketa bat ematen zioten, ea ona zegoen ikusteko. Txerrikiak egiten zituzten txerria hiltzean, eta auzokoen artean banatzen zen jenero hura. Orduko anoak gogoan ditu Matildek.

Transkripzioa
- Eta, ordun, hori, txerria hiltzen zenduenen, karnizeroi hori ematen zitzaion? Gibel jan hori?
- Gibel jan hori. Eta gero, ude jun ta gero presea eittea. Gero beterinarioi pusketea ekartzen zitzaion ona zeon eo txarra zeon ikusteko. Jan ta gero, e? Jan ta gero.
- Gibela jan ondoren?
- Gibela jan ta gero beterinarioi puxketea ikusteko aber ona zeon.
- Beittu... ta beti ona?
- Beti ona! Hala esaten zon behintzet beak eta!
- Eta gero eitten zenittuen txorixok?
- Bai txorixok bai. Txorixok eta mondejuk eta horik danak eitten zien. Beste emakuma bat etortzen zan, laun eittea auzotik eta horik danak etxen eitten zien.
- Ta zeinek, zuek eitten zenittuen?
- Ez, ez. Amak eta...
- Amak eta lagun horrek?
- Amak eta amonak eta horik eitten zittuen lanak, horik eitten zittuen. Gu ez saltsa hortan... guri saltsa hortan ez ziguen uzten.
- Eta gero bizilagunei o auzokoei ematen zitzaien?
- Bai, auzokoei partitzen, auzoa dana bueltan, auzo guztiei partitzen. Eta gero eak atzea guri ekartzen. Eak hiltzen zuenen atzea ekartzen. Hori´re komerie zan ba! Jesus... hori´re komerie zan! "Madre mía"...
- Ta ze ematen zan, odolkia eo?
- Ematen zan odolki... bi edo hiru odolki eta... urdai pusketa bat eta txerrin bizkarrezurreko beste pusketa bat. Eta segun famili on samarrekoa baldin bazan, atzea ekarriko zola jakin... iruitzen zan lekoa, solomo tajada... pusketa bat´e bai. Eta solomoa eramaten ziozunak atzea ekartzen zon. Ta askok guk hiltzeako askok ekarri eitten zuen ta eak ekarri zuena hemen, atzea bueltau.
- Ta baten batek igual tranpa eitte al zun? Txerria hil ta ezer ez esan eo? Holakoik eoten al zan?
- Ez, bistan zeon dana ta. Dana bistan zeon ta ez zeon eitteik holakoik.

Nolatan gauen, lo gendela-eo, eitten ez zon, bestela ez zeon eitteik! Zeatik barrio bat da hola... junto samarra da. Ez dare etxe askoik.
- Zenbat dare?
- Bi... bi, gurea hiru, hola bertan darenak. Ta aldameneta darenak lau, bost, ta beste alden Mutillo aldeko terrenotan darenak, zazpi. Eta ez zeon hainbesteaiñoko.. ez zeon pekatu haundiik eitteik!

4.2. Belarra lortzeko bidaiak

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/021
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:25:17. **Bukatu**: 00:26:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Etxegaratera joaten zen Matilderen familia, garo bila; eta Matilde han gelditzen zen gaua pasatzen. Belarra kamioiz ekartzen zuten. Belar hura behiei emateko erabiltzen zuten. Belarrak ganbaran jasotzen zituzten, sortatan.

Transkripzioa
- Eta belar billa ordun aste guztia bertan pasatzen zenun?
- Nik bai.
- Etxegaraten.
- Nik Etxegaraten pasatzen non aste guztie. Ta aste guztie, belarrak ekarri arte guztiin.
- Ta nola izaten zan aste hori, ondo ibiltzen ziñen han o bakarrik?
- Ez, ez, ez, juten zitzaien anaiek, e? Ni han gelditzen nitzen, baiño anaiek, hurrengo goizen bi anaiek juten zien. Ta gero ya hasi zienen hori lanen-ta utzi ein nien harei.
- Ta nola ekartzen zenduen belarra gero?
- Auto... esto... kamionen, kamionen ekartzen gendun belarra.
- Ta kamioia zeiñena zan ba, kamiona?
- Kamiona hemen kaleko jendena, herriko´re bazeon ta Zeamatik hortik etortzen zan beste batzutan ta, ahal zan lekun hola ibiltzen zana billatu ta... hola ibiltzen giñen.
- Ta belarra gero ze, azpitako o?
- Gero belarra behiai emateko. Kamionak ekarri ta atzeaka jotzen zon ta etxe ondoan botatzen zon ta gero hura sortak ein ta hura bittu eo hura hartu ta ixkillaretan behetik gora ganbaraa. Hura izaten zan ona hura! Gu ez giñen umek ibiltzen, baiño... Belarra ganbaran jartzen zanen zapaltzen-ta... hartan ibiltzen giñen. Ez gustora, baiño...
- Ta sortak eiten zian, e?
- Bai, belarrakin sortak eitten zien ta bizkarren hartu ta ganbaraa jaso. Ez zan bela bukatzen kamionkadea! Ez zan bela bukatzen kamionkadea!

4.3. Saltzaileak eta konpontzaileak Seguran

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar

- **Erref**: SEG-014/040
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:54:12. **Bukatu**: 00:55:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Feriak zirenean etortzen ziren Segurara saltzaileak. Zorrotzaileak eta ontzi-saltzaileak etortzen ziren Segurara. Lehen dena konpontzen zen, ez zen ezer botatzen.

Transkripzioa
- Gero, era desberdinetako saltzailek egoten zian? Hemen saltzailek, bueno, beste leku batzutatik etorritako saltzailek edo...
- Gutxi. Hemen feritan egoten zien. Ferik egoten zien. Bi-hiru egunez ferie eitten zan ta txerrik saldu ta behiek ta ganaduk eta... Bestelako ferik, hori geroxeago hasitakoa da, e? Feri kontu hori, bai. Saltzailek... Hemen etortzen zienak zien, ba, lapiko-konpontzaillek, txorroxtzaillek...
- Txorroxtzailek?
- "Afiladores". "Fiii" jo ta "rraa" ematen zuen. Ta jendek ertetzen zon ta gero lapikoi ipurdie ipini ta lapikoi, zulauta baldin bazeon, errematxea ipini ta horik zien "katxarrerok" esaten genion guk.
- Katxarrerok.
- "Cacharreros" eta bestek izaten zien "afiladores".
- Baino nola esaten diezu zuk? Txorroxtzailek?
- Txorrotxaillek. Txorrotxaillek, bai. Erderaz "afiladorek".
- Biak, e...
- Fiiiiiiiit jotzen zuen ta hankekin "raa" eraiñez ta... bai.
- Beittu, e?
- Ta bestek "cacharreroooooo" hots eitten zuen. Ta hemen egoten zien, hemen frontoi ondon egoten zien, sartu burni bat ta tan-tan-tan [jotzen] zuen lapikoa. Ta paragueroa ere bai. "Paragueroooooo" ta guardasolak arreglatu.
- A bai, e?
- Horik bai, horik ezautu dittut.
- Dana arreglatzen zan, e?
- Bai, bueno... ordun ez zan ezer botatzen, bua, dana arreglatzen zan.
- Ta kazuela bat izan zeiken bizitza osoako.
- Bai, onbreeee! kazuelak bi-hiru rematxekin ta kirtena ipinita, ipurdie ipinita... Ordun berrie? bai...

4.4. Soldadutzako anekdotak

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/005
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:11:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Soldadutzan 27 hilabete eman zituen Joxek: Bilbon, 23 hilabete. Gerora, Etxalartik gorako mugara bidali zuten. Soldadutzako anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa
- Soldaduskan, soldaduskan´e denboratxoa pasau gendun. Hoeta zazpi hillabeten soldadu eon nintzen ni. Jo... ia aspertuta!
- Ta nun eon ziñen soldadu?
- Bilbaon. Hoeta hiru hillabete pasau nittun Bilbaon ta... zea... otsaillen etorri nitzen etxea permiso hillabetekokin. Handik […] jun nitzenen, destinauta hau, fronteraa, zeaa juteko! "Makik emen zerek han ta harata jun behar emen dezue!" Mekauen... Pena bat hartu non...! Beasaingo lagun bat baneuken, "cabo primerea" zan, gaiñea. "Cabo primera" azkarra zan ta... "cabo primerea". Ta harek: –biok genden permisokin, ta– "Ni hamen eon banintz, ez zien hortik aurrea jungo! Hori ez!". Zeati harek zea haundie zauken... bueno, nik´e baneuken amistadea. Kapitana´re beti "Ugalde, Ugalde... esas manchas, esas manchas!" Beti zea eitten zienen esaten zien ta...
- "Esas manchas" esaten zizun?
- Mantxak, mantxauta, ardo mantxa igual eukitzen gendun ta...
- Zuek soldaduska juten ziñeten, baiño txikiteon-ta ibiltzen ziñeten e bai?
- Hoixe, hoixe...
- Eta... gero jun ziñen fronteraa?
- Bai, lau hillabete pasau genittun han!
- Ta nun? Ze fronteran?
- Etxalartik gora, zean, "palomeras" ta zean gertun, mendin.
- Mendin, e?
- Bai. Dana mendin, bai.
- Ta negun tokau zitzaizun?
- E?
- Negua zan?
- Ez, udea zan. Udaberriti udea, ondo. Baiño maietz baten ein zon eudie... Eunero eudie! Dana bustita askotan ibiltzen giñen. Jo... Hue zan... Nik nere arten pentsau ohi non, fronteran destakamentutan eoten dala ondo? Ni Bilbaon hobeto neoan. Nere burun pentsatzen non.
- Lasaio?
- Bai.
- Bilbon ze eiten zendun ba?
- E?
- Bilbon ze eiten zendun ba?
- Ba... guardik ein ta, imajinarik ein ta...

4.5. Soldadutzan, mugan egon behar

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/006
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:11:43. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Soldadutzan, mugan egon behar izan zuen zenbait hilabetez. Hango anekdotak kontatzen ditu. Behin, 7 estraperlista harrapatu zituztenekoa gogoan du.

Transkripzioa
- Ta makik ikusi zenittun fronteran?

- Ke ba! ni ez nitzen ibiltzen... zea, armazetan eo zean neon ta ez nitzen / enitzen/ gauen juten. Baiño nee lagun bat, aiatarra zan, jun zien ta gauen atzea bueltau zan. "Ze eittea etorri haiz?" ta "Bonbea eman behar diat. Bonbea emateko esan ziek zeak". Auskalo nun zebizten mendin, e? Ta bidez bide zeauko zon, baiño gauen etorri zan. Ta baita bonbea bota´re! Estraperlistak! Ez, han makiik ez,estraperlistak!
- Estraperlistak.
- Bai, bai...
- Ta gero garai hori, gose garaie izango zan?
- Bai, bai... Horik... nik... Zugarramurdin eon nitzen ta harrapau zittuen zazpi estraperlista. Ta karabiñerok bazeren Zugarramurdin. Zer da ta purue errez haakin karabinierokin paseon! Haek karabiñerotaa entregau zittuen ta karabiñerokin purue errez paseon.
- Estraperlistak?
- Bai, bai, hoixe.
- Ta karabinerok zeintzuk zien?
- E?
- Karabinerok zeintzuk zien?
- Zeak, e... karabiñerok, zeak, han bertan zerenak, kuartela bezela-eo eoten zienak.
- Ordun, karabinerok estraperlistai kaso askoik ez zien iten?
- Bai, kaso bai. Eak´e, eak´e "ekarrizue" esango zien haek.
- Beaientzako?
- Hoixe!
- Bien, bien, bien, bien.

5. Aisia

5.1. Tabernako lana: berandu bukatu eta goiz hasi

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Elorza, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-004/036
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:50:12. **Bukatu**: 00:51:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Lehengo tabernak nolakoak ziren azaltzen du. Gauean, berandura arte, bezeroak karta-jokoan aritzen ziren. Matilde haiek noiz joango zain egoten zen; eta, goizean goiz, berriro jaiki behar izaten zuen.

Transkripzioa
- Ta nola zian ordun tabernak? Oaingon antzekok al zien o beste era batekok zien eo?
- Ordun´e ez zien oso xuxenak batzuk, e? Ordun, oain ez dakit zer izango dien, baiño ordun ez zien oso xuxenak batzuk. Azkena egon nitzen taberna hortan, Gaztelu hortan... jolin... goizeko hirurek-laurek arte jendea musen o jokun hasten zien ta hantxe eon behar.
- Eon ein behar!
- Eon ein behar. Nausiik ohia juten zien ta han ni gelditzen nitzen. Atek ixten zittuen ta barrun zerenakin ni gelditzen nitzen.
- Ta eran ze eiten zuen, koñaka ta holakok?

- Tabernan zerenak eo jokun ai zienak? Batzuk, e... kopa, beste batzuk zerbeza, beste batzuk coca-cola ta hola eraten zuen. [Danai] kaso ein behar.
- Bai ba!
- Ta zuk han eon behar! Ta hurrengo goizen zortziretako atzea jaiki ein behar.
- Eta zu barran eoten ziñen ordun?
- Ni azkenen barran eoten nitzen.

5.2. Ehizarako teknikak lehen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/030
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:45:35. **Bukatu**: 00:46:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Lehen, eskopeta zeukanak usoak harrapatzen zituen ehizan. Orduan eskopetak eskuz kargatzen zituen norberak. Basurdeak harrapatzeko, zepoa eta tranpak erabiltzen zituzten.

Transkripzioa
- Ta ehizen hasi zian hauek... ordura arte usoa-ta ez zan jaten? Ehizen hauek hasi arte...?
- Bueno, bai, eskopetak bazien hamen, eskopetak bazien ta usoa jaten zan. Bueno, uso asko harrapatzen zan hemen. Asko, bueno, esan nahi det, eskopeta zaukenak harrapatzen zittun, botatzen zittun. Baiño, klaro ordun botatzen zendun tiroa, ba, seguro zeon garaien, e? Ez oain bezela "bum-bum bum-bum" eta iapa! ta segi...
- Kartutxoik ez baldin bazeon...
- Bai, bai. Kartutxok, gaiñea, norbeak betetzen zittun. Perdigoia erosi, hemen kartutxo gehienak, ehiztari gehienak, takoa erosi, kartutxok eta polborea erosi eta beak kargautako eskopetea.
- A bai, e?
- Bai, bai, bai. Gerogo´re bai, e? Norbeak kargatzen zuen ehiztarik.
- Ta basurdea-ta ehizatzeko ba al zeon ohitturaik? Basurdek eta...
- Botatzeko? zepon. Zepon asko. Zepoa zan ordun asko. Zepo batzuk badare, bueno... hola tirauta, baiño... zepon harrapatzen zuen. Eta lazon´e bai, alanbrekin lazok ein ta harrapatzen zan.

5.3. Lehen ehiza saritu, eta orain zigortu

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/031
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:46:37. **Bukatu**: 00:48:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

- **Laburpena**: Lehen azeri asko zegoen, eta orain babestuta daude. Lepazuria harrapatzen zuena, lehen, etxez etxe joaten zen eskean; herritarren artean, estimatua zegoen ehiza hori, bestela oiloak jaten baitzizkieten. Zapelatzak edo horrelako hegaztiren bat harrapatuz gero, duro bat ematen zuen epaileak. Orain, ordea, hegazti horiek babestuta daude.

Transkripzioa
- Garai hartan azerik eta otsok eta ba al zeren hemen ingurun?
- Axerie bai, axerie asko. Eta ordun, esate bateako, axarie harrapatzen zonen, ikusita nao axarie –ta oain, klaro, babestuta dare oain horiik danak, axarik eta, zeak, este... lepatxurik eta–, ordun ni hamen askotan ezaututa nau eta beste aldetan izango zan: lepon hartu axarie eta eskeen ibiltzen zan, ta jendek dirue ematen zion, klaro, oillok harrapatzen zittuen ta.
- A...
- Esken, bai, bai. Igual lepatxurik eta horik hartu eta harrapatzen zittunak esken.
- Lepatxuria zer da?
- Lepatxurie da, e... este... beste izen bat dauke. "Comadreja" modukoa da, holako koneju mouko bat mutur luze-luzekin ta, bai.
- Bai, bai.
- Lepatxurie esaten die. Izugarrie da animalie harrapatzea. Ta oain babestuta dare horik. Baiño horik zepon-ta harrapatzen zittuenak hemen ibiltzen zien diru esken. Ta jendek eman eitten zion, klaro, oilloa,... "ene, portau haiz, motel! bestela oillok-eta harrapatzen ditue hok eta" ta. Bai.
- Beittu, e?
- Bai, bai, bai. Hori askotan, bai, bai. Eta zapelatxa ikusita nau, hemen zan jueza, zapateroa zan jueza. Zapelatxak harrapau ta holako hegaztin bat harrapatzen bazuen, etorri ta hankea mozten zion berriz ez ekartzeko. Eta duro bat eman zion, bost pezeta ematen zien.
- A bai, e?
- Bai, bai, bai, bai.
- Beittu!
- Bai, bai.
- Ta oain alderantziz, oain danak babestuta dare.
- Babestuta.
- Hori, hori guk ezautu deu. Lepon hartu, bizkarren hartu axarie ta taka-taka-ta, jendea eskeen, baserritan behintzet ta "aiba!":

5.4. Mendira joateko aukerak gaztetan

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/022
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:26:12. **Bukatu**: 00:27:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena**: Gaztetan ez zeukaten mendira joateko halako ohiturarik. Lehen Arantzazurako erromesaldia egiten zen; eta zer izaten zen hori azaltzen du.

Transkripzioa
- Bazenduketen ohitura mendia juteko-ta? zuen gazte garaietan, mendia jun edo...?
- Bueno, bai, lehen esan dizuana... mendia asko ez, e? Txori api bila juten giñen, baiño hortik aurrea gazte... mendira... Gero hasitakok die mendiko horiik. Bai, bai. Oiñetakok-eta onak etorri zienen eta makillak eta bestek eta... Hemen mendin unikamente peregrinazioa eitten zan Arantzazua. Orduntxe mendia jun. Baiño, hola, mendi..
- Ze eunetan izaten da Arantzazukoa?
- E... setienbren zean, lehenengo jaien.
- Lehenengo jaien.
- Lehenengo jaien izaten da, bai.
- Ta nola izaten zan peregrinazio hori? Jende asko juten zan?
- Bai, bai, bai. Oiñez jun eta gauen, hautza allautakon, han salbea errezatu, bertan lo ein, han meza nagusie-ta entzun eta bazkaldu ta bazkal ondoren atzea oiñez herria.
- Ta bertan eitten zan lo, e?
- Bai, bertan eitten zan lo, bai.
- Nun, fraileen...
- Bai fraileen... lekuk zeuzken frailek eta, bai, han eitten zan lo, bai. Gero bueltan etorri eta txistularikin behetik gora etorri ta elizan salbea kantatu ta "se terminó".
- Txistularik´e eoten al zien hemen jaietan ta?
- Bai. Txistularik eoten zien, bai. Txistue eoten zan, bai, txistue. Txistue eoten zan jaietan, bai.

5.5. "Kontuz, bertsoak aterako dizkizute eta!"

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:27:26. **Bukatu**: 00:29:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Lehen bertsopaperak saltzen ziren. Herriko jendeari buruzko bertsoak izaten ziren. Idazlea anonimoa izaten zen. Bertsoetako gaiak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Bertsoan kontun bat aipau dezu, bertso-papelak eta saltzen al ziren garai hartan?
- Bai, badie bertso-papelak, bai. Bertso asko etaatzen zan ordun. Baten batek jugadan bat eitten zonen ta neska zaharrai ta batei ta bestei ta... bai, bertso-papelak bai, asko etaatzen zien.
- Ta herriko jendei, e?
- Herriko jendei, bai, bai, bai. "Bertsok etaa omen ziek harei!". Oaiñ´e badao ohitturea. "Hiri oaindio... zea horrekin, janzkera hori... Bertsook etaako die!". Bai, bertsok bai.
- Oain´e esan esaten da, baiño...
- Esaten da /esatea/ "bertsok etaa", ba, hortik dator hori.
- Hortik dator?
- Bai, bai...

- Eta zeiñek eitten zittun bertsok?
- Bueno, bertsok eitten zittun ezjakin batek. Bueno, iñork ez zekin zein zan. Gero zabaldu eitten zittun. Neska zaharrai nobiok utzi ziolako edo mutil zaharrai andragaiek utzi ziolako edo...
- Ta hoiek gero saldu egiten ziren?
- Bai, saldu eitten zien. Baten batek auskalo zeiñek eitten zittun ta bost zentimon saldu ta...
- Ta dirua zeiñentzako, ez baldin ba...?
- Bueno, dendatan-ta saltzen zittuen ta... eintzailea sekula ez zan jakiten zein zan eintzailea. Bertso ipintzailen bat ta benga.
- Beak zer irabazten zun ba bertso hoik jartzekin?
- Ba dendan salduko zittun ta hainbeste diru hartuko zon ta...
- Dirue...
- Bai, bai, dirue.
- Eta bertsokin? Imajinau, nei bertsok ateatzen dizkie Maria bati. Ta zer pasatzen zitzaion pertsona horri? Gero beataz hitz egingo zan herrin o...?
- Bai, beai bertsok: bueno, hau neska zaharra da ta egun baten eranda ikusi zuen edo nobiok utzi zion o tranpa ein zion o lapurreta ein zon o, bere "fallon" batzuk etaraaz.
- "Fallo" horiek atea, baiño bea etxetik atea´be igual hillabete?
- A bueno! Lotsau, bueno! Bertsok etaa? Esaten dizut ba: "bertsok etaako die hiri!". Bai, bertsok, hoixe zan ba...
- Kuriosoa.
- Bai, bertso-papelak.

5.6. Ehiztari eta saridun

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/022
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:32:10. **Bukatu**: 00:33:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Azeria harrapatzeagatik, eskean aritzen ziren lehen. Zapelatza botaz gero, herrian hanka moztu eta ehiztariari ordaindu egiten zioten. Gaur egun, ordea, ezin da zapelatzik harrapatu.

Transkripzioa
- Axaritan´e, axarie harrapatzen zaille da, e?
- Ta harrapatzen zunak ze eitten zun gero? Ez zien dirua-o ematen harrapatzen zunai?
- Bai, oain ia holakoik ez dao. Harekin eskeen ibilita gare. Jendea, ni ez naiz ibili baiño gure etxea etorri die, axarie bota zuela ta eskeen. Ta dirue biltzen zuen, gaiñea. Oain e... Ta beste bat, zapelatza, ez dau botatzeik oain! Ta lehen botatzen baldin bazan, herriin hankea mozten zien eta holako bat, ez dakit hamar pezta o ze pagatzen zuen, baiño pagau eitten zuen. Zeati zapelatza ta buitrea ta horik die ba baserrin ia animalik, zean, txahalak eta arkumaak eta ia jaten dittuenak.
- Ta ordun dirua ematen zitzaien?
- Bai, baiño oain ez dau botatzeik. Ez dau /eztau/ botatzeik, ez.

6. Euskara

6.1. Beti euskara erabili izan du

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Azarola, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-008/025
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:40:07. **Bukatu**: 00:42:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan ibili zen 10 urte izan zituen arte. Orduko maistra gogoan du. Euskaraz ikasten zuten. Behin trenean arreta eman zieten euskaraz hitz egiteagatik. Juanak beti euskara erabili izan du. Erdara nola ikasi zuen azaltzen du.

Transkripzioa
-Eskola’re jun ziñen ez?
-Bai, bai, hamar urte arte eskola.
-Hamar urte arte?
-Hamar urte arten bai.
-Ta ze, sei urtetik o hola o?
-Ez dakit nik zenbat urte eukiko giñutzen, guk e gendun bat e, maistrea oso ona, lehendabizi mojatan ibili giñen, ta gero maistrekin, ta maistrek e, zan Bergarakoa, eta harek e oso ondo, eskolea’re bai ta josten ta bordaketan ta, bai.
-Ta euskeraz emate al zenduen o erderaz?
-Euskeraz, euskerea guk, guk euskereako, beti euskerea izan deu guk e, guk e, ni akordatzen naiz, gero behintzat trene giñozela, trenen zai Donostia, nik Donostin izeba neuken ta ahizpak eta’re han neskame eon zien, eta eun baten e, e, hola bagiñotzen ta euskeraz jungo giñen trenen ta gizakuma batek esan ziun “oiga, habla usted…”.
-“Castellano”?
-E… nola esan ziun, “como las personas” eo eztakit, hola muz esan ziun [...], pentsau nun esatea’re “estamos hablando como es debido” esan behar giñun ondo biren, baiño ez giñon kasoik in. Ta gero beste gizakuma batek esan zien e “zu betik [...] garaien euskerea, euskeraz in, kontestatzen ez badizue, ordun ia tira, baiño beti, beti euskeraz, guk beti euskerea ibili deu, guk, guk hemen e erderea ikasi genduna laun bat gendun, dakau oindio, residentzin dao gaiña, eta harekin ikasitako erderea deu guk gehiena.
-Ta nungoa zan ba bea?
-Hamengoa, Segurakoa zan, baserri batekoa, kamiñon ondo ondon dau, neska zaharra da.
-Ta harekin zeba iten zenduen?
-Harekin, zeuzken bizilagunak eta erdaldunek, etortzen zitzaien kanpotik, ta haiekin batea gehio’re zean iten zittun e, kanpokori, ta hak erderaz itten zuen, ta handikan ta guk beste gaiñentzekun, kanpoa ez gea irten ta, nik e hamen ikasitako erderea dauket.
-Karo!

6.2. Eskolan, medailaren zigorra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/010
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:14:51. **Bukatu**: 00:17:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Eskolan mutilak bakarrik egoten ziren; neskak aparteko eskola batean egoten ziren. Orduko maisuak gogoan ditu. Eskolan dena erdaraz egin behar izaten zuten. Euskaraz egiteagatik, zigortu egiten zituzten, medailaren zigorra erabilita.

Transkripzioa
- Eskolan esan dezu edade guztitakok zendetela, mutillek eta neskak...?
- Ez, mutillek bakarrik. Gu mutillek eta neskak aparte eoten zien. Aparte eoten zien neskak, bai.
- Nun zeon eskola?
- Eskola zeon, e... oain, e... zea daun lekun... este... anbulatorioa daun hortantxe zeon eskola. Eta bestea, neskena, goien. Bai. Neskak aparte, hori bai. Neskak aparte, bai.
- Ta maixue zein zenduen? Akordatzen al zea?
- Bueno... guk euki giñuzten gure garaien lau bat maixu bai. Bat, lelengoa erdeldune zan, bigarrenak euskeraz bazekin, hirugarrena erdeldune... hirulau, lau maixu bai, lau maixu ezautu dittut nik, bai.
- Ta erdaldune euskaldune baiño eskolan erderaz?
- Dana, dana, erderaz, erderaz, erderaz zan. Ta, klaro, guk etxeen dana euskeraz ta erderaz hitzik ez genduken ta izaten zan, ba, bueno...
- Gogorra?
- Gogorra, gogorra...
- Ta zigorrik bai euskeraz eiteatio?
- Bai, ezaututa nau, ezaututa nau, erderaz eitten zon.... e... euskeraz eitten zonai, eoten zan medalla bat eukitzen zon, medalla bat. Ta batek euskaraz, hari eman. Ta azkeneko momentun –lau terditan irtetzen gendun eskolatik– aitzenengo momentun medalla hura zeukenak, kastigauta. Ta erderaz. Ez zan eitten euskeraz eztaa... Batek, klaro, guri irten eitten ziun euskeraz, beti euskeraz, "Aiba", gero besten zai zeinek euskeraz eingo zon.
- Ta ze eitten zenduen, ixilik eon edo erderaz ein edo...?
- Bueno erderaz, ahal zala erderaz, erderaz. "Sí" ta "No" ta "Por aquí" esango gendun, baiño erderaz, klaro. Zekiñetik bakoitzek erderaz. Klaro, irtetzen zun, ba, klaro, normala zan irtetzea, egun guztin euskeraz ta etxen euskeraz ta: "Aiba, hik ein dek!". Ba hori ezautu deu.
- Eta laurak baldin bazian, baten bati pasau behar hori, ez?
- Bueno, batek eukitzen zon medallea ta harek aitzen bazuen euskeraz, da! ematen zion bestei, "Hik ein dek" eta... Ta azkenekoa lau terditan zeukenak... zigorra.
- Ta ze zigor, liburuna edo?
- Ez, liburuna ez, baiño han ordu pare baten kastigauta. Ta maixuk zertzuk esan... bueno! Gero euskera erabat zeon ordun... bai, bai, hori nik ezautu det. Ta ni bezela nere edadekok´e bai.

7. Natura

7.1. Txorien izenak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/026
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:38:00. **Bukatu**: 00:39:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Lehengo txorien izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Txori apik aipau ditteula, ze txori izaten zien ordun?
- Bueno, e... txori izenak, gure garaiko txori izenak hemen dauzket. Asko desagertuta daude, baiño gure garaiko txori izenak badauzket hemen. E... txepetxa –oiñ´e badau–, txantxangorrie, torratxorie –hemen "gorrión" esaten zaiona– amabirjiña txorie –hemen errekatan eta ibiltzen dana, saltoka ta ibiltzen dana–, txiue, tariñe, pinpiñe, karrastarroa, jilgeroa, burubeltxa, buru-urdiñe –oin pixkat ikusten die, baiño gutxi–, arbiazi txorie –arbiazik jaten ibiltzen zan txorie–, okille, kukue, txorihaundie, txorigorrie –lepoa gorri-gorrie zona–, xoxoa, birigarroa, xaguxarra, arranderea, ipurtxurie... Eta gero hemen araba-xoxoa –horik ya pasekok zien–, araba-xoxoa, este... frankoliñe... bueno... gero paseen juten zienak beste txori mordo bat. Baiño hok zien herri barrun ibiltzen zien txorik, bai. Oain asko galdu die, gutxi ikusten dittut behintzet nik. Baiño danak ezautzen giñuzten. Oaingo umek nik ez dakit ezautzen duen. E... arranderea ta zea, ipurtxurie, ez dittue bereizten. Arranderea udan ibiltzen dan haundiña ta bestea, ipurtxurie txiki txuri hori ta ez dittue bereizten. Ez die ibiltzen, zea, naturalezekin ez die ibiltzen. Txantxangorrie ezautzen badue, "mucho". Guk danak ezautzen genittun.
- Bueno... danak ezautzen zenittuen apitaa juten ziñetelako eta...
- Bai, bai, bai eta gure bizimodue beti kalen izaten zalako eta bai. Klaro, oain dauzketzu, ba, telebisioa ta jokuk eta bestek eta bestek eta danak.
- Klaro.
- Interneta eta hor ya nahastu eitten da hor asuntoa.
- Bai, bai...

7.2. Txoriekiko jarrera lehen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-013/028
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:42:53. **Bukatu**: 00:44:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Burubeltza eta buru-urdina ziren Laureanoren txori gustukoenak. Zergatik aipatzen du. Txolarreek lapur-ospea daukate. Lehen ez zeuden orain bezain beste uso. Lehen ehizarako kartutxo nahikorik ez zegoen.

Transkripzioa
- Ta zuk ze txori zendun zendun gustokoen?
- Nik burubeltxa ta buru-urdiñe. Buru-urdiñe zan oso, zea... urdiñe ekartzen zendun zendun etxea, sartzen zendun kaiolan eta iriki ta sukalden bueltaka ibiltzen zan buru-urdiñe. Oain gutxi ikusten da, bai. Eulik jan ta, bai, bai, oso, oso txori goxoa zan, bai. Beste bat txorigaixtoa esaten zaio hemen ibiltzen die, "gorriones", guk esaten diou, zea, este... torlatxorik. Beste batzuk hormatxorik... bueno. Horik ya horik gaiztoxiok die, horik ya gogorragok die, horik, gaiñea, lapur famea dauke.
- Bai, ezta? Eta usok noiz...? Usok garai hartan ba al zeren?
- Bai, bai, uso asko pasatzen zien. Klaro, oain aiñe ehiztari ez zan ta usoa izugarri pasatzen zan. Gure garaien hasi zien hemen mediku batzuk-eta juten Otzaurte aldea ehizea eta bai. Orduntxen haserea, oin dala, esaten ai naiz oin dala berrogeita hamar urte edo hola. Oain, berriz, ba, uso aiñe ehiztari dau ta...
- Bai, bai... egie da hori. Ta ordun hasi zan ehizea, e?
- Bai, bai, ordun juten zien, gu mutikok giñela, guk hamar-hamabi-hamabost bat urte giñuztela, bazien hemen juten zienak ehizea. Zea, Otzaurte aldea-ta juten zienak, bai. Ordun botako zittuen nahi zuen guztie. Baiño ordun kartutxoik ez zeon.
- Ta nola eitten zan?
- Orduun problema, ordun kartutxoik ez zeon.
- A! Ez zeon kartutxo nahikua?
- Nahikoa, klaro, oain bezela eon balitz bai!

8. Bestelako kontuak

8.1. Segura Erdi Aroan

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/010
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:09:53. **Bukatu**: 00:10:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: Erdi Aroan, Segurak 8-9 herri izan zituen bere mendean. Gerora, bideak aldatu ahala, herriek pixkanaka askatasuna lortu zuten. Garai batean, 15 eskribau omen zeuden Seguran.

Transkripzioa
- Segura garai baten oso inportantea izan zan. Legazpi eta danak bertako...
- Bai, bai, Erdi Aro garaien euki zittun, e... zortzi edo beatzi herri euki zittun bere menden. Herrie zeauta zan, harresiz ingurauta zan eta ordun, ba, honea etortzen zien herriok. Gero etorri zan buelta, ba... pixka bat kamiñok-eta aldau zitzaionen beste aldetik gora, ba, ya herrik eskatu zuen een askatasune. Baiño, esan dezune, Erdi Aroko garaien, hori. Hemen esaten due hamabost eskribau ziela.
- Eskribau?
- Bai, "notarios".
- Eta...
- Hemen kobratzen zien diruk, zea danak...
- Zergak eta...

- Bai, zerga danak. Eta gero hemen zea zien asko, olak, fabrik... eo... burnie eitten zan garaiek eta hoi danak hemen zeatzen zien.
- Ola asko zeuden, e?
- Bai, bai, bai. Hemen kontrolatzen zien, bai.
- Beittu, hori ez nekin nik.
- Bai, bai, bai, olak.

8.2. Segura Erdi Arotik hona

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/011
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:10:56. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: Erdi Aroan, Seguran izandako jauntxoei buruz hitz egiten du. Seguran, 26 putzu daude.

Transkripzioa
- Zein zan hemen hainbeste botere zuna edo zeintzuk ibiltzen zian hemen... jauntxon batzuk edo?
- Bueno, bai, bai, bai jauntxok zien ta dirudunek zien ta, klaro, gero herrie harresiz inguratuta ta zea zeuken, poderioa zeuken eta bueno. Eta, ordun, ba, segurantzie nahi zon danak, ba, honea, honea, honea.
- Klaro, garai hartan herri gutxi eongo zan. Baserrik bai, makiña bat, baiña...
- Bai ba. Bai, horreatik ba herri barrun... Horreatik dare Seguran hogeita sei pozadera dare.
- Pozaderak zer die?
- Potzuk. Ude etaatzeko potzuk.
- Hogeita sei?
- Bai. Klaro, ude behar zuen barrun eoteko. Lehenengo gerratan eitten zuena zan, eitten omen zuen, errekak enbenenatu. Ordun, barrun. Hemen, herriin bertan, kale hortan bertan dare, etxeetan, hola, hamarren bat eongo die kale hontan bertan. Etxetan pozaderak ude... ta ude oaindio etaatzen duenak´e bai.
- Beittu, e?
- Bai, bai.
- Kuriosoa.
- Hori... pozaderak. Juten bazea Hondarribia´re hura´re harresiz ingurauta zeon ta han´e pozadera mordo bat dau.
- Beittu, fijatuko naiz.

8.3. Segurako eraikinen historia

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/012
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:13:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: Seguran oso etxe dotoreak daude, garai batean gizon garrantzitsuenak izandakoak. Udaletxearen eraikinaren historia kontatzen du. Seguraren bilakaera.

Transkripzioa
- Ta gero hemen jauntxo etxe ta oso dotorek dare hemen?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta haiek zeiñenak die haiek?
- Bueno, oain partikularranak die, baiño puffff... esate bateako, jauregie, udaletxea daon jauregie, ba, Lardizabalena zan. Gizon oso inportantea zan, gero familik ez zuten eta herrii eman zien. Herrik udaletxe bihurtu zon. Baiño oso inportantea familie. Madrilgo alkate izandakoa zan ta gero zan, ba, zea hori, estranjerin, Amerikan ta, asko ibilitakoa ta dirudune. Izugarrizko diruk zeuzken. Danak hemen juntatzen zien horik. Herri inportantea zan, danak hemen juntatzen zien. Ta gero etorri zan beherapena, lehen esan dizuana, Erdi Aroa pasa zan garaien ta kamiñok hasi zien garaien, bat handik ta bestea hemendik eta ya... Igual dio, zuk negozioa jartzen dezu hotel bat edo gasolinera bat ta kamiñoa beste aldetik pasatzen bazatzu...
- Hori egia da, e? Kamiñoik gabe geratu da hau igual.
- ... "date por perdido". Ta hemen´e hori jun zan, [...]. Gero iraun dittu, ba, zea horiik, etxek eta jauregik eta, ez da industriik izan eta industriik izan ez dan hortaa, ba, mantendu ein da.
- Izaera hori hartu du azkenen, ez?
- Bai, bai, bai, bai.
- Bien, bien, bien.

9. Herria, azpiegitura

9.1. Fabrikara joateko garraiobideak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/015
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:16:41. **Bukatu**: 00:18:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak
- **Laburpena**: Indar tailerrean aritu zen lanean 40 urtez, egokitzaile-lanetan. Lanera bizikletaz, motorrez eta autoz joan izan da. 17 urterekin hasi zen lanean. Fabrikan izandako lehenengo inpresioa gogoan du.

Transkripzioa
- Lanen nolatan hasi ziñen ba?
- Bueno, ordun tailler baten aritu nintzen pixkat ofizioa ikasten ta gero ba han lana eskatu ta han sartu.
- Ze ofizio izan zan?
- Ajustadore.
- Ajustadore.
- Bai.
- Ta INDAR ere orain bezain haundie al zan garai haitan?

- Bueno... ordun´e eoten zien berrehun ta berrogeita hamar bat lagun bai, e? Gure garaien´e bai, bai, bai. Berrehundik gora eoten zien, bai.
- Ta nola juten ziñen bertaiño?
- Bizikletan. Haseran bizikletan, gero motorren baten ta gero azkenen kotxea. Berrogei urten poderion.
- Zenbat urtekin hasi ziñen?
- Ni hasi nintzen, e... hemezazpi bat urte o hola... bai.
- Hemezazpi urtekin. Garai hartan hori zan edadea, ez?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Garai hartan hautza jun ta lana eskatzen bazendun, buzoa jantzi ta segi. Bertan fijo hurrengo egunen.
- Lana bazeon ordun...
- Bueno... lana!
- Ta arraroa ein al zitzaizun fabrika batea jutea? Nola, zein izan zan lelengo inpresioa ein zizuna fabrikak?
- Oso itxie. Itxie, bai. Itxie ta, bueno, gero jarri eitten zea ta... bueno.
- Azkenen ohittu.
- Ohittu eitten zea, bai, bai. Gero ze lan daukezun´e... lan fijo-fijo-fijoa baldin badaukezu oaindik gogorragoa da, makina baten hantxen pum-pum-pum-pum urtek ta urtek ta urtek... hori´re oso gogorra da.
- Ajustadore jungo ziñan makiñatan?
- Bai, hori ta pieza bat ta beste bat ta pixka bat zeaxio.
- Bien, bien, bien.

9.2. Lehengo autobusak bete-beteta

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/021
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:24:14. **Bukatu**: 00:26:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Oinetakoak egiten zituzten pertsonak baziren lehen Seguran. Lehengo oinetako motei buruz hitz egiten du. Batetik bestera joateko, oinez, bizikletaz, autobusez... joaten ziren. Autobusak bete-beteta joaten ziren lehen.

Transkripzioa
- Abarkak eitten zittuna´re esan dezu bazeola?
- Bai, bai, bai, abarkak eta bortzegik eitten zittuna´re bai ta...
- Zer esan dezu? Bortzegik?
- Bortzegik izaten zien bota batzuk iltzedunek, azpin iltzek zeuzkenak.
- Lantegitako ta, edo...?
- Bai, bai. Lantegitako ta lokatzetako ta.
- Lokatzetako...
- Irrist ez eitteko ta... Mezata´re eskun zapatak zittuela etortzen zien baserritatik eta hor ezkutun baten utzi abarkak eta jantzi bestek eta elizaa. Eta etxeakon, alderantziz.
- Bai, ze bideik ez zuen eukiko baserria, ez? Bideik edo...
- Bidea bai, baiño lokatzea.
- Lokatzea.
- Lokatzea ta han zapatakin ez zeon etortzeik, elizaa txukun zeon jun beharra.

- Zuek nola moldatzen ziñeten hemendik, Seguratik ba Idiazabalea edo Zeraiñea edo juteko? Gurdin edo?
- Jeneralen oiñez juten giñen Zeraiñea ta. Gazte denboran oiñez. Gero bizikletak hasi zien ta pixkaka-pixkaka, gero moton bat baldin bazan ta... ta hola.
- Eta gurdik ez zeren...?
- Ez, ez, ez. Karrok bazeren, baiño karrok zeuzken batiz bat hok, hemen residentziko mojak zerenak, karroa eukitzen zuen zaldiikin, baiño eak ibiltzeko. Hemendik estazioa-ta oiñez, karroik-eta ez zan. Gero autobusek hasi zien, geroxio, bai. Autobusek´e hasi zien, ba, esaten dizut, milla bederatzirehun ta berrogeita pikon ya hasiko zien autobusek´e ta. Autobusek´e nolanahi ez, Beasaiñea jun behar bazendun o Ordizia jun behar bazendun, baiño hola herrin festataa juteko-ta ez.
- Ta autobusak bete-beteta juten zian ordun?
- Puff... goi ta behe beteta. Goi ta behe beteta.
- Hori ikusten da, iruditan-ta ikusten da aten jendea hola helduta.
- Bai txintxilika ta goien ta buenoooo...
- Goien´e bai, e?
- Bai, goien? Goien? Ene...! Feritatik goien etortzen zienak... Goien jarrita, "Eeee!".
- Mozkortuta etorri ezkeo ta?
- Bueno... Bai batzuk... oain, berriz, bueno, bat ikusten badezu [eskue etaata, multau] ta... Aldau ein die ta...

9.3. Apaiza mugarrietan

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/037
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 01:09:20. **Bukatu**: 01:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- **Laburpena**: Herrien arteko mugarrietan, apaiz bat ibiltzen zen gurutzeak jartzen. Haren esanak gogoan ditu.

Transkripzioa
- Eta hori mugarrikin o nola zeon?
- Ba mugarrik dare horiitan!
- Bai, e? Oindio´re badare?
- Bai, horiitan apaiz bat ibiltzen zan kurutzak jartzen, bai. Don Frantzisko, Zeraiñen eondako apaize. Ta harrek hala esaten zon: "Zerainsagasti Zeraingoa ta Lastala? Zeiñek esango Zeraingoa ez dala!" esaten zon. Harrek beiz´e herritik Arrittaa biden dau hue mugea, mugarrie. Lastalak. Bai...

10. Lanbideak

10.1. Lanbideak Seguran lehen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar

- **Erref**: SEG-014/018
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:21:27. **Bukatu**: 00:22:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Lehen Seguran zeuden lanbideak eta negozioak aipatzen ditu. Langile gehienak Seguran bizi ziren.

Transkripzioa
- Hemen zeuden taillerrak...
- Lantegik eta, bai, bai. Bai, lantegik bai. Garai hartan nolabait hemen moldatzen zien gure gazte denboran. Hemen ezautu dittut hiru sastre, bi dentista, bi edo hiru zapatero, aguazille fijoa, zabor biltzaille fijoa... danak nolabait hemen bizi zien. Nolabait. Aldamenen herri koskor batzuk badauzke, han ez zienak zea horik, denda o zea horik, baiño, bai, hementxe bizi zien. Hiru zapatero, e? Hiru. Eta sastrek´e, dana erropea bertan eitten zan. Oain jun ta erosi eitten dezu, baiño trajea behar bazendun edo alkondara bat edo prakak, dudaik pe.
- Inguruko herritatik´e honea etorriko zien?
- Bai, bai, bai, ingurukok-eta bai. Gero zapaterok´e, ba, oiñetakok´e ez zien oain bezela, dana konpondu eitten zan. Konponketa ein ta beinga!

10.2. Segurako bandoa

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/038
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:50:23. **Bukatu**: 00:53:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Seguran bandoa irakurtzen zuten pregoilariak baziren. Hiru lekutan ematen ziren bando horiek, mezaren ostean. Orduko bando batzuk gogoan ditu.

Transkripzioa
- Pregoilarie ba al zeon?
- Pregoilarik ez. Pregoilarik, bueno, pregoilarik hemen, kalen, bandoan danborra jo ta leitzen zuenak bandoa. Horik pregoilarik, bai, bazien. Jaietan meza ondorenen hiru lekutan jotzen zan, abixok izaten zien. Oain, klaro, telefonotik ta Internetetik ta han apuntatu ta... ordun pregoilarie izaten zan.
- Ta, ordun, izaten zan elizan ondoren esan dezu ta aurretik?
- Eliza... Ez, meza ondoren hiru lekutan: bat plazan, bestea hemen jotzen zon ta bestea beheran.
- Meza ondoren hiru lekutan.
- Bai.
- Akordatzen al zea abixun batetaz?
- Bai, garo garaien ta "Bueno, garok datorren jaien ia garotaa jun laike holako lekutan". Eta igual razionamentue baldin bazeon, lehen esan dizudana, zeak etortzen zienen, e... bixigue ez ta bestea nola esan deu?
- Txitxarroa.
- Txitxarroa [...]... "Bueno, bando, txitxarroa plazan saltzen holako

preziotan ta holako lekutan", bai, ta tipo hortaa dana. Eta abixun bat baldin bazeon, ba, "Datorren asteen izango da astelehen ta astearten kontribuzioa pagatzeko egune". Euskeraz ta erderaz, bitara eitten zuen. "De orden del alcalde se hace saber..." ta "Alkaten ordenaz adierazten da" euskeraz, ta holako ta holako ta holakotan izango da. Eta euskeraz eta erderaz. Abixuk, abixuk izaten zien, bai.
- Ez zan esaten "Bando bando alkatek esan do"?
- Ez. "Alkatek ordena eman do", hori ya bertsoa zan. "De orden del señor alcalde se hace saber, primero..." hiru bat gai. "Alkate jaunaren ordenaz adierazten da, lehendabizi... garotako zea datorren jaitik ein laikela. Kontribuziok pagatzeko garaie datorren astelehen ta astearte izango dala holako lekutan. Eta indizioa –beste bat– hartzeko lekue holakotan izango dala". Ta abixok, abixok bai.
- Ta ondo aitzen zan?
- Bai, danborra jotzen zon "rrrr" ta jende guztie ixilik. Gaiñea, txapela kentzen zon danborra jotzen zonak. Hare kendu, papela etaa, antiajuk jantzi ta "Alkatearen ordenaz adierazten da, lehendabizi... holako ta holako ta holako. Bigarren...", [...] etxea eamaten zon, "De orden del alcalde se hace saber, primero...". Hori nik ezautu, bueno...
- Ta baserritarrek ez zuen aittuko hori...
- E?
- Baserritarrek bandoa aittuko al zuen?
- Mezataa etortzen zienen! Mezataa etortzen zienen. Bi mezatan ematen zan. Bat zortzi ta erditako meza ondorenen eta gero meza nagusi ondorenen. Klaro, horreatik izaten zan, mezataa... danak etortzen zien. Ordun mezea galdu? Jesus... pekatu mortala.
- Ezta pentsau´re.
- Klaro. Horreatik eitten zuen, baserritarrak etortzen zien.

10.3. Aguazilak eta gauzainak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/039
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:53:08. **Bukatu**: 00:54:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Seguran aguazilak ezagutu izan ditu Laureanok. Gauzainen funtzioaz hitz egiten du.

Transkripzioa
- Serenok bazeren edo aguazilak ordurako?
- Aguazilak. Serenoik ez. Serenoak nik Donostin ezautu... bueno, ezautu... beno, han mutikotan ikusita nau. Serenok badakizu zer eitten zon, ezta? Harek gauen hots eitten zon "Serenooo!" ta lehenengo hots ein eta gero erderaz zan Donostin, "son las tres de la madrugara, y cae lluvia", "son las tres de la madrugada y está sereno", garbi zeolako. Horregatio da Sereno izena. Sereno horreatio du izena.
- Ta goizeko hiruretan?
- Bai, gauen hiru-lau aldiz, bai, hiru bat aldiz, bai. "Serenoooo, las cuatro de la mañana y viento sur".
- Eta esnau eiten zun jendea, o?

- Bueno aitzen zonak bien ta bestela... Bi edo hiru aldiz esaten zun ze ordu zan ta... Ta horreatik zan Sereno. "Y está sereno", garbi zeola "sereno" esaten zion. Hemen ez det ezautu, baiño han bai.

10.4. Bizartegietako trikimailuak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/041
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:55:39. **Bukatu**: 00:57:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Lehengo bizartegietan, bizarra ondo mozteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa
- Ta barberik´e bai, barberik-eta ordun, e... gezurre dirudi, baiño nere aittek ezaututa, ordun jende flakoa, eta bola bat eukitzen omen zuen, intxaurren moduko bat haundie... zurzitzeko... Nola garai baten zurzitzeko ibiltzen zuen, galtzetan sartu ta bola eitten... Klaro, leuntzeko. Ordun jende flakoa zan ta danak ahoa sartuta. Eta garbi-garbi-garbi ein ta aiba!, zea.
- Kuriosoa hori, e?
- Bai, bai, hori bai, hori ibiltzen zuela. Ta, ordun, ba, ordun, ba, oain´e ba... ebagin bat eitten baldin bazan, ordun barberitti irtetzen zon jendea zigarro papela, ebagi bat ein ezkeo, "ra!", " tak" pegau ta bi-hiru partxekin normala zan irtetzea. Ez zan gaiztotzen ta ezerre. Harri bat eoten zan, harri bat danantzako, piedra pomez o esaten zioen ta harekin igurtzi ta ya esta. Hori ohittura bezala, hori.
- Ta zuek umetan etxen moztuko zenuten ba?
- Bai, etxen aittek, hoixe, hoixe. Baiño bizarra moztea jendea etortzen zan baserrietatik ta flako horiik ba hoixe zauken. "Pa zurcir". Bestela barrue ez zeon harrapatzeik eta!
- Ta bizarra moztea ze etorriko zan asten behin o hola? Eunero?
- Asten behin, holakotxe bizar zaharrakin, tarra tarra tarra eiñez, bueno... asten behin.

10.5. Segurako mandatariak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/042
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:57:05. **Bukatu**: 00:58:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Lehen baziren mandatariak, Donostiara joaten zirenak. Enkarguak hartu eta bete egiten zituzten. Mandatariak nola ibiltzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa
- Errekadistak bazeren?
- E?
- Errekadistak.
- Bai, errekadistak bazeren, bai. Donostia juten zien rekadistak. Asten behin edo bi aldiz juten zien.
- Ta zein zan beraien lana?
- Hartu ta Donostia eraman enkarguk, eta handik ekarri enkarguk. Ta gero partitzen zittuen beheran, taberna bat zeon ta han partitzen zittuen.
- Ta ze enkargu mota zian? Pertsonenak, familikonak edo...
- Bai, bai, bai, bai, esateko nik ez dakit ba, hemen lana zaukenak, zapaterik eta horik, ba, narrue igual ekartzen zuen. Nik gure aitte zanai aitzen nion, zeak... pintura potek-eta ekartzen zittuen ta... Beak juteik ez ta... bai. Ta beste edozein enkargu eramaten zizuen.
- Ta ze jungo zian hoiek trenen o?
- Trenen, trenen, trenen juten zien bai.
- Gaztek izaten zien, edo?
- Amonak´e bai, amonak´e bai. Ordun autobusek-eta hasita zeuden eta. Lehenao, berriz, ba, karrotan, lehen karrotan juten zien, karrotan. Ta horik juten zien trenen. Enkargu pila ona ekartzen zuen, ene...!
- Kargauta etorriko zien.
- Kargauta. Gero karroa zeuken eta karron [etortzen zien]. Ta Donostitik estazioa´re karron.[Nunbaitetik...] enkarguk hartuta karron. Rekadistak. Gero rekadistak hasi zien kotxetan´e bai. Hemen kotxetan... baiño Beasain ta horiitan bai rekadistak. Oain´e ez dakit... igual egongo die batzuk.

11. Iritziak

11.1. Lehengo eta oraingo ohituren arteko parekotasunak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Ordozgoiti, Laureano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-014/033
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:42:14. **Bukatu**: 00:45:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Lehen, baziren begiz jotako pertsonak. Lehen apaizarengana joaten zen jendea konfesatzera; gaur egun, jarrera horrek paralelismoa dauka psikologoarengana joatearekin. Lehengo eta oraingo ohiturak alderatu egiten ditu eta parekotasunak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Begiz jotako jendea-ta ba al zegoen? Begiz jotze...
- Bai, bai, begiz jotzen zuenak... pertsonak izaten zien, begikoa esaten [ziena zeonak], harek esandako gauzea kunplittu eitten zan. Ba "zuri gizona hilko zaizu" edo "zeuk akzidente txar bat izango dezu" edo... begiz jotakok hola esaten zuen ziela, bai, personak.
- Ta zer eitten zan begiz jota baldin bazeon baten bat edo? Juten zan intxisun batengana edo?
- Bueno, ez dakit. Apaizena-ta juten ziela esaten zuen.
- Apaizena.
- Bai, apaizena. Ta apaizek emango zien zea... Klaro, ordun konfesau eitten

zan ta, bueno, nik askoi esan diet konfesua bai, baiño oain´e pixkat errepikau eitten da hori, e? Lehen konfesatzea juten zan ta harek esan ta harek lasaitzen zituen. Ta oain holakotan psikologona juten da pertsonea. Ta harei kontatzen dizkio danak, e? Pixka bat kopi bat badau hor, e? Ta harek gaiñea kobrau eitten do psikologok, e? Osea ke pixkat kopi bat. Eta nei esan die e bai, gu prozesion-ta ibiltzen gea ta, bai, "prozesioa, hori ya pixkat zea..." ta. Baiño, klaro, prozesioi beitzen badiozu, errepikau eitten da. Manifestazioa zer da? Prozesioa, ra-ra ibiltzen die. Estandartek eta irudik prozesion ibiltzen dienak zer die? Ba pankartak eta sloganak. Prozesion ibiltzen dien kantuk eta errezok zer die? Ba "riau-riau-auauauuuuu"... Ni pixka bat, ni hori fijatzen naiz, e? Pixka bat badaukela...
- Oso zea, ikuspuntu...
- Badaukela ikutu txiki bat, ezta? Historian erderaz esaten da "La historia se repite". Prozesioa eta manifestazioa bik bat die: prozesion jendea ta manifestazion jendea. Prozesion estandartek eta irudik eta han pankartak eta... eta prozesion errezoa "ora pronovis" eta besten "eiei riau" sloganak esaten die, hau askatu, bestea ein... pixka bat errepikau eitten dala.
- Parekotasun bat.
- Bai, bai, eta konfesiok´e bai. Konfesiok´e dana esaten ziozun ta "aaa" ta lasaittu [eitten zan]. Oain, berriz, asko psikologona juten die eta harei dana esplikatu ta eon zaiz lasai ta hau ta hura ta bestea ta... Gero [...] ez nao haren alde, e? Konfesion alde-ta ez nau, baiño han ez zuen kobratzen. Oain psikologok kobrau eitten due. Badauke parekotasun txiki-txiki bat.
- Arrazoi pixkat badaukezu, e? Ze oain´e bildurrak egongo die, beste era batekok eta...
- Hori da, ta lasaittu eitten zaittu ta... Ordun apaizek lasaitzen ziñuzten eta...
- Bai, hori da, hori da...

12. Ekonomia eta industria

12.1. Lima-lantegiko lana

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/008
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:14:03. **Bukatu**: 00:15:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena**: Soldadutzatik etxera itzulitakoan, lima-lantegian hasi zen lanean. Orduan, lana barra-barra zegoen, eta lima pikatzen aritu zen 20 urtean. Lima pikatzeko prozesua azaltzen du. 62 urte zituela hartu zuen erretiroa Joxek.

Transkripzioa
- Ta gero buelta ta limata, lima lantegia.
- Bai.
- Ta nola lortu zendun lan hori?
- Hauntza jutea? Lehengusu bat zeon han enkargatu ta harek, ordun eozein sartzen zan, harena juteko, hurrengo egunetik juteko. Jun nitzen ta pikadoratan, lima pikatzen arittu nitzen 20 urten. Ta ez da ofizio earra, e?
- Ta nola izatea ba? Ze...?
- Makinaan, makinaan jarri ta zea pikatzen ta. Ta bistea eta zea han´e

puntun geatu ta zeak eitten. Oin harrezkeo jarri zittuen, e, zeak, "automáticamente". Topea hartzen zon garaien, fiu, haizeekin bajatzen zala, geatzen zala, jarri zittuen, bai. Ta hoi dana jarri ta gero hartu makinak eta hortik ez dakit Colombiaa o noa eaman zittuen. Bai.
- Danak jarri ta gero, e?
- A bai, bai, bai. Bueno ni lehentxio... handik jendek alde ein baiño leheno alde ein non, e? Bai, hirurogeita bi urtekin jubilau nitzen. Bai.
- Ondo, ondo.

12.2. Erreka bits gorriz beteta

- **Hizlaria(k)**: Ugalde Ormazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: SEG-019/015
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:23:42. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
- **Laburpena**: Zegamako paper-fabrika martxan zegoen garaian, erreka bits gorriz beteta etortzen zen. Behin, lagun bat konturatu gabe errekan sartu, eta ezusteko galanta hartu zuen.

Transkripzioa
- Garai hartan Seguraerrekan zea etortzen zan... hor pastea-o eitten zuen Zeamako fabrikan, zea bat...
- Papelera o...
- Papelera zea. Ta errekea pitxe, dana, hola, lodin eoten zan. Ta errekan, erreken ondo-ondon dau, zea, errota bat Seguran, Segurako herria allau baiño lehen hantxe goitik behera jaitxita. Ta nere [etxekoaneko] zea hori – nere kintoa zan, gaiñea–badator ta errekan gauen [zea hasi da] ta pitxetan gerriaño sartu, uden, zea, pitx hortan. Pitxe, zea, formatzen zan ba zea horrek. Errekea, kolorea, gorri-gorrie ude etortzen zan beti. Ta susto earra bai harek´e!
- Ta zeatio sartu zan ba errekara?
- Akordau be! Pasatzen hasita errekan! Je! Zeatio sartu? Ez zon eukiko gogo haundiik ez zon eukiko han sartzeko, baiño...
- Gaua al zan?
- Gaue!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Bizimodua baserritik egiten zuten (SEG-001/002)

Bizimodua baserritik egiten zuten. Garai hartan artoa eta garia ziren uzta garrantzitsuenak Goierri inguruan. Afal ondoko errezoetan egiten zuten arto zuritzea. Artoaren ondoren garia ereiten zuten.

2. Bertso zaletasuna amarengandik jasoa (SEG-001/003)

Errezoen ondoren, txiste, bertso eta kontu zaharrak aipatzen zituzten. Ama neskame egon zen etxeko morroiei entzunaz sortu zitzaien bertsotarako zaletasuna. Amak bertsotarako afizio handirik ez bazuen ere, bere kantaera eta ahotsak jende asko erakartzen zuen. Joxek amarengandik jaso zuen bertsotarako zaletasuna, baina ez zuen haren eztarri eta "belarririk".

3. Betso jarrietan hasi (SEG-001/004)

16-17 urterekin kalera jaisten hasi zirenean, bertso jarriak entzuten zituzten. Txirrita eta Lazkao Txiki aipatzen dizkigu. Jendearen bertso goseak eta bere etorriak, despedida eta abarretan bertsoak jartzera bultzatu zuten.

4. Bertso txapelketak (SEG-001/005)

Jarraian bertso txapelketak hasi ziren. Urteetan Francoren garaiko diktadura zela eta txapelketak debekatuak egon ziren, euskara gaizki ikusia baitzegoen. Diktadura erraztasun gehiago ematen hasi zenean, 1960 aldera lehenengo txapelketak Goierrin Ordizian jarri zituzten. Joxe, haiek adina bazela uste arren, entzutera soilik joaten zen.

5. Soldadutza kontuak (SEG-001/006)

Soldadutza egitera Burgosera joan zen. Euskaldunen artean, Txomin Garmendia, Azpillaga eta Lazkano bertsolariak suertatu zitzaizkion.

6. Bertsotan lortutako txapelak (SEG-001/007)

Soldadutzatik bueltan, txapelketetan ateratzen hasi zen. Abokatu, euskal akademiko eta fraide ezagunak izaten ziren, besteak beste, epaimahaiko lanetan. Gipuzkoa bost puskatan banatzen zuten lehen aipatutakoak antolatzeko. Txapelketa batzuk irabazi arren, ez zen sekula finalik jokatzera iritsi.

7. Industria eta eztarriko arazoak (SEG-001/008)

Garai hartan baserriak ez zuen diru askorik ematen eta Aristrain Olaberriko enpresan hasi zen lanean. Fundizioan hasi zen eta ez zion bertsotarako ahotserako batere laguntzen. 31 urte zituela mediku batek eztarriko arazoak zirela eta, espezialista batengana bidali eta amigdaletako ebakuntza egin zioten Bilbon. Ebakuntza ondoren berriz ere arazoak zituela eta ahotsik gabe geratzeko arriskua aipatu zioten kantatzea galaraziz. 32 urte betetzear zegoela, kantatzeari utzi behar izan zion.

8. Demokrazia garaian zinegotzi (SEG-001/009)

Franco hil eta demokrazia garaia etorri zenean, herriko zinegotzi jartzeko deitu zioten udaletxetik. Berriz ere hango lagunak tentatzen hasi eta bertsotara bueltatu zen. Euskadi Irratiak jarritako Pernando amezketarra sariketan parte hartu zuen. Bost saiotan jokatu zuen Pedro Etxezarreta eta Goibururekin, eta bost saioak irabazi zituzten. Atzera eztarria zela eta, erretiratu egin zen.

9. Ikasi ezaren damua (SEG-001/010)

Lagunak eta irabazten zuen dirua zirela eta, ez zuen lana uzterik nahi izan, baina eztarriko arazoek behin baino gehiagotan damutuarazi zuten. Eskola eta musika ikasteko aukera ez izanaren pena dauka.

10. Euskara erdarari nagusitu (SEG-001/011)

Orduko Goierriko euskaran, azkar ezagutzen zuten bakoitza zein herritakoa zen. Erdaraz ondoen apaizek jakiten zuten, bertakoak ez ziren gai, euskara hutsean zekitelako. Euskararen berezitasunak eta herri ezberdinetako euskara aipatzen ditu.

11. Baserriko lanen inguruko kontuak (SEG-001/013)

Baserriko giroan lehengo ohituretan oinarritzen ziren. 1920-1960 inguruan egingo zen baserrian lan gehien. Ez zegoen baserrian lan tresna gehiegirik eta eskuz moldatzen ziren. Umetan segan asko eginak ziren, beraien aitona-amonak, aldiz, ez zuten ezagutu tresna faltagatik. Zaharretatik ondorengoetara pasa ziren ofizio asko, baina dirua ateratzeko fabriketara joan eta baserria behera etorri zen.

12. Lehen zaharrei errespetu gehiago (SEG-001/015)

Gaurko aldean zaharrei errespetu handiagoa zitzaien.

13. Festetan dantza heldua egiteko debekua (SEG-001/016)

Festetan lotuan ez zegoen dantza egiterik. Soinua herri txiki danetan jotzen zuten. Ilundu aurretik elizan kanpaia jotzen zuten eta neskek etxera joan behar izaten zuten.

14. Garraio eta errepide aldaketak (SEG-001/018)

Lehenago erromeriak izaten ziren eta pelikulak ere bai. 70etik aurrera industriak lagunduta garraioa asko aldatu zen. Gure aurrekoen bizimodua okerragoa izango zen elizaren arauak zirela-eta.

15. Gaur egungo irakaskuntza (SEG-001/019)

Lehengo aldean gaur jende hobea dago, gehiago laguntzen dute elkar. Gaur eskola gutxiena duena ere jakintsua da lehengo aldean.

16. Gerra garaian, ostatua soldaduz beteta (SEG-006/003)

Aitak autobusekin egiten zuen lan; etxean ostatua zeukaten. Gerra garaian, ostatua beteta egon zen, soldaduak hara etorri baitziren. Soldadu haien janzkera gogoan du.

17. Borrokatik babesten eta zaurituak garraiatzen (SEG-006/004)

Gerra garaia gogoan du Luziak. Beraien ostatuan gelditu ziren soldaduak; eta, bolada batean, kuartela izan zen beraien ostatua. Menditik botatzen zituzten tiroak beraien ostaturaino iristen ziren. Tiroetatik nola babesten ziren eta hildakoak nola garraiatzen zituzten azaltzen du. Seguran 22 mutil hil zituzten.

18. Gerrak eragindako zorigaiztoak (SEG-006/010)

Gerra garaian, Beasainen hiru gizon hil zituzten, batere errurik gabe. Orduan, jendeak mendira egin zuen ihes. Gerrak 3 urte luze iraun zuen.

19. Irratiaren garrantzia gerran (SEG-006/011)

Irratiaren bidez zuten gerraren nondik norakoen berri. Gogoan du orduko irratsaioa.

20. Eskolan 3 urterekin hasi zen, 1916an (SEG-006/013)

Eskolako garaiak gogoan ditu. 3 urterekin hasi zen eskolan, letrak ikasten. Ikasgelan zer egiten zuten azaltzen du.

21. Historia Sakratua ikasten (SEG-006/015)

Eskolan, mojekin ikasi zuen. Historia Sakratua nola ikasten zuten azaltzen du.

22. Jolas-orduko jolasak eta kantak (SEG-006/019)

Eskolan zebilela, jolas-ordua bitan izaten zuten. Orduan abesten zuten kanta gogoan du. Jolas ugari izaten zituzten.

23. Lando beltza izan zutenekoa (SEG-006/033)

Etxean autobusak zeuzkaten; lehenago, lando beltz bat izan zuten. Lando hura deskribatzen du. Behin, behor batek ihes egin zienekoa gogoan du.

24. Errepublika garaiko kanta (SEG-006/036)

Errepublika garaia. Erreketeen kanta bat gogoan du.

25. Nazionalistak herritik bidali zituztenekoa (SEG-008/006)

Gerra garaian, nazionalista izateagatik, hainbat lagun herritik bidali zituzten; bazihoazela, burla handiak egin zizkieten.

26. Etxeko nagusiaren joera politikoaren mende (SEG-008/007)

Herrian hainbat lagun atxilotu zituzten gerra garaian. Koinatua libratu egin zen kartzelatik, bere etxeari esker. Izan ere, etxeko nagusiaren joera politikoaren mende egoten ziren bertan bizi ziren bizilagunak.

27. Kartzela, nagusiak eta lapurretak (SEG-008/009)

Zurbano zen etxeko nagusia, eta harengana joaten ziren errenta ordaintzera. Hura karlista zenez, kartzelatik libratu zen Juanaren familia. Gerran, lapurreta handiak egon ziren.

28. Soldaduak herrian, eta herritarrak mezan (SEG-008/010)

Gerra garaian, militarrak etorri ziren Segurara. Soldadu asko ibili ziren herrian, bertakoak balira bezalaxe. Lehen, meza goizeko 06:30ean izaten zen, eta baserrietatik ere ordu horretarako etortzen zen jendea. Baserritik herrira joateko, bide txarrak zeuden.

29. Bidean bustitako arroparekiko maistrak hartzen zuen ardura (SEG-008/011)

Eskolan zebiltzala, baserritik etortzeko bidea oso txarra zenez, maistra ondo arduratzen zen umeek bidean zikindutako edo bustitako arropa lehortzeaz.

30. Lehengo sendabelarrak eta medikuak (SEG-008/014)

Guraso jatorrak zeuzkaten. Sutondoan elkartzen ziren kontu-kontari. Behin, hanka erre zuen Juanak beheko suan. Mutiloko baserri batean egiten zuten sendabelarrari esker, berehala osatu zen. Lehen medikua etxera joaten zen, haren beharra izanez gero.

31. Segurako hainbat gazte eraman zituen gerrak (SEG-008/015)

Anaia gerran hil zen, 21 urte zituela. Segurako 27 gazte hil ziren gerran. Elizaren atarian urte askoan egon zen haien oroimenean jarritako kartela. Juanaren bi anaia desagertu ziren gerran. Anaia bat nola hil zen azaltzen du.

32. Arropa garbitzeko egin beharrekoak lehen (SEG-008/016)

Lehen arropa eta izarak nola eta noiz garbitzen zituzten azaltzen du. Sutako hautsa ur berotan sartuta ona izaten zen arropa garbitzeko.

33. Errekara, arropa buru gainean zutela (SEG-008/017)

Arropa buru gainean eramaten zuten errekara, garbitzeko. Arropa nola antolatzen zuten azaltzen du.

34. Arropa tindatzeko ohitura handia (SEG-008/020)

Arropa tindatu egiten zuten lehen, askotan; izan ere, garbitzearen poderioz, kolorea higatu egiten zen. Arropa nola tindatzen den azaltzen du.

35. Abrigoak jostunak egiten zizkien (SEG-008/021)

Lehen, abrigoak egin egiten zituzten. Koinata oso jostun ona zen; eta zertzelada batzuekin, ondo ulertzen zuen zer eratako abrigoa eskatzen zitzaion.

36. Modak eta jostunaren aldizkariak (SEG-008/022)

Orduko moda nolakoa zen aipatzen du. Garai batean, lasaiera handiko abrigoak egon ziren modan; baina, horretarako, dirua behar zen. Jostunek modako aldizkariak izaten zituzten handik ideiak ateratzeko.

37. Josten ikasten aritu zenekoa (SEG-008/023)

Juana josten ikasten aritu zen koinatarekin. Josteko teknikak eta pausoak aipatzen ditu.

38. Misioetan, neskazaharren aurka (SEG-008/034)

Misioetan, behin neskazaharrei buruz izugarriak esan zituzten. Neskazaharrak orduan negarrez, eta gazteak barrez. Orduko sermoiak oso gogorrak izaten ziren.

39. Bonbardaketak eta tiroak Seguran (SEG-008/039)

Gerra garaian bonbardaketak izan ziren Seguran. Jende askok baserritik alde egin behar izan zuen; baina beraiek ez ziren inora joan. Leihoetan, koltxoiak jartzen ziren tiroetatik babesteko. Sukaldean egoten ziren, tiro-hotsak entzuten zituzten bitartean. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu.

40. Historia Sagradako liburua (SEG-014/054)

Historia Sagradako liburuaren irudiak.

41. Hainbat euskarazko liburu (SEG-014/055)

Kristau-ikasbidearen irudiak. Xabiertxo liburuaren irudiak. Sabin euskalduna liburuaren irudiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com